



Txostena 2015

Emakumearen Euskal Erakundea
2015eko Jarduera Memoria

sartu

1.

Hitzaurrea

2.

Administrazio
Publikoen
Esparruan Egindako
Jarduerak

3.

Gizarte Osoa Xede
Duten Jarduerak




aurkibidea



irudiak



eranskina



Aurkezpena

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak onetsi zuen agiri hau, eta erakundeei, antolakundeei eta herritar guztiei Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak 2015. urtean egindako jardueren berri ematea du helburu.

Lehenengoz, Emakunderen barneko antolakuntza eta egitekoa azaltzen ditu, eta horren arabera, atal handi bitan egituratzen da: Lehenengo ERANSKINAK batik bat herri erakundeen esparruan egindako jardura biltzen du, politika publikoen diseinu, bultzada, koordinazio, aholkularitza eta jarraipeneko ekintzak nahiz emakumeek politika horietan duten parte-hartzea sustatzeko ekintzak ardatz hartzen dituen lana. Atal honetan herri aginteekin egindako ekintzak azaltzen dira, bereziki Administrazioaren hiru mailekin egindakoak, baita estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekiko harremanen esparruan egindakoak ere.

Bigarren atalean, gizarte osoarentzat bideratutako jardura azaltzen da, bai agente edo talde antolatuen bitartez egindakoa (adibidez, emakume-elkartek edo enpresa eta erakunde pribatuek egindakoa), bai herritarrentzat egindakoa. Jardura honetan bi alderdi sartzen dira: alde batetik diskriminazio-egoera zehatzei emandako erantzuna, eta bestetik gizarte-sentsibilizazioa.

Emakundek eskerrak eman nahi dizkie txosten honetan bildutako jardura guztiak profesionaltasunez egiten laguntza eman duten administrazioetako nahiz beste hainbat erakundetako pertsona guztiei, bereziki berdintasuneko teknikariei. Halaber, Emakunderen Zuzendaritzak bere aintzatespena eta esker ona adierazi nahi dizkie Erakundean lan egiten duten pertsona guztiei, egunero gauzak ondo egiteko gaitasuna eta erakundearen xede eta helburuekiko konpromisoa erakusteagatik.

**Eskerrik asko
guztiori**

Aurkibidea

Aurkezpena

1. SARRERA

- 1.1. Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundea. Eginkizuna eta antolaketa
- 1.2. Legegintzaldiko hirugarren urtea. Proiektuak gauzatzeko eta aitortzeko denbora
- 1.3. Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua
- 1.4. Berrikuntza publikoa eta kudeaketa aurreratua
- 1.5. Eusko Legebiltzarrarekiko harremana

2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ESPARRUAN EGINDAKO JARDUERAK

- 2.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundeen koordinazioa
 - 2.1.1. Autonomia-erkidegoko administrazioa
 - 2.1.2. Foru- eta toki-administrazioa
 - 2.1.3. Beste erakunde eta antolakunde batzuekiko koordinazio eta lankidetzak
- 2.2. Politika publikoen ebaluazioa
- 2.3. Zeharkako jardueraren esparru eta zerbitzuak
 - 2.3.1. Aholkularitza juridikoa
 - 2.3.2. Prestakuntza
 - 2.3.3. Azterlanak, ikerketak eta argitalpenak

3. GIZARTE OSOA XEDE DUTEN JARDUERAK

- 3.1. Emakumeen elkartegintza eta berdintasunaren aldeko mugimenduak sendotu eta bultzatzea
 - 3.1.1. Lan-proiektuak emakumeen elkarrekin
 - 3.1.2. Emakumeen elkarte eta federazioentzako diru-laguntzak
 - 3.1.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako diru-laguntzak
- 3.2. Enpresentzako aholkularitza eta laguntza
 - 3.2.1. Berdintasun planak: Aholkularitza
 - 3.2.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak
 - 3.2.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzak Erakundeak
 - 3.2.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena
 - 3.2.5. Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk
- 3.3. Herritarrei arreta zuzena emateko jarduketak, berdintasun-printzipioa eta bereizkeriarik ezarena defendatzeko sektore pribatuan
- 3.4. Gizarte-sentsibilizazioa
 - 3.4.1. Nahiko programa
 - 3.4.2. Beldur Barik programaren esperientzia pilotua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan
 - 3.4.3. Gizonduz ekimena
 - 3.4.4. Kanpainak
 - 3.4.5. Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako gunea
 - 3.4.6. 'Emakunde' aldizkaria argitaratzea
 - 3.4.7. Hedabideetan agertzea
 - 3.4.8. Berdintasunaren Emakunde Saria
 - 3.4.9. Emakunderen webgunea eta sare sozialak
 - 3.4.10. Emakunderen Zuzendaritzaren presentzia sentsibilizazio-jardueretan

4. ERANSKINA

1. **Eranskina:** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako udal plana
2. **Eranskina:** Kontsultak eta eskaerak. Dokumentazio-Zentroa
3. **Eranskina:** Diru-laguntza jaso duten emakumeen Elkarrekin eta Federazioak
4. **Eranskina:** Diru-laguntza jasotzen duten bestelako Elkarrekin eta Antolakundeak
5. **Eranskina:** Kontsultak, salaketan prozedurak eta kexak

5. CLIP ART IRUDIAK

1. SARRERA

1.1. Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundea. Eginkizuna eta antolaketa

Otsailaren 5eko 2/1988 Legeak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortu zuen, erakunde autonomo administratibo gisa, berezko izaera juridikoarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzara atxikita. Emakunderen egitekoa berdintasun-politikak diseinatu, bultzatu, koordinatu eta ebaluatzea da, politika horietarako aholkua ematea, eta gizartea sentsibilizatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko –benetakoa eta eraginkorra–, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren, kulturgintzaren eta gizartearen esparru guztietan.

Erakundearen jardura eremu handi biak hauek dira: batetik, administrazio publikoekin lan egitea, administrazio horietan berdintasunaren aldeko egiturak sendotuz eta politika publikoetan genero-ikuspegia sartzeko neurriak abian jar daitezela sustatuz, eta, bestetik, gizartearen orokorrean lan egitea, berdintasun-politiketan oinarrituta balio-aldaketak, emakumeen ahalduntzea, antolaketa sozial erantzukidea eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea bultzatzeko.

Organo errektoreak

Emakunderen jardura gidatzen duten organoak hauek dira:

- Zuzendaritza Kontseilua (urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak arautua), honako kide hauek dituena: Kontseiluburua, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria; Kontseiluburuordea, Emakundeko Zuzendaria, eta Eusko Jaurlaritzako sail hauetako Kontseilukideak: hezkuntza, lana, osasuna, industria, kultura eta gizarte gaiak; foru eta toki-administrazioetako ordezkariak; Eusko Legebiltzarraren ordezkariak eta Emakunderen Aholku Batzordeko ordezkaria. Zuzendaritza Kontseilua 2013an berritu zen, X. Legegintzaldiaren hasieran, 2013ko maiatzaren 27an egindako bileran.
- Zuzendaria (bere eginkizunak 214/2006 Dekretuan daude araututa). X. Legegintzaldiaren hasieran Izaskun Landaida Larizgoitia Emakundeko zuzendari izendatu zen (137/2013 Dekretua, urtarrilaren 29koa).

Kudeaketa organoak

Emakundek kudeaketa-organo hauek dauzka:

- Idazkaritza nagusi bat. X. Legegintzaldiaren hasieran Ana Alberdi Zubía Emakundeko idazkari nagusi izendatu zen (159/2013 Dekretua, otsailaren 12koa).
- Aholkularitza bat. X. Legegintzaldiaren hasieran, Karmele Jaio Eiguren Prentsa eta komunikazio aholkulari izendatu zen.

- Arlo funtzionalak. Emakunderen barne-antolaketa kudeaketa-arlo funtzional hauetan ezartzen da:
 - Administrazioa.
 - Aholkularitza juridikoa eta informazioa.
 - Lankidetzatza instituzionala.
 - Azterlanak, dokumentazioa eta plangintza.
 - Programak eta prestakuntza.
 - Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.
 - Berdintasunaren eta bazterketa ezaren printzipioa defendatzea.

Koordinazio-organoak

Emakundek koordinazio-organo hauek dauzka bere egitura organikoaren barruan:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea
- Emakunderen Aholku Batzordea- Emakumeen elkarten partaidetzatza-organoa.
- Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea.
- Begira/Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea.

1.2. Legegintzaldiko hirugarren urtea. Proiektuak gauzatzeko eta aitortzeko denbora

2015. urtea Emakunderen kasuan legegintzaldiaren hasieratik prestatzen aritutako proiektu batzuk gauzatzeko urtea izan da; urte honetan, orduan paperera ekarritako ideiak errealitate bilakatu dira, eta, gainera, Emakunderi sortu zenetik esleitutako beste hainbat funtzio indartu dira.

2013an, besteak beste, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VI. Plana egin zen eta, 2014a barne-egitura berriak finkatzeko eta sentsibilizazioa indartzeko urtea izan zen; 2015ean, Erakundeak, eginkizuna eta ikuspegia argi izanik, abiadura hartu du eta, proiektu garrantzitsuak amaitzeaz gainera, hainbat esker on nabarmen jaso ditu bere lanagatik. Besteak beste, Nazio Batuen Saria Zerbitzu Publikoari, genero-ikuspegia sustatzeko kategorian, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Legearen ezarpenean bikaintasuna erakutsi izanagatik. Sari hau, sektore publikoan bikaintasunaren nazioarteko aitorten prestijiodunena, erakundeari emandako laguntza ez ezik, azken hamarkadotan gure herrialdean egiten ari diren berdintasun-politiken aitortpena ere bada.

Nazioartekotzeak eta globalizazioak eragina izan dute bereziki urte honetan, Emakunderen lanean. Erakundeak, berdintasun-politiketako ikuspegi aditua eskatu duten erakundearen eskariari erantzuteko nazioarteko eremuan lanean jarraitzeaz gainera, gure gizartean gorantz ari den globalizazioaren ondorioz sortu diren beste errealitate batzuei ere erantzun die. Adibide argi bat emakumeen genitalen mutilazioaren inguruan eginiko koordinazio- eta prebentzio-lana izan da.

2015ean,
Emakundek legegintzaldiaren
hasieratik prestatzen aritutako
zenbait proiektu gauzatu ditu;
urte honetan, orduan paperera
ekarritako ideiak errealitate
bilakatu dira



Gainera, indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta ematen dietenen prestakuntza (Jabetuz), komunikabideekin eta publizitate-agentziekin sexismoa saihesteko eginiko lana (Begira), gazteen arteko indarkeria prebenitzeko lana (Beldur Barik), neska-mutilak berdintasunezko balioetan heztea (Nahiko), gizonen sentsibilizazioa eta prestakuntza (Gizonduz), erakundeen artean sinergiak sortzearen aldeko apustua (berdintasunaren aldeko foroa), emakumeen mugimenduarekiko etengabeko harremana... Horiek izan dira 2015ean Emakunderen helburuetako batzuk.

Aurten, gainera, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legearen ebaluazio berria egin da; horretan ahalegin handia egin da, izan ere, legean ezarritako neurrien aplikazio zehatzean bilakaera baloratzeko neurketa kuantitatiboek gainera, herritarrek parte hartzeko espazio zabala ireki nahi izan da, azterlan kualitatibo baten bidez eta, horrela, kudeaketaren garrantasun handiagoa egotea.

Eta kanporako lanarekin batera, 2015a barne-lanerako urte garrantzitsua izan da, Emakunderen kudeaketa hobetzeko, eta Aurrerabide kudeaketa aurreratuaren eredu-proiektuan parte hartu da eta aktiboki jardun da lankidetzan Euskara Plana administrazioan ezartzen; hori guztia, betiere lanean kalitatea eta herritarrentzako zerbitzu onena bilatuz.

1.3. Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak bi ohiko bilera egin ditu 2015ean. Lehenengoan, otsailaren 18koan, honako dokumentu hauek onetsi ziren:

- «EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifren Txostena, 2014».
- «EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana ebaluatzea, 2010-2013» txostena.
- Emakunderen jarduketa-memoria, 2014koa.

Bileran, era berean, 2014ko ebaluazioa eta 2015eko Jarduketa Plana aurkeztu ziren, X. Legegintzaldirako Emakunderen Plana garatzeari dagozkionak, eta Emakunderen diru-laguntzen eta laguntzen deialdiei buruzko informazioa eskaini zen.

Zuzendaritza Kontseiluaren 2015eko bigarren bilera abenduaren 18an izan zen eta, bertan, honako dokumentu hauek onetsi ziren:

- «EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifren Txostena, 2015».
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana Botere Publikoen Alorrean Gauzatzeari buruzko Jarduera Txostena – 2014.

Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua



Gero, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen ebaluazio-prozesuari eta 2016rako Emakunderen Jarduketa Planeko oinarrizko lerroei buruzko informazioa eta horien aurrekontuari eta laguntza eta diru-laguntzen deialdiei buruzkoa ere eman zen.

1.4. Berrikuntza publikoa eta kudeaketa aurreratua

Eusko Jaurlaritzaren 2014-2016ko Berrikuntza Publikoko Planaren esparruan, gardentasuna eta irekiera, eraginkortasuna eta efizientzia eta berrikuntza eta herritarren parte-hartze aktiboa hobetzeko zerbitzuak ematean, Emakundek honako jarduketa hauek egin ditu 2015. urtean:

Kudeaketa publiko aurreratuaren eredua.

Aurrerabide proiektuaren esparruan, Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Aurreratuko Eredua ezartzekoan, 2014ko Jarduketa Plana ebaluatu da eta 2015ari dagokion Plana prestatu eta gauzatu da. Garatutako beste jarduketa batzuen artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

- Azterketa kualitatibo bat egitea, Emakundeko langileen eta gainerako euskal erakundeetako berdintasun-teknikarien gogobetetze-maila eta itxaropenak ezagutzeko, Erakundeak hobekuntza-eremuei dagokienez egiten duen lanari dagokionez.
- Emakundeko 6 teknikariren parte-hartzea Egiten Ikasiren prestakuntza osagarrian; horren bidez, Erakundearen lan-prozesu batzuk dokumentatu dira.
- 2014an egindako diagnostikoan antzeman diren beharrei erantzuteko prestakuntza-ekintzak egitea.
- 2015erako Emakunderen jarduketa Plana egitean eta ebaluatzean kudeaketa aurreratuko eredua eskakizunetara egokitzea; horrek ahalbidetu egiten du Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren garapena eta web-orrialdearen bidez zabaltzen da, jendaurreko informazioaren eta gardentasunaren printzipioekin bat etorriz.
- Zuzendaritza-taldearen funtzionamendua finkatzea, Emakunderen arlo guztien lanaren lerrokatzea sendotzen duena legegintzaldirako ezarritako lehentasun estrategikoak betetzeko.
- Euskararen erabilera normalizatzeko plan orokorra gauzatzeko, plan horren bitarteko ebaluazioa egin da, 2014ko Kudeaketa Plana ebaluatu da eta 2015ari dagokion Kudeaketa Plana gauzatu da.

Demokraziari eta Herritarren Partaidetzari buruzko Liburu Zuria.

Emakundek Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarekin lankidetzan jardun du, Euskadira Demokraziari eta Herritarren Partaidetzari buruzko Liburu Zurian hartutako konpromisoak Prozesu Parte-hartzaileen Ebaluaziorako Gida batean zabaltzeko; gida horri bere esperientzia ekarri dio, EAEko Emakume eta Gizonen Bertintasunerako VI. Plana egiteko berdintasunaren eremuan lanean ari diren erakunde publikoekin, gizarte-eragileekin, erakundeekin eta elkarteekin eginiko hausnarketa-, eztabaida- eta kontsulta-prozesuetan.

Aldi berean, Emakundek Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziaren laguntza izan du, Emakumeen eta Gizonen Bertintasunerako Legearen ebaluazio-prozesuan eta, hura betetzeko eta garatzeko ardura duten erakundeekin egiaztatzeaz gainera, beharrezkotzat jotzen du hura ezartzearen eragina jasango duten pertsona, kolektibo eta erakundeen iritzia eta ekarpenak ezagutu ahal izateko dimentsio parte-hartzailea sartzea. Ikuspegi estrategikoa dela eta, era berean, EAEko emakume eta feministen elkarteekiko parte-hartze bereziko prozesua ikusten da.

Emakundek emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiten duen lanak aitortzen ugari izan ditu 2015. urtean:

***Nazio Batuen saria zerbitzu publikoari:** NBEk Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esker ona adierazi nahi izan dio eta, horretarako, zerbitzu publikoaren lehenengo saria eman dio, genero-ikuspegia sustatzeko kategorian, Emakumeen eta Gizonen Bertintasunerako Euskal Legearen ezarpenaren bikaintasuna erakutsi izanagatik.

Sari hori sektore publikoan bikaintasunari eskainitako nazioarteko aitortzen prestijiodunena dela ulertzen da, eta Emakunderi eman zaio eta, beraz, Euskadiko berdintasun-politikei eta Bertintasunerako Legearen ezarpenaren tartean diren pertsona eta eragile guztiei, besteak beste, erakunde, elkarte-mugimendu eta bestelako erakunde eta kolektiboak. NBEk legea alderdi askotan inflexio-puntua izan dela onartu du, besteak beste, erabaki politikoaren esparruetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzeko, berdintasuna sustatzeko egitura espezializatuak gehitzeko, berdintasun planak areagotzeko, gure herrialdean berdintasunaren alde lan egiten duten egiturak indartzeko, erakundearen artean lan-sareak sortzeko, arlo publikoan eta pribatuan berdintasuna bultzatzeko eta indarkeriaren biktimak diren emakumeen babesa eta ongizatea hobetzeko tresnak sortzeko.

Nazio Batuen Erakundearen saria



✳️ **ONCE Euskadi sari solidarioak:** Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak ONCE Euskadi sari solidarioetako bat jaso du, eta horren helburua da bere eragin-eremuan lan solidarioa egiten dutenei esker ona adieraztea eta saiatzea herritar guztiak gizarteratzea, guztien normalizazioa eta autonomia pertsonala, irisgarritasun unibertsala eta bizitza independentea lortzea. Zehazki, Emakundek administrazio publikoren atalean jaso du saria; izan ere, «25 urte baino gehiago eramateaz gainera berdintasun-politikak sustatzen, politika-, kultura- eta gizarte-bizitzako eremu guztietan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzeko, balio erantsia gehitzen du eta, aldi berean, desgaitasunen bat duten pertsonen berdintasunezko paperean eragiten eta hura sustatzen du.» .

1.5. Eusko Legebiltzarrarekiko harremana

Emakunderen eta Eusko Legebiltzarraren arteko harremana etengabea eta joria da. 2015. urtean, Eusko Legebiltzarreko taldeek eginiko galderari idatziz erantzuteaz gainera, zuzendariak honako agerraldi hauek egin ditu Legebiltzarrean:

Giza Eskubide, Berdintasun eta Herritarren parte-hartze Batzordearen aurrean

Martxoaren 23an, 2014ko aurrekontu-egoeraren betetzeari buruzko informazioa emateko, bai eta Irungo Udalak III. Berdintasun Plana egitean hartutako jarrerari buruzkoa eta Emakundek Plan horren inguruan emandako txostenari buruzkoa ere.

Azaroaren 2an, sexu-diskriminazioaren kasuetan defentsa-zerbitzuan eginiko jarduketan berri emateko, eta 2015erako aurrekontuen betetze-mailari buruzko informazioa emateko ere.

Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen aurrean

Azaroaren 4an, 2016 ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak aurkezteko.

Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalaren sariak



Eusko Legebiltzarra



Era berean, honako txosten hauek bidali dira, Eusko Legebiltzarrak horien berri izan dezan:

- «EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifren Txostena, 2014».
- «EAEko Emakumeen eta Gizonen Bertintasunerako V. Plana ebaluatzea, 2010-2013» txostena.
- Herritarren Arreta Zerbitzuaren memoria, 2013. eta 2014. urteei dagokiena, sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria-egoeren aurrean.
- Begira/Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordearen 2014ko Urteko Jarduera Plana.

Eusko Legebiltzarraren taldeartekoa, Populazioari, Garapenari eta Ugalketa Osasunari buruzkoa

Ugalketa-osasunaren sustapen-ekintzak bultzatzeko, 1994an El Cairon egindako Herritarrei eta Garapenari buruzko Nazioarteko Biltzarrean adostutako Ekintza Programak eta 1995ean Beijingen eginiko Emakumeei buruzko IV. Mundu Biltzarrean adostutako Ekintzarako Plataformak ezartzen duten bezala, 2012an Eusko Legebiltzar Taldeartekoa sortu zen; hainbat legebiltzarkidek osatzen dute.

Emakundek taldeartekoaren 2015eko abenduko bileran parte hartu zuen; bertan, Populazio Gaietako Nazio Batuen Funtsak «Munduko Populazioaren egoerari buruzko 2015eko Memoria: Ekaitzaren babesean» txostena aurkeztu zuen; bertan nabarmentzen da 100 milioi pertsonak baino gehiagok laguntza humanitaria behar dutela, inoiz baino gehiago, bigarren mundu gerraren amaieratik, eta gatazka baten ondorioz lekuz aldatutako edo hondamen baten ondorioz erbesteratutako pertsonen artean, milioika emakume eta neskato daudela. Txostenak ekintzarako deia egiten du, horien beharrak asetzeko eta eskubideak baliarazteko.

2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ESPARRUAN EGINDAKO JARDUERAK

Administrazio publikoekin egindako lana Emakunderen jarduera-esparru handietako bat da. Esparru horretan politika publikoen sustapen, koordinazio, aholkularitza eta jarraipeneko ekintzak egiten ditu, eta gizarteak politika horietan parte har dezala sustatzen du. Atal hau botere publikoen bidez eginiko ekintzei buruzkoa da, batez ere administrazioko hiru mailetan, eta estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekiko harremanen esparruan. Sustapeneko eta koordinazioko egitura organikoen esparruan egiten diren ekintzak bereizten ditu, alde biko beste harreman-testuinguru batzuetan egiten direnak, eta prestakuntza eta aholkularitza, laguntza-dokumentuak egitea, txostenak egitea eta abar helburu dituzten beste batzuk.

2.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundeen koordinazioa

2.1.1. Autonomia-erkidegoko administrazioa

Emakundek Sailarteko Batzordearen bidez betetzen du, nagusiki, Eusko Jaurlaritzaren barnean berdintasun-politikak sustatzeko eta aholkatzeko eginkizuna.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea

Batzorde hori, 4/2005 Legean jasoa eta gaur egun abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuaren bidez arautua, Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean gauzatzen dituen jarduerak koordinatzeko organoa da. Emakunderi atxikita dago; batzordeko presidentea Eusko Jaurlaritzako lehendakaria da, eta batzordeko presidenteordea, Emakundeko zuzendaria. Erakundeko Idazkaritza Nagusiak idazkaritza-funtzioak betetzen ditu eta kide gisa parte hartzen dute Lehendakaritzako idazkari nagusiak eta Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko sailburu batek. Sailarteko Batzordeak lehen ohiko bilkura 2015eko otsailaren 25ean egin zuen. Bertan, honako dokumentu hauek aurkeztu ziren:

- Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan 2013an egindakoaren jarraipenari buruzko txostena.
- Legegintzaldirako Emakundek proposatutako lehentasunen eta Sailek beren dokumentuetan/programan jasotako lehentasunen jarraipena.
- Emakunderen jardute-plana – 2015.

Emakundek
Sailarteko Batzordearen
bidez betetzen du, nagusiki,
Eusko Jaurlaritzaren barnean
berdintasun-politikak
sustatzeko eta aholkatzeko
eginkizuna.

Gainera, sailen 2015eko dokumentuak-programa aurkezteko epea zehaztu zen eta Sailarteko Talde Teknikoak eginiko lana azaldu zen.

Sailarteko Batzordearen bigarren bilera 2015ean uztailaren 10ean izan zen. Sail bakoitzak 2015ari dagokion dokumentu-programa aurkeztu zuen, eta berdintasun-unitateak sortzeko beharrari buruzko betetze-mailari dagokion egoera azaldu zuen. Emakundek Nazio Batuen eskutik 2015eko zerbitzu publikoagatik jasotako sariaren berri eman zuen.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea arautzen duen dekretuan xedatzen denarekin bat, Batzorde honek Sailarteko Talde Tekniko bat du, eta horren helburua da Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza teknikoak eskaintzea, bere esku uzten diren gaiak aztertuz, txostenak osatuz eta proposamenak eginez.

Emakundek sustatzen eta koordinatzen du Sailarteko Talde Teknikoa eta, sail arteko bileren bidez nahiz alde biko bileren bidez, sail bakoitzari dagozkion sektoreko politikak aztertzen laguntzen du; horretarako, berdintasuna bultzatzen duten helburuak identifikatzen ditu, jarduera-estrategiak zehazten ditu, eta sail bakoitzaren eta Jaurlaritza osoaren berdintasun-politiken plangintzarako, garapenerako eta jarraipenerako tresnak proposatzen ditu.

Aholkularitza eta informazioko lanean, 147 kontsultari erantzun zaie, Jaurlaritzako sailek, erakunde autonomiadunek eta ente publikoek egindakoak. Halaber, proiektu zehatzak gauzatzeko lankidetzak eman da; batez ere, materialak berrikusteko eta prestatzeko edota genero-ikuspegia barne hartzen duten sektore-ekintzak abian jartzeko. Gainera, berdintasunerako politiken plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa hobetzeko proposamenak egin dira. Hauek dira Emakundek, 2015ean, Sailarteko Talde Teknikoaren esparruan, garatu dituen ekintza zehatzak:

- Bilerak antolatu, prestatu eta koordinatu ditu, baita horien jarraipena egin ere.
- Emakundek X. legegintzaldirako sailetan lehentasunezkatzat jotzen dituen gaiei buruzko informazioa eman du.
- Eusko Jaurlaritzako sailietako berdintasun-politikan organismo autonomoek, erakunde publikoek eta sozietate publikoek eman behar zaien tratamenduari buruzko proposamenak aztertu eta egin ditu.
- Sailarteko Batzordearen bileren berri eman du.
- Sailetan dokumentu programak argitaratzeko irizpideak eman ditu.
- Administrazio publikoko eta bere erakunde autonomoetako eta beste batzuetako langileentzako berdintasun-prestakuntza hobetzeko prozesua proposatu du.
- Botere publikoen eta Eusko Jaurlaritzako sailen jarduketaren jarraipen-txostenei eta ebaluazioari buruzko hobekuntza sustatu du.
- Emakundek Eusko Jaurlaritzako sailei eskainitako zerbitzuei eta STTri buruzko ebaluazioa proposatu eta egin du.

Aholkularitza eta informazioko lanean, 147 kontsultari erantzun zaie, Jaurlaritzako sailek, erakunde autonomiadunek eta ente publikoek egindakoak.

1. Ikusi Emakunderi atxikitako batzordeak, 2. ERANSKINA.

Alde biko lana sailekin

Sailarteko Talde Teknikoarekin egiten den lanaz gainera, Emakundek alde biko lana egiten du zenbait sailetan eta horiekin lotuta dauden edo lotura duten erakunde eta entitateekin, funtsean proiektu eta zeregin zehatzetan duten eskariak kontuan hartuta. 2015. urtean, jarduera hauek nabarmendu behar dira:

- Hainbat saili atxikitako kontseilu eta batzordeetan parte hartu du: Publizitateko Sailarteko Batzordea, Bake eta Bizikidetzaren Planaren Sailarteko Batzordea eta eremu horretan emandako laguntzen balorazio Batzordea, Euskadiko DEAREN Sailarteko Informazio Batzordea, Euskal Estatistika Kontseilua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua, Etorrinak gizarteratzeko eta horien partaidetza sozialerako Kontseilua, Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua, Droga-menpekotasunen Aholku Batzordea, Landa Emakumeen Batzordea, Adineko pertsonen Kontseilua, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua eta Familiaren Euskal Kontseilua.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin, euskal hezkuntza-sisGaian genero-indarkeriaren baterako hezkuntzaren eta prebentzioaren Gidari Planaren jarraipenean, Jarraipen Batzordean eta Batzorde Teknikoan parte hartuz eta interesa duten zentzori Nahiko eta Beldur Barik programak ezartzeko materialak, prestakuntza, aholkularitza eta laguntza doan emanez ([ikusi programa horien xehetasuna 3.4.1. eta 3.4.2. ataletan](#)).
- Era berean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin elkarlanean aritu gara Araubide Bereziko eta Lanbide Heziketako ikasketetako irakasleei Prestakuntza eta Laneko Orientabidea zeharkako modulua genero-ikuspegitik irakasten laguntzeko gida egiten eta argitaratzen, bai eta curriculumari genero-ikuspegitik heldu ahal izateko jarraibideak txertatu ahal izan ditzaten ere.
- Herri Administrazio eta Justizia Sailarekin, Administrazio Orokorreko eta horien erakunde autonomoetako emakume eta gizonen berdintasunerako I. Barne Planaren diagnostikoa egiten, aholkularitza teknikoak emanez. Era berean, prozesu horretan esku hartzen duten langileentzat, diagnostikoei eta antolakuntza-planei aplikatutako berdintasunari buruzko prestakuntza-ikastaroa diseinatu eta finantzatu dugu, bai eta horretan parte hartu ere, HAEArekin lankidetzan. Bestalde, saileko berdintasun-unitatearekin lankidetzan jardun dugu, Jakinako emakume eta gizonen berdintasunaren atala eratzen.
- Berdintasunerako Erakunde Publikoen Sarearen online lankidetzaren plataforma mantentzen parte hartu dugu.
- Ogasun eta Finantza Sailarekin, genero-ikuspegia, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.4 eta 14. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, aurrekontu-prozesuaren maila guztietan sartzeko lan-metodologia diseinatu eta garatu. 2015ean, jarraibide ekonomikoak eta teknikoak sartu dira, aurrekontuak egiteko, emakume eta gizonen berdintasunarekin lotutako alderdiak eta, zehazki, aurrekontu-programen genero-eragina ebaluatzeko inprimakia.
- Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzarekin, enpleguan sexuagatiko bereizkeriarekin amaitzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko lankidetzaren hitzarmena prestatzen jardun da lankidetzan.
- Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritzarekin eta Ekonomia Zuzendaritzarekin, egitura-funtsen esparruan ([ikusi 2.1.3. Erakundeak eta Europako programak eranskina](#)).
- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin, jarraipena eman zaio Familia Nekazaritzaren Nazioarteko Urtearen esparruan lankidetzan jarduteko Munduko Landa Foroarekin sinatutako lankidetzaren esparruko Hitzarmenari, eta bertan aurreikusitako

jarduketak garatu dira. Era berean, Munduko Landa Foroaren V. Mundu Biltzarrean parte hartu da eta Biltzarraren esparruan eginiko «Emakumeak familia-nekazaritzan, aurrerapenak eta berdintasunerako erronkak» mahaiaren antolakuntzan.

- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin eta Osasun Sailarekin, elkarlanean aritu gara Novia Salcedo Fundazioarekin, Nazio Batuek gazteentzako enpleguaren Hamarkada aitortzeko kanpainan.
- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin, Basque Country Estrategiaren garapenean jardun dugu lankidetzan.
- Eustat-Euskal Estatistika Erakundearekin elkarlanean aritu gara berdintasun-unitatea sortzeko eta Europar Batasuneko berdintasun-indize europarra kalkulatzeko.
- Gazteen Euskal Kontseiluarekin elkarlanean aritu gara, genero-ikuspegia txertatzeko funtzionamenduan eta bi erakundeen artean lankidetzara egonkorreko esparrua ezartzeko. Hori guztia, 2014an Eusko Legebiltzarreko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Kontseiluak onetsitako ez-legeko proposamenari erantzuteko; bertan, Emakunderi eskatzen zaio Euskadiko Gazte Kontseiluari aholkularitza eta laguntza eskaintzeko modu egonkorrean eta etengabe berdintasunaren arloan, erakunde horrek osorik ekiteko genero-ikuspegiari jarduketa guztietan.
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin, aholkularitza eman da GKEed-ei laguntza-prozesuei genero-zuzentasunaren aldeko prozesuak ezartzen laguntzeko dekretua eguneratzeko.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Kirol Zuzendaritzarekin elkarlanean kirolaren arloko profesionalentzako jardunaldi bat antolatu dugu kiroleko sexu-jazarpenari eta -abusuari buruzko gidaliburua aurkezteko.
- Osalanean prestakuntza-prozesu batean elkarlanean aritu gara; hala Emakundeko langileek emakume eta gizonen berdintasunari buruzko oinarritzko hiru saio eman dituzte.
- KZguneak-ekin elkarlanean, genero-ikuspegia sustatzeko eta txertatzeko IKTen prestakuntza-programan, «Emakundeak Sarean» emakumeen elkartetarako.

Plan eta programa sektorialeko buruzko txostenak

Politika orokorretan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko beste mekanismo bat Eusko Jaurlaritzako Sailek bultzatutako eta garatutako plan sektorial batzuei eta besteei dagokienez aholkua ematea eta ekarpenak, txostenak edo lan-bilerak egitea da.

2015ean plan hauetan lagundu da, haiei buruzko txostenak egiteaz gain:

- III. Gazte Plana 2020: 2015eko Jarraipen Txostena eta 2016ko Urteko Plana.
- Familiatan eta haurtzaroen inbertitzeko euskal estrategia
- EAEko Lurralde-Antolamenduaren Gidaleroen Berrikuspenaren prozedura.

Generoaren eraginaren alde aurretiko ebaluazioa

Generoaren eraginaren alde aurretiko ebaluazioa genero-ikuspegia politika publikoetan sartzeko oinarritzko neurrietako bat da, eta hala geratzen da ezarrita Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean. Zortzigarren xedapen gehigarria betetzeko, Gobernu Kontseilua da aipatutako ebaluazioa egiteko gidalerroak onesten dituena. Gaur egun, 2012ko abuztuan onetsitako gidalerroak daude indarrean.

Emakundek 2007an sailek generoaren araberako eraginaren txostenak ongi egin zituztela egiaztatzeko eta hobekuntzak proposatzeko hasi zuen lanari dagokionez, 112 espediente jaso eta aztertu ditu eta administrazio-arauen eta -egintzen 63 proiekturi buruzko txostenak egin ditu Emakundek 2015ean: 48 ofizio salbuetsi eman dira, txosten bat eskatu da eta ez da erantzunik jaso eta administrazio-arau eta -egintzen proiektuak egiaztatzeko 63 txosten egin dira. Hurrengo taulan daude proiektu horien xehetasunak:

2015ean,
112 espediente jaso eta aztertu
dira: 48 ofizio salbuetsi eman dira
eta administrazio-arau eta -egintzen
proiektuak egiaztatzeko 63 txosten
egin dira.

2006-2015 DATUAK

	LEGEAK	DEKRETUAK	AGINDUAK	EBAZPENAK	GUZTIRA
2006	0	1	0	0	1
2007	17	57	25	1	100
2008	19	75	81	4	179
2009	4	66	45	5	120
2010	14	55	51	8	128
2011	27	71	47	4	149
2012	6	106	39	3	154
2013	6	43	18	1	68
2014	12	43	29	1	85
2015	12	62	36	2	112
GUZTIRA	117	579	371	29	1.096

Gizonen eta Emakumeen berdintasunerako Erakunde Publikoen Sarea

Berdintasunaren aldeko Erakunde Publikoen Sarea dinamizatu dugu, Eusko Jaurlaritzaren SharePoint plataformaren barruan online, Ejie SAREkin eta Herri Administrazio eta Justizia Saileko berdintasun-entitatearekin lankidetzan. Erakunde publikoetan berdintasun-politikak bultzatu, indartu eta koordinatzea ditu helburutzat sareak, ikaskuntza partekatua eta elkarlaneko lanaren bitartez. Gaur egun, Sarea honako 25 erakundeek eratzen dute:

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
- Alokabide
- Basquetour
- Cedemi
- Ceia
- Ejie
- Elika
- Erakunde Zentrala-Osakidetza
- Etxepare Euskal Institutua
- Euskadiko Kirol Portua
- Euskal Irrati Telebista EITB
- Eusko Trenbide Sarea
- Euskotren, S.A.
- Haurreskolak Patzuergoa
- Hazi
- Ihobe, S.A.
- Itelazpi
- Izenpe
- Metro Bilbao
- Neiker
- Orquesta de Euskadi, S.A
- SPRI
- Unibasq
- Uraren Euskal Agentzia
- Visesa

Azaroaren 23an, prestakuntza-jardunaldia egin zen eta truke-jardunaldia Euskotren SAREkin lankidetzan, enpresa publikoetako lan-eremuan sexu-jazarpeneko protokoloak eta protokolo sexistei buruzkoa. Zehazki, Olga Fotinopoulou Basurkoren hitzaldia, «Aproximación conceptual al fenómeno del acoso sexual y sexista en el trabajo» eta Edurne López Rubiarena, «Protocolos de actuación: ¿Instrumentos preventivos contra el acoso sexual y sexista en el trabajo?» entzun genituen.

Sexu-jazarpena eta jazarpen sexista



2.1.2. Foru- eta toki-administrazioa

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzardea

Batzardea, 4/2005 Legean jasoa eta gaur egun urtarrilaren 16ko 5/2007 Dekretuaren¹ bidez arautua, administrazio autonomikoak, foralak eta tokikoak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean gauzatzen dituzten jarduerak koordinatzeko organoa da. Emakunderi atxikita, zuzendaria da buru eta euskal administrazio publikoko hiru mailetako ordezkariak zati beretan eratzen dute.

Sailarteko Batzardeak 2015eko abenduan ohiko bilera egin zuen, eta gai hauek aztertu zituen:

- 1. Aurreko saioaren akta onartzea.
- 2. Sailarteko Talde Teknikoak eta Lantalde Teknikoek garatutako lanaren azalpena.
- 3. Kideak izendatzea, foru- eta toki-administrazioen ordezkaritzan, Sailarteko Talde Teknikoetan eta Lantalde Teknikoetan parte hartzeko, kontratu, hitzarmen eta diru-laguntzetan berdintasun-klausulen inguruan eta genero-eraginaren aurretiko ebaluazioen inguruan.
- 4. Europar Batasuneko Egitura Funtsetan berdintasunari buruzko Lantalde Tekniko bat eratzeko proposamena aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea (erantsi da).
- 5. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea ebaluatzeko oinarrizko ildoak aurkeztea.
- 6. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako araudi-esparruak sendotzeko erakundearen arteko adierazpen-proposamena aurkeztea, eta, egoki bada, onartzea.
- 7. Galde-eskeak.

Erakunde arteko Batzardea arautzen duen Dekretuan xedatuta dagoenaren arabera, Batzarde honek Erakundearteko Talde Tekniko bat du eta hark aztertu, txostenak osatu eta proposamenak egiten ditu, eta Batzardeko kideei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematen dizkie, autonomia-erkidegoko, foru-aldundietako eta udalerrietako administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garatzen dituzten politika eta programak koordinatzeko zereginen.



¹. Ikus Emakunderi atxikitako batzardeak, 2. ERANSKINA.

Halaber, Erakunde arteko Batzorde horren esparruan, Emakundek Lantalde Tekniko (LT) hauek bultzatu eta koordinatu ditu, 2011n sortu zirenetik:

- **Sektore publikoaren hitzarmen, diru-laguntza eta kontratueta berdintasun-neurriak aplikatzeko irizpideak eta bitartekoak.** Lantalde Tekniko horren esparruan, 2015ean nabarmendu behar da honako azterlan honetan parte hartu dela eta bertan lankidetzan jardun dela: «Kontratueta, diru-laguntzetan eta euskal administrazio publikoen hitzarmeneta berdintasun-klausulak aplikatzeari buruzko jarraipen- eta ebaluazio-azterlana». Azterlana Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen betearazpenaren, garapenaren eta aplikazioaren jarraipen-esparruan egin da, hura Sailarteko Batzordeari dagokiola egitea, bost urtean behin.
- **Generoaren araberako eraginaren ebaluazioak egin eta aplikatzeko irizpideak.** EAEko hainbat udalen, foru-aldundien, EUDELen eta Emakunderen artean, lan-prozesua garatu da, EAEko udaletan generoaren araberako eraginaren txostenak egiteko gidalerroak eta/edo gomendioak prestatu eta garatzeko helburuarekin.

Bestalde, informazioa eta aholkularitza eman zaie EAEko udalei eta foru-aldundiei, eta, guztira, 401 kontsultari erantzun zaie.

Sailarteko Batzordearen esparruan egindako lanaz gainera, Emakundek udalenzako beste lankidetzatza- eta laguntza-ildo batzuk ditu.

Berdinsarea - Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea

Sare hori Emakunderen bultzadarekin sortu zen eta 2005ean EUDELekin (Euskadiko Udalen Elkarte) sinatutako lankidetzatza-hitzarmen baten bidez jarri zen martxan. Horren bidez, Emakundek hitza ematen du sarea dinamizatuko duen berdintasunerako eragile bat kontratatzeke finantzaketan parte hartuko duela eta EUDELeke hitza ematen du hori sortu eta kudeatuko duela, orobat hori garatzeko beharrezko jarduerak gauzatuko dituela.

Sare horrek honako organo hauen bidez funtzionatzen du:

- Jarraipen Batzordea, EUDELeke eta Emakundeko ordezkariak osatzen dutena. Honako ardura hauek ditu: hitzarmenaren jarraipena egitea, Sarearen jardura gidatzen duten gidalerroak finkatzea eta haren lehentasunak azaltzea lan-plana egitean, Jaurlaritzaren eta gainerako erakundeen politikekiko koherentea izan dadin eta koordinatuta egon dadin.
- Osoko Bilkura, Sarearen gobernu-organoa da, eta sarea osatzen duten udal guztietako tokiko hautetsiek osatzen dute.
- Batzorde Teknikoa, udalerrri bakoitzak izendatutako berdintasuneko teknikariaz osatuta dago, orobat Sarearen idazkaritza teknikoaz arduratzen den teknikariaz, baita Emakundeko teknikari batez ere.

Hauak izan dira, zehazki, 2015ean egindako ekintzak:

- Berdinsarea garatu eta finantzatzeko EUDELekin sinatutako hitzarmena berritu du.
- Udaletan berdintasun-politikak sustatzeko ardura duten politikariek eta teknikariek lan egin du.
- Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartu da eta hartutako akordioen jarraipena egin da.
- Berdinsarearen batzorde teknikoetan parte hartu da eta onartutako akordioen jarraipena egin da.
- Hainbat udalerritan emakumeen eta gizonen berdintasun-eremuan udal-ordenantzak egiteko garatutako prozesuari buruzko aurkezpen-jardunaldian parte hartu da, Erakundearen Berdintasunerako Foroaren esparruan.
- Virginia Woolf Basqueskola emakume politikarientzako Eskolaren 2015eko programazioan dauden jarduketaren garapenaren jarraipena egin da eta hautagai berriak hartzeko jardunaldian parte hartu da, non era berean Tokiko Emakume Hautagaietarako Harrera Eskuliburua aurkeztu zen.
- Emakumeen aurkako Indarkeriaren Batzordearen lan-saioretan parte hartu da.
- Berdinsarearen 10 urteetako sisGaiatizazio-prozesuan eta ibilbide hori jasotzen duen spot bideoan parte hartu da.

Berdinbidean - herritar-kopuru txikieneko udalerriei berdintasun-politikan aholkatzeko eta dinamizatzeo zerbitzua

Berdinsareak lan handia egin du berdintasun-politikak sustatzeko, batez ere jende ugari bizi den udalerrietan. Hala ere, udalerrri txiki gehienentzat zaila da sare horretan sartzea, sartzeko betekizunak –besteak beste, langileak kontratatu, berdintasun-planak egin eta berdintasun-politiketarako aurrekontuei buruzkoak- direla eta.

Ikusita udalerrri txikiak arazoak dituztela emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean aurrera egiteko planak, programak eta ekintzak lantzeko, Berdinbidean sortu zen 2009an, hiru lurralde historikoetako udalerrri txikietan berdintasun-politikak dinamizatu eta aholkatzeko zerbitzuak martxan jarri ahal izateko. Honako hauak dira zerbitzu horien helburuetako batzuk:

- Udal txikien emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko politikak martxan jartzeko aukera izatea, Berdinsarearekin koherentea den estrategia bati jarraikiz, eta sare horretara epe ertainera sartzeko aukera ematea.
- Udalerrietan, mankomunitateetan, eskualdeetan edo kuadrilietan elkarrengana hurbil daitezten, esperientziak truka ditzaten, koordinatu daitezten eta elkarrekin jarduerak egin ditzaten erraztea.

Ordenantzak



Basqueskola



Jarduera hauek egiten dira, adierazitako helburuak betetzeko:

- Laguntza teknikoa ematen zaie udalerrri txikiei, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko programak eta ekintzak egin ditzaten.
- Topaketak eta bilerak antolatu eta koordinatzen dira mankomunitate, eskualde eta kuadrilletan, udalerrri txikietan esku hartzeko estrategiak ezartzeko, esperientziak trukatzeko eta egindako lanaren jarraipena egiteko. Horren guztiaren xedea da parte hartzen duten udalerrien arteko sinergiak sortu edo indartzea.

2011. urtean, eta dagokion hitzarmena sinatuz, Emakundek hitzeman zuen udalerrri horietan dinamizazio eta aholkularitza prozesuan egiten diren jarduerak egiteko finantzaketan parte hartuko zuela. Konpromiso hori indarrean dago gaur egun, 2014an sinatu zen hitzarmen eguneratuaren luzapenaren bidez. Ondorioz, Emakundek hartutako erabakien jarraipena egiteko bileretan parte hartu du.

Udalerriei, kuadrillei eta mankomunitateei diru-laguntzak emateko deialdia, emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta/edo planak egin eta ebalua ditzaten (1. eranskina ikusi.)

Diru-laguntzen deialdiak dira Emakundek udalerriei laguntza teknikoa emateko erabiltzen duen beste tresna bat. Tokiko erakundeei ematen zaizkie diru-laguntza horiek, emakumeek eta gizonek udalerrietan bizi duten egoeraren diagnostikoak egiteko, eta tokiko planak egiteko eta ebaluatzeko, EAErako Esparru Planaren¹ ildo nagusiei jarraituz. 2015ean egin den deialdian kopuru ekonomikoa 360.000 eurokoa izan da, abenduaren 15era arte egin diren proiektuak finantzatzeko.

31 udalerriri eta 3 mankomunitate, kuadrilla eta/edo talderi dagozkien 34 proiektu diruz lagundu dira. 9 udalek egin dute, lehenengo aldiz, berdintasunerako diagnostiko eta/edo plan bat. Gainerako proiektuak diagnostiko berriak, berdintasun-plan berriak eta haien ebaluazioak egiteko edo diagnostiko eta plan sektorialak garatzeko dira. Horietatik, 2 izan dira emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan protokoloak egin dituzten udalak.

Era berean, udal, kuadrilla eta/edo taldeei zuzendutako beste deialdi bat prestatu eta argitaratu da, 2016 ekitaldian diagnostikoak, planak eta/edo ebaluazioak egiteko, eta 360.000 euroko aurrekontu-partida bera du.

**2015ean,
31 udalerriri eta 3
mankomunitate, kuadrilla
eta/edo talderi dagozkien 34
proiektu diruz lagundu dira. 9
udalerritan lehen aldiz jarri dira
abian diagnostiko bat eta/edo
berdintasunerako plan bat egiteko
proiektuak.**

1. Gaur egun, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana.

Berdintasun-planak, txostenak eta aholkularitza

Emakunde sortzeko legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ezarritakoaren arabera, Emakundek EAEko berdintasun-politketarako jarraibide orokorrak jasotzen dituen plan orokor bat egin behar du, legegintzaldi bakoitzaren hasieran. Lege horrek berak agintzen duenari jarraituz, sail, erakunde autonomiadun, foru aldundi eta udal guztiek beren planak egin behar dituzte, adierazitako plan orokor horretan xedatutako jarraibideen arabera.

Gainera, 4/2005 Legearen 15.4 artikulua ezartzen duenez, Emakundek Eusko Jaurlaritzako sailen eta foru zein toki administrazioen berdintasun planei buruzko txostenak egin behar ditu, eta txosten horietan, planen edukiak Gobernuaren plan orokorreko esku-hartze eta jarraibideetara egokitzen diren adierazi.

Txosten horiek egiteko, Emakundek hainbat irizpide hartzen ditu kontuan, planak Legearen edukien eta Jaurlaritzak onetsitako plan orokorreko helburu eta estrategien arabera diseina daitezten: erakunde bakoitzaren berezko beharrezko diagnostikoan oinarrituta egotea, alderdi teknikoan, alderdi ekonomikoan eta denbora aldetik plan bideragarriak izatea, eta diagnostikoan definitutako errealitate sozialaren aldaketari egokitutako estrategia, helburu eta ekintzak definitzea.

Aurten emakumeen eta gizonen berdintasunerako 12 udal-plani buruzko txostenak egin dira. Honakoak dira:

LEHENENGO PLANAK	BIGARREN PLANAK	HIRUGARREN PLANAK	LAUGARREN PLANAK
Berriatuko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2014-2017)	Alegria-Dulantziko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2015-2018)	Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2015-2020)	Amurrioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2014-2018)
Zigoitiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2014-2018)	Amorebieta-Etxanoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2016-2019)	Zarauzko Emakumeen eta Gizonen Parekidetasunerako III. Plana (2016-2021)	Portugaleteko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2015-2019)
Zuiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2015-2018)	Astigarragako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II Plana (2015-2018)		
	Laguardia-Arabako Errioxako kuadrillan Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2014-2017)		
	Zierbenako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2015-2019)		

Foru- eta toki-administrazioen eremu honetako **beste lankidetzak batzuk**, nabarmendu beharrekoak, honako hauek dira: Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia parte hartzea; Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintasun Zuzendaritzaren Irungo eta Hondarribiko Alardeei buruzko erakundeen arteko espazioan parte hartzea; eta Basauriko indarkeria matxistaren aurkako Plana egiteko Batzorde Zientifikoan parte hartzea.

2.1.2. Beste erakunde eta antolakunde batzuekiko koordinazio eta lankidetzaz

Alde batetik, administrazio autonomikoarekin duen harremanaz gainera, eta, bestetik, toki- eta foru-administrazioekin duenaz aparte, Emakundek gure gizartea osatzen duten beste erakunde eta instituzio batzuekin koordinazioan jarduteko eta parte hartzeko egitura egonkorra ditu.

Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea

2009ko otsailaren 3an, etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktimak diren emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko Erakundearen arteko II. Akordioa sinatu zen eta, akordio horretan, Jarraipen Batzorde bat sortzea adostu zen. Akordioaren arabera, honako hauek dira, besteak beste, Batzordearen eginkizunak: Akordioan adierazitako neurriak eta jarraibideak behar bezala aplikatzen direla bermatzea, jarduera bateratuak proposatzea, erakundearen arteko koordinazioa hobetzeko proposamenak egitea, eta jardura-protokoloaren edukiak sor daitezkeen egoera berrietara egokitzeko proposamenak egitea. Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten biktimei laguntza ematen dieten erakundeak hobeto koordinatzea du xede, biktimei babes osoa eman ahal izateko arlo sanitario, polizial, judizial eta sozialean. Horretarako, jarduteko jarraibide eta irizpide batzuk ezarri behar dira, profesionalak jarraitu beharrekoak, bakoitzari dagokion eremuan bai eta erakundearen arteko harremanetan ere. Batzordean, Emakunderen zuzendaritza ez ezik, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, EAEko Fiskaltza Nagusia, Eusko Jaurlaritzako Osasun, Segurtasun, Herri Administrazio eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Politiketako eta Hezkuntza Sailak, EAEko hiru aldundiak, EUDEL, Arartekoa, Abokatutzako Euskal Kontseilua eta Euskal Medikuntza Kontseilua.

Batzordeak etengabeko laguntza talde teknikoak du, bai eta beste lantalde batzuk ere, aldi baterako direnak, Batzordeak edo etengabeko laguntza talde teknikoak berak antzemandako beharren arabera gaiak aztertzen dituztenak. Gaur egun, funtzionamenduan dauden taldeak harrera-baliabideen gaineko taldea eta informazio sistema-taldea dira.

Jarraipen Batzordeak lan-saio bat egin du 2015ean, otsailaren 27an, eta, bertan, emakumeen aurkako indarkeria-kasuaren kudeaketari eta jarraipenari buruzko informazio eskaini zen, eta emaitza heriotza izan zen; Abadiñon gertatu zen. Gainera, saio horretan etengabeko laguntza talde teknikoaren, harrera-baliabideen gaineko taldearen eta informazio sistema-taldearen lan-planak onetsi ziren 2015 ekitaldirako. Era berean, Emakundek Jabetuz prestakuntza-programa aurkeztu zuen, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei artatzen dituzten profesionalen zuzenduta, eta gainerako erakundeek beren prestakuntza-plana aurkeztu zuten, 2015erako emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan.

GTI II Hitzarmena



Bestalde, Emakundek «Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen datu pertsonalak tratatzeko gida operatiboa» argitaratu duela jakinarazi zen, eta EAEn emakumeen genitalen mutilazioa prebenitzeko esku-hartze proiektuaren berri eman zen. Azkenik, eztabaidatu egin zen eta onetsi informazio sistema-taldeak eginiko irismen-adierazleen proposamena.

Batzarrak Erakundearteko Talde Teknikoarekin

Horren barruan, Erakundearteko Talde Teknikoaren lana bultzatu eta dinamizatu da; talde horrek 6 bilera egin ditu, eta lan hauek gauzatu:

- Lehenengo bileran, Erakundearteko II. Akordioaren Ebaluazio eta Jarraipeneko 2013. urteko Txostenaren inguruan lan egin zen. Horretarako, Emakundek txosten horren analisi zehatua egin zuen, bi helburu zehatzekin: batetik, hura Erakundearteko Talde Teknikoari itzuli izana aurkeztea eta, bestetik, taldearekin lan egitea adostasunera heltzeko, erakundeek eginiko informazio-bilketa hobetzen duen txostena aurkezteko eredu berria. Era berean, taldeari Jabetuz onlineko oinarritzko prestakuntza-ikastaroaren berri eman zitzaion, indarkeriaren biktima direnak artatzen dituzten profesionalei zuzendutakoa, Emakundek koordinatuta eta sustatuta. Eta, azkenik, 2015. urterako Lan Planari buruzko proposamena egin zen.
- Bigarren bileran, genero-indarkeriaren kasuetan erabilitako Ertzaintzaren arrisku-balorazioaren tresna aurkeztu zen.
- Bestalde, Emakunderen kezka pizten duen beste gai bat da emakumeen kontrako indarkeria jasaten duten aniztasun funtzionaldun emakumeena. Gaur egun oraindik edozein desgaitasun-mota aurkeztea pertsonarentzat handicap handia da gizarte- eta ekonomia-eskubideak erabiltzeko eta baliatzeko. Gizarteak neurri handiagoan zigortzen ditu baliabideetara aukera-berdintasunean jotzea, gizarte parte-hartzera jotzea eta askatasun indibiduala baliatzea zailtzen duten bereizkeria bikoitza jasaten duten desgaitasunen bat duten emakumeak.

Gai horretan aurrera egiteko, Emakundek Fekoor (Gutxitasun fisikoa edo/eta organikoa duten Bizkaiko pertsonak) gonbidatu du Erakundearteko Talde Teknikoari EAEn «emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren eta desgaitasun fisikoa duten emakumeek» bizi duten egoerari buruzko azalpena ematera.

Horrela, hirugarren eta laugarren bileren lana izan zen emakumeen desgaitasun fisikoaren egoera eta indarkeria diagnostikatzea, zailtasunak antzemateko eta horren inguruko gomendioak emateko esku hartzeko arlo nagusien barruan: informazioa, arreta, koordinazioa, baliabideak eta prestakuntza.

Jarraipen Batzordeak 2015eko otsailaren 27an eginiko lan-saioan, Emakundek «Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen datu pertsonalak tratatzeko gida operatiboa» aurkeztu zuen.

- Azkenik, talde honek eginiko azken bi bileretan, erakunde-erantzun koordinatua hobetzeko neurriak kolektiboki prestatzeko lan egin zen, emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren alaba edo semeen eskubideak eraginkortasunez babesteko. Lan hori egiteko, María Naredo aholkulariaren parte-hartzea izan zen; izan ere, ibilbide luzea du giza eskubideen eta emakumeen aurkako indarkeriaren eremuan. Bi bilera horietan, Erakundearteko Talde Teknikoak ez ezik, aldundi bakoitzeko haurren zerbitzuko ordezkari batek parte hartu du, bai eta Fiskaltzako hiru ordezkariak –Fiskaltza Nagusiak, Arabako fiskalburuak eta Gipuzkoako adingabeen fiskalak– eta hiru foru-aldundietako berdintasuneko hiru adituk ere.

Espero zen bezala, 2015aren amaieran, biktima horiei dagokien araudi-aldaketa egin zen, bi arauen bidez: alde batetik, 8/2015

Lege Organikoa (uztailaren 22koa, Haur eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko dena) eta, bestetik, 26/2015 Legea (uztailaren 28koa,

Haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duena). Bi lege horiek genero-indarkeriaren biktima diren semeen eta emakumeen arreta eta babesa hobetzen dute, bai eta beste indarkeria-mota batzuen biktima diren adingabeena ere.

Oraintsu onartutako araudi horrek behartzen gaitu dagoeneko «zuzeneko biktima» gisa hartzen diren biktima horien eskubideak bermatzera, eta tarteko erakunde guztiei eskatzen die horien arretan eta babesean hobetzeko lan egiten jarraitzeko.

Hori horrela, erakundeen arteko adostasuna lortzeko lana egin da, alabak eta semeak genero-indarkeriaren zuzeneko biktima gisa ikusarazteko, kontuan hartuta duela gutxi izan diren araudi-aldaketak eta helburu nagusitzat hartuta biktima horientzako arretaren hobekuntza. Horretarako, giza eskubideen, generoaren eta haurtzaroaren ikuspegi hirukoitza barne hartzen duen lan-ildoari eutsi zaio.

Arretarako baliabideen taldearen bilerak

Arretarako baliabideen taldeak bi lan-bilera egin ditu.

- Lehenengo bileran, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen egungo beharrak eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuari dagokionez gai honen inguruko arreta-baliabideen egungo egoera identifikatzeko lan egin zen. Gomendioen edo lan egiteko ildoen gaineko dokumentu adostua prestatu zen Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin batera; bertan planteatzen da, alde batetik, Gizarte Zerbitzuen Legearen ondoriozko balorazio- eta ebaluazio-tresnak

Emakunderen kezka pizten duen beste gai bat da emakumeen kontrako indarkeria jasaten duten aniztasun funtzionaldun emakumeena. Gaur egun oraindik edozein desgaitasun-mota aurkeztea pertsonarentzat handicap handia da gizarte- eta ekonomia-eskubideak erabiltzeko eta baliatzeko.

hobetzea, indarkeria-adierazleak jasotzeko, eta, bestetik, jarrera-arazoengatik, tratatu edo diagnostikatu gabeko gaixotasun mentalengatik eta/edo adikzioengatik harrera-baliabideetara jotzeko beharrezan eskakizunak betetzen ez dituzten eta, alegia, arreta intentsiboko beharra duten genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko alternatibak bilatzea.

- Era berean, talde horren eskariari erantzuteko, bigarren lan-bileran, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak «Gizartenet» Diagnostiko Tresna erabiltzen ikasteko erakusketa bat egin zuen, dagoeneko tresnan sartu diren indarkeria-adierazleak ikusarazteko eta horien erabilgarritasuna hobetzeko.

Bestalde, taldeak Arreta Pertsonalizatuko Planaren baterako eredua adosteko aukera planteatu du, APParen dokumentu adostua prestatzeko EAEn, hurrengo urterako.

Informazio Sistemen Taldearen bilerak

Informazio Sistemen Taldeak hiru lan-bilera egin ditu.

- Informazio Sistemen Lantaldeak lanean jarraitu du, Erakundeen arteko II. Akordioan inplikaturako EAeko erakunde guztientzako informazio-bilketako sistema homogeneoa ezartzeko helburuarekin. Hala, irismen-adierazleak definitu ditu, eta haien behin betiko kategoriak adostu. Aurrerago esan den bezala, irismen gutxiko galde-sorta aurkeztu zitzaion Jarraipen Batzordeari 2015eko otsailaren 27an, onetsi zezan; proposamena onetsi egin zen. Horrenbestez, Emakunde Informazio Sistemen Taldearen kide diren erakundeen gutxieneko irismenen baterako adierazleak batzen hasiko da; horretarako, aplikazio informatikoa diseinatu eta prestatu du, bertan datuak sartu ahal izateko. Bestalde, lantalde horretan, halaber, galde-sortak prestatu eta adostu dira, prozesuei buruzko informazioa eta indarkeriaren biktima diren emakumei emandako arretaren emaitza batzeko. Amaitzeko, esan beharra dago beste galde-sorta bat adostu dela, zerbitzuen ezaugarrii buruzkoa, emakume horiei arreta ematen dieten baliabide eta zerbitzuen etengabeko ebaluazioa egin ahal izateko.
- Udalerrien aniztasuna eta horiek indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako duten garrantzia kontuan hartuta, informazio eta kontraste bereziko prozesua egin da, eta, horretarako, informazio-bilerak eta alde biko eta lurraldeko koordinazio-bilerak egin dira Informazio Sistemen Taldean parte hartzen duten erakunde

Taldeak Arreta Pertsonalizatuko Planaren baterako eredua adosteko aukera planteatu du, APParen dokumentu adostua prestatzeko EAEn, hurrengo urterako.

guztiekin eta, bereziki, informazio- eta prestakuntza-prozesuak sustatu dira udalekin. Horrela, Emakunde, foru-aldundien eta Eudelen lankidetzarekin, lurraldeka batu da oinarrizko gizarte-zerbitzuekin eta/edo berdintasun-teknikariekin, hiru fasetan. Lehen fasean, hiru hiriburuekin. Bigarren fasean, Emakundek bilerak izan ditu biztanle gehien duten udalerriekin (egon daitezkeen arazoak aztertzeko eta irismen gutxieneko datuen bilketa nola planteatzen zen egiaztatzeko). Hirugarren fasean, udalerrri guztiekin (irismena duten datuen bilketa-prozesua azaltzeko eta eragozpenen berri izateko). Gainera, datu horien bilketa oinarrizko gizarte-zerbitzuetan errazago egiteko, Emakundek Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari tresna egokitzeko eskatu dio, gizarte-zerbitzuetan esku hartzeko: Gizartenet. Eskatzen duten udal guztiek dute tresna horretara sarbidea, doan. Bertan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak gutxieneko irismeneko galde-sortaz gainera, galde-sorta osoa ere txertatu du, eta, horrela, oso aldagai interesgarriak bildu daitezke, indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen arretarako gizarte-zerbitzuen estaldura aztertzeko.

- Bestalde, Emakunde buruzagitza- eta koordinazio-lanetan aritu da emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jarduera-protokoloak homogeneousatzeko. Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikulua bultzatu du, hortxe ezartzen baita protokolo horiek garatu beharra. Ildo horretan, erakundeak protokoloei buruzko txostenak egiten ditu. Hala, toki-administrazioek erreferentziarako eta segurtasunerako esparru bat izango dute, baldin eta toki-administrazioek hala eskatzen badute. Aurten Audioko Udalaren eta Uribe Kostako mankomunitatearen protokoloen berri eman dugu.
- 2013an hasi den eta harrezkerotik lantzen jarraitu den beste lan-prozesu bat emakumeen genitalen mutilazio orokorrean aztertu eta lantzeari buruzkoa izan da, erauzketa hori emakumeen aurkako indarkeria-mota bat den aldetik. 2015eko otsailaren 11n, informazio-jardunaldia egin zen, biztanleria migratzailearekin lan egiten duten euskal administrazio publikoetako eta GKEetako langileei zuzenduta. Prestatzaile-lanetan, Adriana Kaplan antropologoak eta WASSU-UAB Fundazioan bere ekipoko kide diren beste lau adituk parte hartu zuten. Jardunaldi horretan, EAEn emakumeen genitalen mutilazioaren diagnostikoa aurkeztu zen, 2014ko ekainekoa, Wassu Fundazioak eginga eta Emakundek kontratatua.

Emakunde buruzagitza- eta koordinazio-lanetan aritu da emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jarduera-protokoloak homogeneousatzeko. Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikulua bultzatu du.

- 2015ean, orobat, 2 lantalde jarri ditugu abian osasunaren zein hezkuntzaren arloetan emakumeen genitalen mutilazioa prebenitzeko gomendioak prestatzeko. Talde horiek aldi berean lan egiten ari dira Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko eta Osakidetzako profesionalak osatutako osasun-taldea eta hezkuntza-taldea, Berritzagune Nagusiko zein Hezkuntzako Ikuskatzaitzako profesionalak osatua. Emakundek koordinatzen ditu bi taldeok.
- Horiek horrela, eta Emakundek eginiko koordinazio-lanen barruan, azaroaren 16an bilera egin zuten lantaldeetako kideek eta Nazio Batuko Biztanleria Funtzaren genero, giza eskubide eta kulturako zuzendari Luis Morak; emakumeen genitalen mutilazioa prebenitzeko munduko programarik garrantzitsuen koordinatzen du horrek UNICEF erakundearekin batera.
- Sexu-esplotaziorako salerosketari aurre egiteko, Askabide erakundearentzako diru-laguntza izapidetu eta kudeatu da, ostatu duina eta segurua emateko, bai eta sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktime diren emakumeei arreta osoa kudeatzeko ere. Gainera, Congregación Oblatas erakundearentzako diru-laguntza izapidetu eta kudeatu da, «Ireki Lehioak» proiektua martxan jartzeko; proiektu horren helburua da prostituzioaren errealitateari sisiaiari behatzea, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktime izan daitezkeenak detektatzeko eta identifikatzeko.
- Gainera, 2015ean, «Genero Indarkeriaren Delituen biktimeen intimitate-eskubidea. Biktimeen anonimaturako eskubidea» azterlana kontratatu da. Azterlana Izaskun Porres García eta Miren Odriozola Gurruchaga ikertzaileek egin dute.



Aholku-batzordea



Emakunderen Aholku Batzordea - Emakume-elkarteen partaidetza-organoa

Emakumeek beraiek politika publikoen diseinuan parte hartzea orokorrean aintzat hartuta dagoen beharrezkoa da. Horregatik, Emakunderen lehentasunezko jarduera-ardatzetako bat emakumeen elkarten sarea sustatzea eta sendotzea da. Horretarako, haiek esku-hartze publikoko esparru guztietan berdintasun-politiken diseinuan eta erabaki-hartzean parte hartzea sustatzen du. Lan horren ondorioz, elkarteekin harremana izateko eta trukerako mekanismoak sortuz joan dira, eta elkarte horien arteko trukea eta lan koordinatua ere sustatu eta babestu da. Horren guztiaren emaitza da Emakundeko Aholku Batzordea, eta horren guztiaren emaitza da, halaber, elkarteek gero eta gehiago laguntzen dutela gizartearen sentsibilizatzen eta aldatzen, berdintasun handiagoa lortzeko.



2015ean, Kontsulta Batzordeak jarraitu du solasaldi- eta komunikazio-organoaren ohiko zereginekin Euskadiko elkarte mugimendurekin, eta sendotu egin da, aurreko urtean bezala, prestakuntza-saio eta lurraldeko kontsultarako azpibatzerdeen esparruan solasaldi soziopolitikorako laguntza-saioen bidez. Emakundek, bestalde, Aholku Batzordeak EAEko administrazio publikoaren maila guztietan sortutako sektoreko partaidetzarako organoetan ordezkari izatea sustatzen jarraitu du. Horrez gain, udalerrietan, eskualdeetan eta lurralde historikoetan elkarte guztiekin bilerak egitea bultzatu du.

Emakundek emakumeen parte-hartze soziopolitikorako dinamika eta estrategia berriak bilatzen, taxutzen eta sendotzeko lan egiten du. Dinamika horietako batzuk lankidetzan egin dira Jaurlaritzako beste sail batzuekin. Esparru horretan elkarteekin lan egiten dugu lurralde-eremuko bileren bitartez. Bilera horien helburuak sareak sendotzea, modu egonkorrean koordinatzea eta denon intereseko ekimen eta proiektuak adostea dira.

Emakundeko Aholku Batzordeko elkarte-ordezkariek lurralde historiko bakoitzean parte har dezaten bultzatu da, elkarrekin lan egitearen kultura sortzeko. Horri esker, ekintza zehatzak martxan jarri dira, eta etorkizunerako konpromisoak zehaztu dira, emakumeek parte-hartze aktiboa izateko elkarte-sarearen bidez. 2015ean, hogeita hamar bilera baino gehiago egin dira hiru lurraldeetan, Kontsulta Batzordearen solasaldi soziopolitiko indartzeko.

Emakundek emakumeen parte-hartze soziopolitikorako dinamika eta estrategia berriak bilatzen, taxutzen eta sendotzeko lan egiten du. 2015ean, 30 bilera baino gehiago egin dira hiru lurraldeetan, Kontsulta Batzordearen solasaldi soziopolitiko indartzeko.

Begira/Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordea

Begira 1998an sortu zen Emakunderen barruan, publizitatearen arloan emakumeen eta gizonen berdintasun benetako eta eraginkorra lortzeko helburuz. Komunikabideek gizartean, errealitatearen pertzepzioan, eta balioen eraikitzean duten influentzia nabarmena kontuan izanik, eta 4/2005 Legeak ezarritakoa betetzeko, Emakundek komunikabideen arloa ere batzordearen barnean jorratzea erabaki du. Ekainaren 11ko 360/2013 Dekretuaren bidez Batzorde berria arautu zen.

Batzordearen helburuak hauek dira, batik bat: komunikabideetan pertsonen –sexu batekoak edo besteak izateagatik– giza duintasun txikiagoa edo handiagoa dutela eta objektu sexual soilak direla adierazi ez dadin bermatzea, eta emakumeenganako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo horretara

Begira 1998an sortu zen Emakunderen barruan, publizitatearen arloan emakumeen eta gizonen berdintasun benetako eta eraginkorra lortzeko helburuz.



bultzatzen duen edukirik egon ez dadin bermatzea. Bestalde, irudi berdinzalea, orekatua, plurala eta edertasun-kanonik eta sexu-estereotiporik gabea sustatu behar dute, eta emakumeek bizitzaren eremuetan betetzen dituzten funtzioetan duten partaidetza aktiboa berma dezatela, bereziki kontuan hartuta haur eta gazteentzako programazioaren edukiak.

Begirak herritarrek edota erakundeek egindako kexak jasoko ditu, eta, prozedura zuzentzaileak proposatuko ditu edo, behar izanez gero, dagokien organoetara bideratu, Emakume eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005eko Legeak jasotzen duenaren arabera zehapen-prozedurak erabakitzeke.

Emakunderi atxikitako Batzorde honetako kideak hauek izango dira: Emakunde bera, Idazkari Nagusia buru dela, Eusko Jaurlaritzako Publizitate Instituzionalari buruzko Sailarteko Batzordeko, Lehendakaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailerako, EITBko, Euskal Herriko Unibertsitateko, Emakundeko Aholku Batzordeko eta EKA kontsumitzaileen elkarteko ordezkariak. Horiekin batera publizitatean eta komunikazioan adituak diren pertsonak osatzen dute batzordea.

2015ean, Begira Batzordeak bi ohiko bilera egin zituen, eta, horietan, Ekintza Planean aurreikusitako jarduketak proposatu, egiaztatu eta onetsi ziren.

- Zehazki, lehen ohiko bilera ekainaren 18an izan zen eta, bertan, izapidetzen ari ziren kexen espedienteak egiaztatzeaz gainera, publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Kode Deontologikoa egiteko lan-prozesuaren egoeraren berri eman eta proposamenak jaso ziren. Era berean, Komunikabideen Monitoretzaren Azterlanaren egoeraren berri eman zen. Gainera, Begiraren Urteko Memoriari ekarpenak egin zitzaizkion, eta beste gai batzuk landu ziren, besteak beste, identifikazioko gailu mugigarrietarako aplikazioa zabaltzeko estrategia-proposamenak eta publizitatean erabilera sexisten kasuetarako kexak jartzea, Begira_app.
- Bestalde, bigarren ohiko bilera azaroaren 26an izan zen eta, bertan, izapidetzen ari ziren kexen espedienteak egiaztatzeaz gainera, publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Kode Deontologikoa egiteko lan-prozesua eta dinamizazioa aztertu zen eta 2016rako Batzordearen Urteko Jarduketa Plana aurkeztu zen.

Begira Batzordea



Lan-bileraz gainera, batzordeko kideen arteko lankidetzaz etengabea izan da online plataformak bati eta lantalde espezifikoei esker, jarduketaz zehatz batzuk egiaztatzea xede izan dutenak.

Ilde horretan, hona hemen aztergai dugun urtean aurrera eramandako jarduketaz garrantzitsuenak:

- Herritarren 45 kexa jaso eta izapidetu dira, publizitate eta komunikazio sexistari buruz (horrek esan nahi du % 30eko gorakada egon dela aurreko urtearen aldean).
- Begiraren 2014ko Urteko Jarduera Memoria egin eta onetsi da.
- Aholkularitza-lanarekin eta txosten eta gomendioak egiten jarraitu da, genero-ikuspegitik, publizitate- eta informazio-erakunde buruz.
- Batzordea osatzen duten pertsonen lankidetzarako onlineko plataformak administratzen eta dinamizatzen jarraitu da, Begira espazioarekin Emakunderen webaren esparruan, bai eta gizarte-sareetan ere.
- Europako Parlamenturako hauteskundearen kanpainaren publizitate- eta informazio-tratamenduari buruzko azterlan bat editatu eta zabaldu da (formatu digitalean).
- Komunikabideei eta publizitateari buruz genero-ikuspegitik lehendik egindako azterlanen meta-analisia editatu eta zabaldu da.
- Mugikorren aplikazio bat jarri da martxan, Begiraren jarduketaz hedatzeko eta kexen bilketa errazteko gailu bidez. «Begira-app» deiaren bidez, publizitate sexistaren kasuak antzeman daitezke eta edozein unetatik eta lekutatik publizitate horri buruzko kexak bidali. Aplikazio elebiduna da; inprimaki bat du betetzeko, kexa guztiak batzeko, bai eta dekalogo bat ere, antzeman den sexismo-mota identifikatzeko, eta Begira Batzordea zer den eta zertarako balio duen zehazten duen informazio-dokumentu bat. Begira app aplikazio mugikorra doakoa da, eta Android eta IOSentzako bertsioetan eskura daiteke.

Begira Batzordea sortu zenetik, bere proiekturik nabarmenena izan da espazio partekatutako bat sortzea komunikabide eta publizitate-agentziekin, kode deontologikoa eta autorregulazio-kodea egiteko lankidetzaz-prozesu batean. Prozesu hori 2014an hasi zen, eta 2015ean amaitu zen; kode deontologikoa bat eta bi dekalogo egin ziren: bat, komunikazioaren arloko eta, bestea, publizitatekoa. Prozesu honen helburu nagusiak honako hauek izan dira:

- Genero-ikuspegiaren komunikaziorako eta publizitateko prozesu aitzindari eta berritzailean inplikaturik dauden eta inplikatutako nahi duten publizitate- eta komunikabide-agentziak eta bestelako eragile guztiak barne hartzea.
- Elkarrekin kode deontologikoa egitea. Kode horrek informazio eta publizitate ez-sexista tratatzeko erreferentzia- edota kontsulta-dokumentu gisa balioko du.

**2015ean,
herritarren 45 kexa jaso
eta izapidetu dira, publizitate eta
komunikazio sexistari buruz. Zifra
horrek % 30eko gorakada dakar,
aurreko urtearen aldean.**

- Komunikabideetako eta publizitate-agentzietako zuzendariak eta teknikariak eta prozesuan parte hartzen duten gainerako eragileak sensibilizatzea eta prestatzea.
- Hartutako erabakiak komunikatzeko eta zabaltzeko estrategia bat ezartzea, komunikazio eta publizitate berdinzaleagoa izateko.
- Genero-ikuspegia duen komunikazio- eta publizitate-ikuspegiaren ezarpena sustatuko duten tresnak diseinatu eta sustatzea (dekalogoak, egiaztapen-zerrendak...).
- Komunikazio- eta publizitate-jardueretan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa aplika dadin erraztea, gidalerro argi eta sinpleen bitartez.

2014an hasi zen prozesuak, komunikabide eta agentzietako arduradunei zuzendutako bilera egin zenean, eta prozesuan parte hartzeko konpromisoa beren gain hartu zuten komunikabide eta agentziekin bilera teknikoak egin zenean, 2015ean honela jarraitu du:

Bi bilera berezi publizitate-eremuari bideratuta:

Lehenengoa otsailaren 11n izan zen, eta, bertan, dinamika bat landu zen, parte-hartzaile bakoitzaren posiziotik publizitate berdinzaleagoa lortzeko moduak sustatzeko eta identifikatzeko. Kode deontologikoaren oinarritzko printzipioak baloratu eta adostu ziren, eta mekanismo batzuk eztabaidatu ziren, publizitate ez-sexistako dekalogoak ezartzeko.

Bilera tekniko horretan, halaber, sensibilizazio- eta prestakuntza-ekintza bat egin zen, kode deontologikoa prestatzeko prozesuan bertan planifikatu bezala. Horretarako, publizitate ez-sexistan eta Begirako kide den Pablo Vidal Vanaclocha adituarekin lankidetzan jardun genuen.

Martxoaren 11n egin zen publizitateari buruzko bigarren bilera teknikoak; bertan aurreratu zen publizitate-dekalogoko artikuluen balorazioa, bai eta autodiagnostikorako tresna batena ere. Lan-bilera horien ondorioz, adostasun-dokumentu batzuk lortu ziren, publizitate-eremurako.

Bi bilera berezi kazetaritza-eremuari bideratuta:

Lehenengoa otsailaren 26an izan zen; bertan, dinamika bat landu zen, parte-hartzaile bakoitzaren posiziotik kazetaritza berdinzaleagoa lortzeko moduak sustatzeko eta ikusarazteko. Kode deontologikoaren oinarritzko printzipioak baloratu eta adostu ziren, eta mekanismo batzuk eztabaidatu ziren, komunikazio ez-sexistako dekalogoak ezartzeko.

Bilera tekniko horretan, halaber, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintza bat egin zen, kode deontologikoa prestatzeko prozesuan bertan planifikatu bezala. Horretarako, genero-ikuspegia duen kazetaritzako aditu batekin jardun genuen lankidetzan, June Fernándezekin.

Martxoaren 26an, kazetaritzako bigarren bilera teknikoa egin genuen; bertan, komunikazio ez-sexistako dekalogoaren artikulua eztabaidatu ziren, eta kazetaritza ez-sexistarako orientazioen/autodiagnostikoaren tresna baten balorazioa egin zen. Lan-bilera horien ondorioz, adostasun-dokumentu batzuk lortu ziren, komunikazio ez-sexistarako.

Komunikabideek iritzi publikoan duen eragina kontuan hartuta, emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, lan-prozesuan bertan emakumeen aurkako indarkeriaren kasuetan kazetaritza-tratamenduaren analisi berezia egiteko eskaria sortu zen, eta beste bi bilera berezi egin ziren, gai horri heltzeko.

Horrela, bada, apirilaren 30ean, emakumeen aurkako indarkeria-kasuen kazetaritzako tratamenduari buruzko lehen bilera tekniko berezia izan zen, aurreko legegintzaldian egin zen dekalogo baten artikulua eztabaidatzeko. Bilera tekniko horretan, halaber, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintza bat egin zen, kode deontologikoa prestatzeko prozesuan bertan planifikatu bezala. Horretarako, emakume, feminista eta generoaren gaitan aditua den María Isabel Menéndez Menéndez irakasle adituarekin lankidetzan jardun genuen.

Bigarren bilera ekainaren 14an izan zen, «Emakumeen aurkako indarkeriaren informazio-tratamendurako dekalogo eguneratua» balioztatzeko.

Eremu, kazetaritza eta publizitate bakoitzerako lan berezia amaitu ondoren, bigarren baterako jardunaldi teknikoa egin zen irailaren 17an; bertan, publizitate-agentzietako eta komunikabide parte-hartzaileetako langileek egindako lan-prozesu bereziak aurkeztu eta ondoriozko dokumentuez eta atxikipen-prozesua eta ondoren kode deontologikoa eta landutako dekalogoak ezartzeko prozesua martxan jartzeko proposamenak eztabaidatu zituzten.

Era berean, tokiko komunikabideekin eta dokumentuak diseinatzen parte aktibo hartu ez zuten beste publizitate-agentzia batzuekin eginiko lana egiaztatzea komeni ote zen planteatu zen. Horretarako, urriaren 22an, baterako jardunaldi teknikoa deitu zen, EAEn tokiko publizitate-agentziekin eta komunikabideekin lana zabaltzeko eta egiaztatzeko. Bilera horretan, egindako prozesuak eta eskuratutako emaitzak aurkeztu ziren, eta bi lan-mahai sektorial jarri ziren martxan (komunikazioa eta publizitatea), landutako dokumentuak eztabaidatzeko.

Lan-prozesu oso honetan adostutako dokumentuekin, espazio bat egokitu zen, lan hori zabaltzeko, egiaztatzeko eta herritarrek Eusko Jaurlaritzaren Irekia lankidetzeta-plataforman egindako ekarpenak batzeko. Prozesu hori amaitzean, abenduan, behin betikotzat jo ziren prestatutako dokumentuak. Beraz, kode deontologiko bat eta autorregulazio-kode bat daude Euskadin, publizitate eta komunikazio ez-sexistarako, bai eta bi dekalogo ere, publizitatearen eta komunikazioaren eremurako, lankidetzan prestatu direnak hura betetzeko konpromisoa duten eragile nagusiekin.


Azkenik, kode deontologikoaren eta autorregulazio-kodearen jarraipen-prozesua garatzeko, kode hori betetzeari dagokionez, komunikabideen monitorizaziorako tresna bat diseinatzen eta garatzen hasi da.

Beste lankidetzeta batzuk: unibertsitateak, berdintasun erakundeak, nazioarteko instituzioak

Unibertsitateak: Aurreko urteetan bezala, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako «Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterrean» laguntzen jarraitu du Emakundek. Master horren helburua da profesionalak gaitzea, berdintasun-eragile gisa lan egin dezaten, bai administrazioan bertan, bai erakunde eta entitate pribatuetan. Lankidetzeta diru-laguntza izendunaren eta irakaskuntzaren parte-hartzearen bidez eta Emakunden praktikak egiteko erraztasuna emanez zehaztu da (zehazki, bi pertsonak egin dituzte praktikak Emakunden).

Halaber, Deustuko Unibertsitateko «Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Masterra»ren garapenean ere jardun dugu lankidetzan, ikasleentzako 11 bekaren bidez eta Emakunden praktiketako ikasle bat hiru hilez tutoretzapean eduki den praktika-hitzarmenaren bidez.

Unibertsitate horrekin lankidetzan jardun dugu, halaber, 2015ean eginiko emakume teknologoarentzako Ada Byron Sariaren deialdia eta haren beste jarduera osagarri batzuk bultzatzeko. Ekimen horren helburuak hauek dira: teknologiaren arloko emakume profesionalen lana jendaurrean aitortzea eta erakustea. Izan ere, lan hori ez du behar adina ezagutzen gizarteak, oro har, nahiz eta ekarpen handiak egin emakumeak hainbat esparrutan. Helburua da saria jasotzen duten emakumeak gaur eguneko neska gazteentzat eredu eta pizgarria izan daitezela eta bokazio teknologikoak areagotu daitezela.



Ada Byron



Estatuko berdintasun-erakundeak: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren Biltzar Sektorialean parte hartu dugu; Estatuko Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoak emakume eta gizonen berdintasun-politikaren inguruan elkartzeko, eztabaidatzeko eta lankidetzan jarduteko organoa da.

Emakumearen Erakundeko zuzendari nagusiak deituta eta aukera-berdintasunerako, Emakundek, halaber, informazio- eta koordinazio-bilera batean parte hartu du, autonomia-erkidegoetako berdintasuneko zuzendarekin, elkarrekin proiektu, ekintza eta jarduerak jartzeko martxan.

Hezkuntzaren eremuan, Emakundek TRUKATU Sarean parte hartzen jarraitu du. Sare hori Emakumearen Institutuak eta Hezkuntza Ministerioak bultzatu dute, eta berdintasun-arloko politikak sustatzen dituzten erakundeetako pertsonak eta, orobat, autonomia-erkidego guztietako hezkuntza-sailekoek eratzen dute.

EBko erakundeak eta programak: Harremanetan egon gara Genero Berdintasunaren Europako Erakundearekin (EIGE), elkarrekiko lankidetzan sakontzeko, zehazki, EAEn Berdintasuneko Europako Indizea ezartzeko. Era berean, jarraitu dugu Eurogender onlineko lankidetzeta-plataforman parte hartzen.

Beste alde batetik, EGEF eta EGF egiturazko funtsei dagokienez, Emakundek funts bien Jarraipen Batzordean parte hartzen jarraitu du. urteko txostenean ekarpenak egin ditu eta Batzordeen urteko bileretan egon da: Europako Gizarte Funtzaren (EGIF) 2007-2013 aldirako Euskadiko Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordea eta Eskualde Garapeneko Europako Funtzaren (EGEF) 2007-2013 aldirako Euskadiko Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordea, bai eta bi funts horien 2014-2020 aldirako jarraipen batzordeak eratzeko bileretara ere.

Halaber, zera nabarmendu behar da: Emakundek, 2007-2013 aldiko egitura-funtsetako Berdintasun Politiken Sareko kide den aldetik, Sarearen Osokoak egindako bederatzigarren bileran parte hartu zuen, baita Sarearen barruan sortutako lantaldeetan ere. Sare hori Emakumearen Institutuak eta EGIF eta EGEF funtsen agintari kudeatzaileek sustatzen dute.

Madrilgo sektoriala



NBEko eta nazioarteko erakundeak: Nazioarteko lankidetzari dagokionez, berriz, honako jarduerak hauek egin dira:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak Emakunde gonbidatu zuen EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearekin batera «Genero-berdintasunaren aldeko tokiko politikak ezartzeko jardueran egokien sustapena eta trukea» Foroan parte hartuz; foroa NBE Mujeres-ek antolatu zuen El Salvadorren. Foroaren helburu nagusia zen Euskadiko, Ekuadorreko eta El Salvadorreko udalerriek tokiko araudiaren ezarpenaren aurrerapenei buruz dituzten esperientzia onak eta jardunbide egokiak elkarrekin trukatzeko, benetako berdintasunerako eta «Genero-indarkeria sustatzen duten udal-agendak» ezartzeko. Emakundek zenbait hitzaldi eman zituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen, haren sorreraren eta ezarpenaren eta toki-mailako garapenaren inguruan; Berdur Barik, gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko programa; Berdintasunerako planak eta egokitzapen-txostenak; eta eraginaren aurretiko ebaluazioa, generoaren arabera, eta ezarpen-prozesua toki-eremuan. Era berean, El Salvadorreko egonaldia aprobetxatu zuen, bilerak egiteko eta proiektuak ezagutzeko.

Esparru horretan, Emakunderen ordezkariak eta EUDELek Casa de la Mujer Tecleña bisitatu zuen; bilera bat izan zuen UNIMUJER ODACeko (indarkeria-egoeran bizi diren emakumeei arreta emateko unitate espezializatua) adituekin; elkartrukea egin zuen ASOMUPOLL (Asociación Municipal de Mujeres Porteñas de la Libertad) elkarteko emakume antolatu eta liderrekin; eta Suchitotoko Emakumeen Etxea bisitatu zuen eta, bertan, bilera bat izan zuen Kolektibo Feministako kideekin. Azkenik, Museo Centro de Arte para la Paz museoan «Celebrando a las mujeres de Suchitoto: un tejido de memorias y luchas» erakusketaren inaugurazioan hartu zuen parte.

Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Ekintzaren zuzendaritzarekin eta Euskadiren New Yorkeko ordezkariarekin lankidetzan, Emakunderen ordezkariak batek hiri horretan parte hartu zuen Nazio Batuetako Emakumearen Izaera Juridikoari eta Sozialari buruzko Batzordearen 59. saioan. Edizio horretan, 20 urte ospatu ziren, Beijingeko Ekintzaren Adierazpena eta Plataforma aldarrikatu zenetik, eta konpromiso horien betearazpena ebaluatzen bideratu zen, bai eta orduan eskuratutako konpromisoak berraktibatzen eta indartzera ere eta gai horren inguruko borondate politikoa sendotzen ere.

Salvador



New York



Osoko bilkuretara entzule gisa joateaz gainera, Emakundek zenbait ekitaldi paralelotan parte hartu zuen. Era berean, New Yorkeko egonaldia aprobetxatu zuen, alde biko bilerak egiteko NBE Mujeres-eko ordezkariekin, Ameriketako Estatuetak Erakundeetako ordezkariarekin, Garapeneko Amerika Barruko Bankuko ordezkariekin eta Metropoli Handien Munduko Elkarteko ordezkariekin, horiekin elkarlanerako bideak aztertu zirela.

Era berean, Emakunderi konbita egin zitzaion «Emakumea Administrazio Publikoan» nazioarteko foroan parte hartzeko, Villahermosan (Mexiko), Mexikoko Administrazio Publikoaren Institutu Nazionalak eta Tabascoko Estatuko Administrazio Publikoaren Institutuak antolatuta.

Gainera, Emakunderi konbita egin zitzaion, bost kontinenteetako beste pertsona eta erakunde batzuekin batera, Emakumeen aurkako Indarkeriari Erantzutari buruzko Munduko Kontsulta Teknikoan parte hartzeko; Madrilen antolatu dute hori NBE-Emakumeak erakundeak eta Nazio Batuen Biztanleria Funtzak. Kontsulta hau bi erakundeak buru diren Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako Funtsezko Zerbitzuei buruzko baterako Programaren barruan dago, eta xede nagusia da mundu-mailako adostasuna lortzea, batetik, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta hari aurre egiteko oinarritzko elementu eta zerbitzuen inguruan, eta, bestetik, indarkeria hori jasaten duten emakume eta nesken beharrei modu koordinatu eta kalitatezkoan erantzuteko beharrezkoak diren gutxieneko estandarren inguruan.

Nazio Batuen Zerbitzu Publikoaren Munduko Foroan parte hartu dugu, Medellinen (Kolonia). Jardunbide egokien trukeari buruzko foro horretan, Emakundek Nazio Batuen Zerbitzu Publikoaren lehen saria jaso zuen «Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea ezartzen» proiektuagatik. Sari horri gehitu zitzaion Euskadiren ordezkariari «bere herrialdearen



Villahermosa
Mexico



Madrid | ONU



Nazio Batuen
Erakundearen saria

enbaxadorerik onena izateagatik» emandakoa, parte-hartzaileek hoberen baloratutako standa izan baitzen. Gainera, Medellingo egonaldia aprobetxatu zen, esperientzien elkartrukea egiteko Mujeres que Crean bertako elkartearekin.

Emakunde, halaber, «Udal Funtzio Publikoaren Profesionalizazioa» nazioarteko mintegian parte hartzera gonbidatu zuten, zeina Dominikar Errepublikako Gobernuak antolatzen baitu.

Era berean, Garapenerako Nazio Batuen Programarekin elkarlanean aritu gara Egiptoko Gobernuaren ordezkariak EAera bisita egiteko eta indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko zerbitzuak ezagut ditzaten, jardunbide egokitzat jotzen baita.

NBE Argentinak sustatutako hainbat ekitaldi, bilera eta topaketatan parte hartu dugu estatu-, probintzia- eta udal-agintariei zein gizarte-eragileei EAEn emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko Emakundek zer-nolako lana egiten duen azaltzeko. NBEren iritzi, Emakunde egiten ari den lana baliozko erreferente eta eredu izan daiteke Argentinako aginte eta eragileek jarraitzeko, herrialde horretan berdintasun-politiketan aurrerapen handiagoa egiteko.

Horrela, irailaren 21ean, Emakundek lan-jardunaldi batean hartu zuen parte, Argentinako enpresa eta erakundeekin batera, eta bertan azaldu zuen emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko enpresa-kulturaren aldaketa sustatzeko egiten ari den lana, zehazki, berdintasun-planak egiteko eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzailearen aitortpena emateko aholkularitza eta laguntza.

Irailaren 22an, Emakundek Argentinako «Red de Hombres por la Igualdad» sarearen topaketan parte hartu zuen. Estatuko Gobernu Lan ministroa eta Emakumearen Nazio Kontseiluko presidentea izan ziren topaketaren buru; Nazio Batuen Garapenerako Programak antolatu zuen. Herrialdeko politikan, kulturaren, komunikabideetan, enpresetan, sozietate zibilean eta bestelako esparruetan ezagunak diren gizonak osatzen dute sare hori, eta denek hartu dute berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako konpromiso publikoa. Emakunde topaketa horretan parte hartzera gonbidatu zuten, EAEko gizonen berdintasunaren alde esku har dezaten erakundeak egiten duen lana azaltzeko eta, bereziki, Gizonduz ekimena azaltzeko.



Argentina

Bi ekitaldi horiez gainera, Emakundek bilerak izan zituen esperientziak, ezagutzak eta jardunbide egokiak trukatzeko Buenos Airesko Gobernuako ministroarekin eta Emakumearen Kontseilu Probintzialeko presidentearekin eta Nazioko Justiziako Gorte Gorenaren Emakumearen Bulegoko idazkari letradunarekin. Era berean, bilera bat egin zen Buenos Airesko Euskal Etxeko emakumeekin.

Bestalde, Euskadiren Argentinako Ordezkaritza eta Mercosur-ekin lankidetzara, Emakunderen «Begiradak eraldatzea» erakusketako materialak laga ditugu eta aurkezpen-bideo bat egin dugu, Argentinako Euskal Etxeetan erakutsi ditzaten.

Era berean, bilera bat egin da Secretaria General Iberoamericanarekin (SEGIP), Idazkaritza horren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzara-esparruko akordioaren jarraipena egiteko; bertan, Emakundek parte hartzen du eta emakume eta gizonen arteko berdintasun-lankidetzarako arloetako bat bezala jasotzen da.

Gainera, Emakunderi Tokiko Garapen Ekonomikoko 3. Mundu Foroan parte hartzeko konbita egin zitzaien, «Genero-berdintasuna eta emakumeen ahaluntze ekonomikoa tokiko eremuan» tailerrean, «Avanzar en igualdad en las empresas para avanzar la autonomía económica de las mujeres» hitzaldiarekin, Emakundek enpresekin berdintasuna txertatu dezaten egiten duen lanari buruz.

Hirugarren sektoreko erakundeak: Emakunde hirugarren sektoreko erakundeekin elkarlanean aritu da zenbait jarduketatan. Adibidez, 2015eko Zinema Ikusezinen Jaialdian (seigarren edizioa), Emakume Errealizatzaile Onenaren saria babestu du eta epaimahaikide izan da hautagaitzen balorazioan. Era berean, Bertsozale Elkartearekin lanean jardun du, bertsolaritzan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko eta emakume bertsolarien ahaluntzea bultzatzeko, hartara prestakuntza-ekintzak antolatuta.

2.2. Politika publikoen ebaluazioa

Berdintasun- eta genero-politiken ebaluazioa, indarreko legediak berdintasunaren arloan ezartzen duen eta nahitaez bete behar den agindua izateaz gain, kontu ematea xede duen jarraipen-mekanismoa da. Aldi berean, ikasteko eta hobetzeko tresna da. Horri esker, inplementatutako politikek norainoko arrakasta duten jakin ahal da, eta etorkizunean erabakiak hobeto hartu ahal dira.

Emakundek 1991n ekin zion ibilbideari, eta ezaguna eta aitortua da politika publikoen ebaluazioaren alorrean egin duen lana, bai aldizkakotasunari eta sistematizazioari dagokionez, bai bere deszentralizazio-mailari dagokionez.

EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. PLANA EBALUATZEA

Botere publikoen jardueraren inguruan egiten den urteko jarraipenaren bidez, EAE-ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren garapen-maila ezagut dezakegu, gauzatzearen ikuspegitik. Ikuspegi horren mugak gorabehera, intereseko panoramika bat eskaini dezake, oinarritzko kontu batzuen inguruan, besteak beste, aurrerapena berdintasun-politiken plangintzan, berdintasun-politikek beren erakundeetan sustatzen dituzten berdintasun-unitateen garapena edo administrazio publikoek besteak beste berdintasuna sustatzeko bideratutako aurrekontuak.

Segimendu hori EAEko instituzioek aplikazio informatiko baten bidez betetako galdetegiei esker lortutako informazioan oinarritzen da. 2015ean, 2014an egindako jarduerari buruzko informazioa batu da. Guztira, 116 erakundek edo instituziok parte hartu dute.

Emandako informazioa oinarri hartuta, txosten hauek egin dira:

- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren (2014) ebaluazioa, EAEko botere publikoek egindako berdintasun-planaren garapen eta ezarpenaren jarraipena barne hartzen duena.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruarekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta sail horietako organismo autonomo eta erakunde publikoen jardueraren segimendua, 2014koa.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO EUSKAL LEGEAREN EBALUAZIOA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea onetsi zenetik hamar urte igarota, bost urtean behin Legearen ebaluazioa egiteko lehen xedapen gehigarriak ezarritako eskakizuna betetzeko, 2015ean prozesu ebaluatzailea diseinatu eta jarri da martxan, lau proiektu paralelok osatuta, eta horrek konkordantzia gordetzen du aurreko hamabostean behingo ebaluazioarekin, baina, aldi berean, aukera ematen du hobekuntza kualitatiboak sartzeko eta aukera ematen du xehetasun gehiagoz egiteko

Botere publikoen jardueraren inguruan egiten den urteko jarraipenaren bidez, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren garapen-maila ezagut dezakegu. 2015ean, 116 erakundek edo instituziok parte hartu dute.

Legean aurreikusitako berdintasun-neurri batzuen analisia.

- Alde batetik, Berdintasunerako Legearen betearazpenaren, garapenaren eta aplikazioaren segimendu kuantitatiboa egin da. Azterlan horrek jarraitutasuna ematen die 2005., 2008. eta 2010. urteetan eginiko ebaluazioei, eta aukera ematen du batutako datuak eratzeko. Azterlan horren bidez, legea zenbateraino bete den jakitera eman nahi da, eta legearen aplikazioan sortu diren zailtasunak identifikatu, erabakiak hartzen laguntzeko.
- Beste alde batetik, eta ebaluazio kuantitatiboaren osagarri gisa, ebaluazio kualitatiboagoa egiten ari da, Legean aurreikusitako berdintasun-neurrien ezagutza, kontzientziario eta babes-maila ebaluatu ahal izateko. Aldi berean, identifikatu nahi dira zein diren oztopoak, baina, batez ere, Legea onetsi eta 10 urte geroago zein diren esku hartzeko eremuetan lortutako aurrerapenak.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza Publikoko Planak ezarritako gardentasuneko eta herritarren parte-hartzeko irizpideekin bat etorriz, ebaluazioa kontraste eta parte-hartze sozialean oinarritzen da.

Eta, Legea garatzeko eta gauzatzeko ardura duten euskal administrazio publikoek gainera, beharrezkoa da ezarpenaren eraginpean dauden pertsona, kolektibo eta erakunde publiko eta pribatuei kontsulta egitea, iritziak eta usteak ezagutzeko. Era berean, estrategikoa da EAEko emakume eta feministen elkarteen ikuspegia eta ekarpenak izatea, modu berezian lan egiten denekin.

- Azkenik, bi ebaluazio-prozesuak osatzen dira araudi-jardueran eta kontratuaren eta diru-laguntzaren jardueran genero-ikuspegia integrazteko Legean jasotako neurrietako biri buruzko bi jarraipen-prozesu berezirekin:
 - Azterlan bat: EAEko administrazio publikoen kontratu eta diru-laguntzetan berdintasun-klausulak aplikatzeari buruzko jarraipena eta ebaluazioa.
 - Ebaluazio bat: araugintzan generoaren araberako eraginaren aurretiko ebaluazio-prozesuak eta EAEen emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak ezabatzeko neurriak sartzeko prozesuak.

Lau ebaluazio horien emaitza aurkeztuko da Erakundearteko Batzordeak batera onesteko eta gero Eusko Legebiltzarrera bidaltzeko.

2.3. Zeharkako jardueraren esparru eta zerbitzuak

Emakunderen eguneroko lanean erakundearen nahiz erakunde osatzen duten arlo batzuen eta besteen eguneroko jardunean zeharkako eragina duten zerbitzuak eta lan-eremuak daude. Zeregin juridikoak, prestakuntzakoak, dokumentaziokoak eta ikerkuntzakoak dira. Ezinbestekoak dira Emakunderen arlo bakoitzak programatutako jarduerak egin ahal izateko.

2.3.1. Aholkularitza juridikoa

Emakunderi esleitutako eginkizunetan parte hartu du Emakundeko Aholkularitza Juridikoak: zenbait gairen barneko eta kanpoko izapideak egiten lagundu du –bereziki diru-laguntzen eta hitzarmenen izapideak egiten–, eta arau juridikoak egiteko prozeduretan ere lagundu du; hau da, aplikagarri den araudia berrikusten, haren jarraipena egiten eta eguneratzen. Halaber, Eusko Jaurlaritzako, aldundietako eta EAEko udaletako sailei aholkularitza juridikoa ematen jarraitu du, erakundearen jarduera esparruaren berezko gaitan.

Zehazki, honako hauek izan dira Aholkularitza Juridikoaren eginkizunak:

- Lankidetzeta-hitzarmenak egitea hiru foru-aldundiekin, emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko «Beldur Barik» erakundearen arteko kanpaina garatzeko eta kofinantzatzeko.
- Generoaren araberako eraginaren aurreko ebaluazioaren txostenak egitea, 4/2005 Legeko 21. artikuluan ezarritakoari jarraituz.
- Eusko Jaurlaritzako sailtako, foru-aldundietako eta tokiko erakundeetako berdintasun-planen txostenak egitea, 4/2005 Legeko 15. artikulua betez.
- Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko tokiko protokoloei buruzko txostenak igortzea, udalerriek egiten dituztenak 4/2005 Legearen 62. artikulua betez.
- Emakume eta gizonen berdintasunaren arloan erakunde laguntzaileak onartzearekin eta ez onartzearekin zerikusia duten txostenak eta ebazpenen proiektuak egitea eta planteatutako baliabideak aztertzea eta ebazpena proposatzea.
- Emakume eta gizonen aukera-berdintasunaren arloan aholkularitza teknikoak emateko aholkularitza-erakundearen homologazioarekin zerikusia duten txostenak eta ebazpen proiektuak egitea, eta hala badagokio, atzera botatzea.
- Txostenak eta ebazpenak egitea Emakundeko kontratazioetarako eta kudeaketa-aginduetarako, eta Emakunderen kontratazio-mahaietara joatea.
- Emakundek lehiaketa-bidez ematen dituen diru-laguntzen deialdi, emakida eta bestelako intzidentzien (murrizketak, itzulerak, jarduera-aldaketak, errekurtsioen ebazpena, erroreen zuzenketak, luzapenak etab.) ebazpen-proiektuak izapidetzea. Diru-laguntza eta laguntza horiek izan daitezke:
 - emakumeen elkarteak sustatzeko,
 - emakumeen aurkako indarkeriazko portaerak prebenitzeko edota horien inguruan sensibilizatzeko jarduerak bultzatzeko eta sustatzeko, erakunde, elkarte eta fundazioen aldetik,
 - udalerrirentzat eta beste toki-erakunde batzuentzat,
 - enpresa eta erakunde pribatuentzat, aholkularitza homologatuak kontratatu ditzaten, berdintasun-planak egiteko,
 - ikerlanak egiteko,
 - ikerlanak argitaratzeko (II. lehiaketa)
 - «Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko Masterra» egiteko.

- Diru-laguntza izendun eta zuzenak prestatu eta tramitatzea erakunde hauentzat:
 - Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroarentzat, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko dokumentu-funtsak eskuratu, kudeatu, digitalizatu eta zabaltzeko.
 - Euskal Herriko Unibertsitateari, 2015-2016 ikasturtean «Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterra online» emateko.
 - EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteari, berdintasun-politiketan aholkularitza-zerbitzua garatzen laguntzeko Berdinbidean udalerrri txikienei, bai eta berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako/Berdinsarea euskal udalerrien sarea garatzeko ere.
 - Argiri Emakume Elkarteari, Irungo Alarde mistoa antolatzeko.
 - Askabide elkarteari, arreta integrala kudeatzeko, ostatu egokia barne, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakumeei eta beren seme-alabei.
 - Congregación Oblatas del Santísimo Redentor-i, «Ireki Leihoak» proiektua martxan jartzeko, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima izan daitezkeenak antzemateko eta identifikatzeko.
 - Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen Fundazioari, «Emakumeen eta Gizonen Berintasunerako Euskal Legearen 10 urte: aurrerapenak eta erronkak» ikastaroa egiteko.
 - Kultura, Communication y Desarrollo (KCD) GKEd-ari, «Film Sozialak» Zinema Ikusezineko Nazioarteko Jaialdia antolatzeko.
 - Centro Azkuna de Ocio y Cultura SARI, «Sareko Ezagutza Feministak» proiektua egiteko.
 - Euskal Herriko Bertsozale Elkarteari, emakumeen parte-hartzea sustatzeko bertsolaritzan, genero-ikuspegia ezartzeko eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko.
- Txosten juridikoak egitea Emakunderen zuzendaritzak, beste administrazio publiko batzuek eta partikularrek eskatuta, emakume eta gizonen berdintasunarekin lotutako zenbait alderdiren inguruan: EAEko udalek edo beste administrazio batzuek, emakumeen kontrako indarkeria-kasuetan, herri-akzioa edo akzio partikularra gauzatzeko gaitasuna, babesa eta zaintza ez duenak banantze- eta dibortzio-kasuetan bisitetarako eskubidea ez betetzearen ondorioak, mankomunitateek berdintasun-politikak gauzatzeko, zaintza partekatua, hizkuntzaren erabilera sexista.
- «2015eko Emakunde Saria»ren deialdia eta ebazpena izapidetzea.
- Herritarren, hainbat erakunderen, funtzionarioen eta Emakundeko langileen kontsultei erantzutea eta kontsulta horiek bideratzea. Hainbat gairi buruzko kontsultak izan daitezke: laguntzen deialdiak eta emakida, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko legedia, Administrazioko uztartze-eskubideak, datu pertsonalen lagapena, etab.
- Familia-etxearen zerbitzura dauden langileen araudiari buruzko informazio-liburuxka eguneratzea.
- Begira publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordeari laguntzeko taldean parte hartzea.
- Erakundearen administrazio egintza guztien tramitazio elektronikoa.

2.3.2. Prestakuntza

Emakundek, Europako eta/edo nazioarteko erakunde ugari bezala, profesionalen prestakuntza generoarekiko sentsibilitatea adierazten duten politikak garatzeko oinarritzko estrategia dela uste du. Halaber, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak garrantzi handia ematen dio prestakuntzari.

Prestakuntzarekin lotutako jarduerak zenbait jarduera-ildoren inguruan egituratzen dira Emakunden:

Aholkularitza espezializatua

Beste instituzio batzuei prestakuntza-jarduerak antolatzeko aholkuak ematen dizkie, eta edukiak diseinatzen, irakasleak eta materialak bilatzen eta erakundeak koordinatzen laguntzen die. Zeregin hori gero eta garrantzitsuagoa bihurtzen ari da azken urteetan.

Zeregin horri lotuta nabarmentzekoa da HAEerekiko lankidetzaren eta aholkularitza-lana 2008-2018 aldirako Berdintasunean oinarritutako Prestakuntzaren Zeharkako Planaren garapenean, administrazio orokorraren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden langileentzat. HAEerekin lankidetzan aritu gara berdintasunari buruzko zeharkako prestakuntzaren diseinuan, bai eta «Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa» ikastaroaren eta «Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko oinarritzko ikastaroaren» irakaskuntzan ere; azken horrek lau edizio izan ditu.

HAEerekin batera egindako lan horretaz gain, generoari eta berdintasunari buruzko prestakuntza-ekintzak diseinatzeko aholkularitza teknikoak ere eman du Emakundek, Eusko Jaurlaritzako sailek eta foru- eta toki-administrazioek hala eskatuta.

Bestalde, aholkuak eman zaizkie hala eskatu duten ikastetxeei eta hezkuntzaren alorreko beste eragile batzuei, bai eta enpresei, emakume elkartei, profesional elkartei eta bestelako erakundeei ere, emakumeen eta gizonen berdintasunerako prestakuntza diseinatzeari eta antolatzeari buruz eta gai horretan adituak diren pertsonak eta horrekin lotutako materialak bilatzeari buruz.

Nabarmentzekoa da HAEerekiko lankidetzaren eta aholkularitza-lana 2008-2018 aldirako Berdintasunean oinarritutako Prestakuntzaren Zeharkako Planaren garapenean, administrazio orokorraren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden langileentzat.

Barne-prestakuntza

Prestakuntza-ekintza hauek Emakundeko langileentzat dira, haiek antola ditzaten eta parte har dezaten. Bi helburu dituzte:

- Zenbait gaitan sakontzea eta irizpideak adostea, gai berriak izanik, oraindik nahikoa landu ez direlako.
- Berdintasun-politikak sustatzeko erreferentzia egokiak izan daitezkeen esperientziak ezagutzeko.

Hori dela eta, 2014an eginiko Emakundeko langileek dituzten prestakuntza-beharrei buruzko diagnostikoaren prozesuaren emaitzak kontuan hartuta, emakumeen giza eskubideei buruzko prestakuntza-saio bi egin dira: lehenengoa, CEDAWko Alda Facio adituarekin, eta, bigarrena, barne-saio bat, ikaskuntza-prozesuetan espezializatuta dagoen erakunde baten laguntzarekin, Emakunderen lanbide-praktikari lehen saioan eskuratutako ezagutzak nola aplikatu zehazteko.

Aipatutako barne-jarduerak alde batera utzita, Emakundeko langileek interesekoak diren prestakuntza-ekimenetan parte hartzen dute, bai HAEEn Prestakuntza Orokorreko Planaren esparruan, bai Emakundek zuzenean antolatutako jardueretan. Aurrerago zehaztu dira, kanpo-prestakuntzari eta gure erkidegoko, estatuko edo beste autonomia-erkidego batzuetako beste erakunde batzuek antolatutako prestakuntza-jarduerei buruzko puntuan.

Kanpo-prestakuntza

Barruko prestakuntza-jardueren antolamendura nahiz beste instituzio eta erakunde batzuek antolatutako jardueretan hizlari gisa parte hartzera bideratuta dago.

Gainera, 2015ean, Emakundek «JABETUZ» programa diseinatu eta abian jarri du; emakumeen aurkako indarkeriaren biktima direnei arreta ematen dieten profesionalentzako onlineko lehen oinarriko prestakuntza-ikastaroa da.

Programa honen bidez, bateratu egin nahi da Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzeko dagoen sisGaiako profesionalen ikuspegia. Arreta hori ematen den eremuetako erakundeetan dagoen prestakuntza-eskariari ere erantzun nahi zaio. Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da programak, batez ere ikasleen foroetan parte hartzearen bidez, biktima horiei arreta emateko lan egiten duten profesionalen sarea sustatzen duela eta erakundearteko koordinaziorako bide ematen duela; horrela, biktima horien arreta hobetzen laguntzen du.

2015ean, Emakundek “JABETUZ” programa diseinatu eta abian jarri du; emakumeen aurkako indarkeriaren biktima direnei arreta ematen dieten profesionalentzako onlineko lehen oinarriko prestakuntza-ikastaroa da.

Jabetuz programa honetan planteatzen dugun ikastaroa oinarritzkoa da, online egitekoa, 85 ordukoa. Programa horrekin, «Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobe emateko Erakundearen arteko II. Akordioa»n jasotako adostasun-ildoak sendotu nahi ditugu, eta, batez ere, akordio horren printzipio orokorretako bat indartu nahi dugu: emakumeen ahalduntzea. Ikastaroaren bi edizio egin dira 2015ean; 100 pertsonak parte hartu dute ikastaro bakoitzean, aipatutako Erakundearen arteko II. Akordioan parte hartzen duten erakunde guztietakoak. Zehazki, Arartekoko, osasunaren, justiziaren, gizarte-bazterkeriaren, etxebizitzaren eta hezkuntzaren arloan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailtako profesionalak parte hartu dute: erakunde publikoek, besteak beste, Osakidetza, Lanbideak, Ertzaintza, Hezkuntzako Ikuskatzailtzak eta Berritzeguneei, Balorazio Forontse Integraleko Unitateei, Ekipo Psikosozial Judizialei, Gipuzkoako Emakumeen aurkako Indarkeriaren Epaitegiei, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei, Eudeleki, oinarritzko gizarte-zerbitzuetako langileei eta udaletako berdintasun-teknikariei, udaltzaingoak, Legelarien Euskal Kontseiluak eta Medikuen Euskal Kontseiluak.

Prestakuntza horrek bi modulu ditu, eta horiek sei gai. Lehen moduluan bi gai daude: «Esku-hartzearen etorkizuna» eta «Harrera». Bigarrean, lau gai: «Emakumeen aurkako desparekotasuna eta indarkeria», «Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko araudi-esparrua», «Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamendua» eta «Emakumeen ahalduntze pertsonalerako sustapena eta laguntza, lanbideko esku-hartzearen zati gisa».

Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen esparruan, Emakunde Donostiako Miramar Jauregian, ekainaren 22an eta 23an, «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Legearen 10 urte: aurrerapenak eta erronkak» ikastaroa antolatu zuen. Ikastaro honen helburuak honako hauek izan ziren: une garrantzitsu bat ospatzea, berdintasun-legearen egitekoa oro har eta egun arte izan dituzten eraginak aztertzea, eta balioa ematea esparru juridiko sendoak izateak duen garrantziari, eta autonomia, foru eta toki mailan garatzen eta zehazteko egiten ari den lana nabarmentzea, eragile gehiagok egiteko bat prozesu horrekin, bai eta erronkak identifikatzea ere etorkizunari begira. Honako ikastaro hauek eman ziren: «Las leyes de igualdad ¿Hacia una nueva ciudadanía?», Encarna Bodelon Gonzalezen eskutik; «Leyes para la igualdad: de la discriminación a la subordinación», Octavio Salazar Benitezen eskutik; «La ley vasca para la igualdad: luces y sombras», Arantza Campos Rubioren eskutik; «La importancia de los marcos legales para el desarrollo del mainstreaming de género», Alba Alonso Alvarezaren eskutik. Era berean, mahai-ingurua egin zen: «Legeak emakume eta gizonen arteko berdintasunean hainbat eremutan duen eragina». Bertan, honako hauek parte hartu zuten: Ana Alberdi Zubia, Ana Agirre Sáez de Eguilaz, Mireia Espiau Idoyaga eta Montserrat Auzmendi del Solar. Mahai-inguruko moderatzailea Goiatz Minguez Mugerza izan zen, Emakundearen erakundearen lankidetzaren arloko teknikaria.

Udako ikastaroa



Era berean, Emakundek honako prestakuntza-jarduera hauek antolatu ditu

- Bertintasunerako XII. Foroa prestatzeko mintegia, «Gizartea aurrera doa berdintasunerantz. Ez dezagun atzera egin» izenarekin. 2015eko Foroan parte hartzeko interesa zuten erakundeei zuzendua. Emakundeko zuzendariak, Izaskun Landaida Larizgoitiak, inauguratu zuen, eta Begoña Lasagabaster Olazabalek, NBEko lidergoko eta gobernamentuko zuzendariak, eta Begoña San José Serránek, COMPIko presidenteak (Parte-hartzerako eta Bertintasunerako Emakumeen Erakundeen Koordinakundea), parte hartu zuten. Politika Feministaren Foruma, «Beijing+20 y Objetivos de Desarrollo Sostenible Post-2015» hitzaldiarekin; Raquel Raposo Acevedok, Emakunderen Programa eta Prestakuntza Arloko arduradunak, 2015eko Bertintasunerako Foroari buruzko informazioa aurkeztu zuen; Silvia Murielek, Ncuenta Aholkularitzakoak, «Elkartrukerako espazioa: erakundeak eta pertsonak, jarduerak eta interes partekatuak identifikatu» dinamizatu zuen.
- Emakumeen elkarteari zuzendutako jardunaldia: «Herritar emakumeak: emakumeen giza eskubideak eta nazioarteko mekanismoak»; Izaskun Landaida Larizgoitiak, Emakundeko zuzendariak, aurkeztu zuen. Bertan, honako hitzaldi hauek izan ziren:
 - «Los derechos humanos de las mujeres, pilares para la plena ciudadanía», Alda Facioren eskutik, jurista eta idazlea. Maisutza Jurisprudentzia Konparatuan eta Emakumearen Eskubidearen inguruko Nazioarteko Eskubidean, New Yorkeko Unibertsitatean (NYU). Emakumeen bereizkeriaren aurkako nazioarteko adituen taldea, NBEren Giza Eskubideen Kontseiluan.
 - 2014ko Emakunde saria MARIA DE MAEZTU FORUM FEMINISTARI eman zitzaion, Iñigo Urkullu Rentería Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren eskutik.
 - «Mecanismos internacionales para la defensa de los derechos de las mujeres: la CEDAW (Convención para la eliminación de todas las formas de discriminación contra las mujeres)», Alda Facioren eta Begoña San José Serránek -Zuzenbidean lizentziatua- eskutik. CEDAW Sombra Plataforma. COMPIko presidentea (Parte-hartzerako eta Bertintasunerako Emakumeen Erakundeen Koordinakundea). Politika Feminista Forumeko presidenteordea.
 - «Espacios de aprendizaje: Experiencias, claves y fórmulas para el trabajo en la plataforma CEDAW Sombra». Espazio horiek Vicky Jiménezek, Rocío Rodríguezek eta Begoña San Josék dinamizatu zituzten.

Jardunaldiaren helburua izan zen topaketa berria egitea EAEko elkarten artean eta, horretarako, hitzaldiez gainera, elkarten arteko bazkaria egin zen eta, bertan, informazioa elkarrekin trukatu eta harremanak (berr)ezartzeko aukera izan zuten. Gasteizko Artium museoan egin zen, 2015eko apirilaren 25ean.



Mintegi Foroa



Emakunde sariak

- Herritar ororentzako hitzaldia: «Los derechos de las mujeres: cómo se consiguen, cómo se pueden perder y cómo se defienden», Alda Facio juristaren eta idazlearen eskutik; Emakumeen bereizkeriaren aurkako nazioarteko adituen taldean dago, NBERen Giza Eskubideen Kontseiluan. Euskadiko Artxibo Historikoan izan zen, martxoaren 26an.

- «Berdintasuna: komunikazio- eta publizitate-estrategia aurreratua enpresetan» jardunaldia, Kalitate eta Bikaintasunaren XXI. Europar Astearen barruan antolatua (Euskalitek sustatzen du astea). Izaskun Landaida Larizgoitia Emakundeko zuzendariak aurkeztu zuen jardunaldiko moderatzailea Ane Miren Fernández Gómez, Emakundeko Programa eta Prestakuntza Arloko teknikaria, izan zen. Hauexek parte hartu zuten: Izaskun Landaida Larizgoitia, Emakunde erakundeko zuzendaria, Mercedes Bengoechea Bartolomé, filologia modernoko irakaslea Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, «¿Qué se está perdiendo la organización al no tener en cuenta el género en la comunicación?» hitzaldiarekin; Pablo Vidal Vanaclocha, generoan eta komunikazioan espezializatutako publizista eta Begira Batzordeko kidea, «Comunicación externa con perspectiva de género: un valor estratégico e imprescindible en la empresa del siglo XXI» hitzaldiarekin eta, azkenik, mahai-ingurua: «Publizitatearen eta komunikazioaren erabilera ez-sexistarako Batzordea – Begira», Angel Rodríguez Abadek, Emakundeko Programa eta Prestakuntza Arloko teknikariak, Lucia Martínez Odriozolak, Euskal Herriko Unibertsitateko kazetaritzako irakaslea eta Begira Batzordeko kideak, eta Pablo Vidal Vanaclochak osatua.

- «La estrategia y las personas: cómo integrar elementos de género que aportan valor» hitzaldia, Silvia Muriel Gómezen eskutik, Kalitate eta Bikaintasunaren XXI. Europar Astearen barruan Euskalitek antolatutako biltzarrean. Izaskun Landaida Larizgoitia, Emakundeko zuzendaria, izan zen aurkezlea eta moderatzailea.

Emakundeko langileek eskolak eman dituzte ikastaro hauetan::

- «Genero Indarkeria. Etorkizuneko Erronkak» I. Biltzarrean parte hartu dugu; Institut Balear de la Donak antolatu du. BEGIRA Batzordeak hitzaldia eman du, eta emakumeek komunikabideetan jasaten duten indarkeriaren gaia landu dugu.

Mercedes Bengoechea



Euskalitek



- «Emakumeen kontrako Indarkerian Esku hartzea Masterra», Deustuko Unibertsitateak antolatua.
- «Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Masterra», Euskal Herriko Unibertsitateak antolatua.
- «Emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritzen den prestakuntzari buruzko oinarritzko ikastaroa»ren 4 edizio, HAEEK antolatua, eta EAEEKo administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langileei zuzenduta.
- «Generoaren araberako eragin-ebaluazioa», HAEEK antolatua, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomiadunetako langileentzat.
- «Maskulinitateak, politika publikoak eta esku-hartze soziala», CEPAIM Fundazioak antolatuta, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioak eta Europar Batasunak finantzatuta.

Txostenak aurkeztu dira beste sentsibilizazio jarduera batzuetan::

- «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Legearen 10 urte: aurrerapenak eta erronkak» jardunaldiaren mahai-inguruan parte hartu genuen; bertan, Gizonduz programaren esparruan egindako lana azaldu genuen.

2.3.3. Azterlanak, ikerketak eta argitalpenak

Beharrezkoa da estatistikek eta azterlanek errealitateak benetan nolakoak diren adieraztea; hau da, genero-harremanak aztertzea, eta aztertzea, halaber, zer eragin duten harreman horiek emakumeen eta gizonen berdintasunik eza dakarten egoeretan. Hartara, berdintasun-ez horiek zuzentzeko politikak diseinatu eta gauzatu ahal izango dira, bai eta berdintasun-ezeko egoera eta modu berriak hauGaietan eta prebenitzekoak ere. Xede horrekin, Emakundek etengabe hainbat motatako azterlanak egiten ditu, arreta halaber hainbat sektoretan jarrita. Beste alde batetik ikerketa sustatzen du, eta egindako azterlanak hedatzeko jarduerak egiten ditu. Lan-ildo honetan, zenbait jarduera sartzen dira, besteak beste: erakundearen beraren argitalpenak eta ikerketan genero-ikuspegia sartzeari sustatzeko beken deialdia. Antzeko xedeak dauzka Erakundeko Dokumentazio Zentroak. Zentro horrek aholkularitza eta baliabideak eskaintzen ditu azterlan eta ikerlanetarako, bai Emakundeko eta administrazio publiko guztietako langileentzat, bai ikerketan beste arlo batzuetan (unibertsitateetan edo bestelakoetan) aritzen direnei.



Azterlanak

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak - 2015

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak izeneko urteko txostenari esker, emakume eta gizonen errealitatearen deskribapen eguneratua egin ahal da euskal gizarteko eremu sozial ekonomiko eta politiko batzuetan eta besteetan. Txosten hori eginez Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 4. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean biltzen diren lege-xedapenak betetzen dira, emakumeek eta gizonak gizartearen arlo batzuetan eta besteetan daukaten egoera eta posizionamenduari buruz (beharrizanak, egoerak, etab.) ikuspegi orokorra ematen duelako, bai unean unekoa, bai ebolutiboa.

Txostenaren helburua da administrazio publikoek Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko adierazle-multzo bat eduki dezatela. Hala, gure gizartean oraindik ere ageri diren genero-desberdintasunen deskripzioak mesede egingo die desberdintasun horien desagertzea helburu duten programa publikoei, informaziodun oinarri batzuetatik abiatua egingo baitira. Xede nagusi horrekin batera, txostenak agente sozial eta ekonomikoak eta hezkuntza arloko agenteak genero berdintasunari buruz sentsibilizatzea du helburu.

Txosten honek informazioa bildu zeneko urtea aipatzen du. Hain zuzen ere, urte horretan bildu eta aztertu da aztertutako arlo bakoitzean eskuragarri dagoen informaziorik berriena.

Edukia egituratu da analisirako funtsezko bi alderdi kontuan hartuta: zaintzaren eta erreprodukzioaren dimentsioa, erantzunkidetasunerako lanaren zati gisa eta emakume eta gizonen aberastasuna sortzeko egiten duten lan gisa; eta analisia genero barruko desberdintasunaren ikuspegiaren pean, zeinak emakumeen arteko desberdintasunak agerian uzten dituen hainbat aldagaitatik. Txostenak zazpi atal ditu:

1. Demografia-azterketa
2. Hezkuntza
3. Lan sortzailea eta birsortzailea
4. Ekonomia- eta gizarte-baliabideak
5. Osasuna
6. Parte-hartzea
7. Emakumeen aurkako indarkeria

Jasotako informazioa bigarren mailako iturri kuantitatiboetatik dator; iturri horiek emakume eta gizonari buruzko informazioa ematen dute, euskal gizartearen errealitate sozioekonomikoa osatzen duten hainbat eremutara estrapola daitekeena. Zehazki, estatistikak egiteko erakunde espezializatuetara jo da, besteak beste, Euskal Estatistika

Erakundera (EUSTAT) edo Estatistikako Institutu Nazionalera (EIN), bai eta gobernuko sailek eginiko gai zehatzei buruzko sakoneko azterlanetara ere.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioaren eragina, Euskal Autonomia Erkidegoko batxilergoko 2. mailako ikasleek goi-mailako prestakuntza-ibilbidea hautatzerakoan

EAEKO Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren helburuak betetzera dator azterlan hau. Izan ere, balio-aldaketa sustatu nahi da planaren bidez, eta, horretarako, beharrezkoa da genero-estereotipoak eta pertsonen sexuaren arabera izendatzen zaizkien rolak ezabatzea, eta berdintasuna balio gisa garatzea, bai norbanakoarentzako balio gisa, bai gizartearentzako balio gisa. Gutxitu egin behar da sexuen arteko alde kuantitatiboa ikasketak hautatzerakoan, batez ere, sexuaren araberrako bereizketa handieneko ikasketetan eta laneratzeko eta lanbideratzeko aukerarik handiena ematen dutenetan; hori ere VI. Planean finkatutako helburuetako bat da, erabakigarria izaki emakumeek aukera gehiago eta baldintza hobek izan ditzaten bai enplegua lortzeko, bai lanbidean gora egiteko.

Horrela, azterlanaren helburu nagusia da jakitea zer puntutaraino emakume eta gizonen arteko berdintasuna den balio «finkatua» euskal herritarren ohiko jokaeretan – badirudi hala dagoela diskurtsoa--; horretarako, berdintasunak «une» zehatz batean duen eragina egiaztatzea aukeratu zen: goi-mailako hurrengo prestakuntza-ibilbideari buruzko erabakia hartzea. Azterlanean agerian uzten da berdintasuna «politikoki zuzena den baliotzat» jotzen dela gizartean —hala zabaldu da belaunaldien eta sozializazio-eragileen artean—, baina horrek ez duela esan nahi hala jarduten denik.

Txostenean, Adimen Investigaciónek Euskadiko Autonomia Erkidegoko 32 ikastetxetan 2015eko lehen seihilekoan eginiko ikerketaren emaitzak aurkezten dira; guztira, batxilergoko 2. mailako 1.303 ikasleren parte-hartze eraginkorra izan du, bai eta 105 irakaslerena eta ikasle horien 140 gurasorena ere.

Nahi genuke azterlan hau hausnarketarako tresna bat izatea, eta lagungarri izatea ikastetxeetan ikasleen orientazioa hobetzeko, eta, hartara, ikasleek aukera akademikoak generoan oinarritutako baldintzaz gabe hautatzeko

EAEko egoitza-bazterkeria larria genero-ikuspegitik

Azterlan honen bidez, genero-ikuspegiaren oinarrituta aztertu nahi da EAEko bizitegi-bazterketa larriaren fenomenoak, baina beste ikuspuntu zabalago bat ere baliatu nahi da, aterperik edo etxerik gabeko pertsonak ez ezik, beste batzuk ere kontuan hartzeko: etxebizitza ez-seguruetan edo desagokietan bizi direnak eta etxegabetzat hartu ezin direnak, bizitegi-bazterketaren eraginpean egonik ere.

Azterlanean agerian uzten da berdintasuna «politikoki zuzena den baliotzat» jotzen dela gizartean —hala zabaldu da belaunaldien eta sozializazio-eragileen artean—, baina horrek ez duela esan nahi hala jarduten denik.

SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak eginiko azterlan honetarako, teknika kuantitatibo eta kualitatiboak konbinatu dira, besteak beste, nazioarteko literatura zientifikoaren analisia, informazio-iturrien eta estatistiken erabilera eta eztabaida-taldeak eta elkarrizketa pertsonalak egitea irakaskuntza-eremuko eta etxerik gabeko pertsonen eremuko profesionalei, bai eta egoitza-bazterkeria larriko egoerak bizi izan dituzten emakumeei ere. Horren guztiaren bidez, esparru teorikoa eta analitikoa zehaztu ahal izan da eta fenomenoaren hurbilketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egin.

Azterlanaren helburua da emakumeek jasaten duten bereizkeria anitzaren ikuspuntutik interes handia eragiten duten galderei erantzutea, zerk motibatzen duen emakumeen artean muturreko egoitza-bazterketaren nagusitasuna –paradoxikoki horiek gizonak baino neurri handiagoan parte hartzen dutenean pobrezia eta gizarte-bazterketako prozesuetan– eta zer neurritan identifika daitezkeen generoaren gizarte-erakuntzari lotutako arrisku- eta babes-faktoreak, zer neurritan eragiten duten desberdin gizonengan eta emakumeengan egoitza-bazterketako beste egoera batzuek, etxebizitza ez izatea bezalako egoera ez hain larritzat jotzen direnek, eta zer neurritan etxebizitzarik edo bizilekurik gabe dauden pertsonentzat zerbitzu eta zentroek erantzuten dieten eta egokitzen diren beharizan berezietara, ibilbide pertsonaletara eta erabiltzaileen itzaropenetara.

Azkenik, azterlanak zenbait urrats proposatzen ditu emakumeak etxerik gabe gera ez daitezen esku hartzeko eta egoera hori prebenitzeko; horretarako, ikuspegi integrala eta genero-ikuspegia ulertzen da egokiena dela beharizan konplexuenei eta berezienei erantzuteko, ez bakarrik egoitza-bazterketa larrian dauden emakumeenei, baita antzeko egoeretan dauden gizonenei ere.

Ikerlanak egiteko beken deialdiak- 2015

Ikerlanak egiteko beken deialdia 2014ko abenduan argitaratu zen. Beka bakoitzaren zenbateko ekonomikoa (23.333 euro) ezarri zen, bai eta iraupena (10 hilabete) eta deitutako hiru beketako bakoitzaren ikerketa-helburua ere:

- **1. beka-mota:** gizartean dauden eremuetan balio-aldaketa gauzatzen lagunduko duten eta gizartea berdintasunerantz eramango duten ekimenak eta proposamenak bilatzea, eta horretarako dauden faktoreak aztertzea.
- **2. beka-mota:** egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen kolektiboan, eta bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoz baliatzerakoan eta segurtasunean.
- **3. beka-mota:** sistema patriarkalaren presentzia, eragina eta sistema horrek iraun dezan laguntzen duten gizarte-fenomenoak aztertzea.

Azterlanaren helburua da emakumeek jasaten duten bereizkeria anitzari buruzko galderei erantzutea, zerk motibatzen duen emakumeen artean muturreko egoitza-bazterketaren nagusitasuna eta zer neurritan identifika daitezkeen generoaren gizarte-erakuntzari lotutako arrisku- eta babes-faktoreak.

1. beka-motan, 27 eskaera aurkeztu ziren; 2. beka-motan, 17; eta 3. beka-motan, 27. Eskaera denak kontuan hartzen baditugu, emakumezkoek aurkeztu zituzten guztiak, lau izan ezik. Balorazioak egin eta elkarrizketa egokiak egin ondoren, hiru bekek esleitu ziren eta horien segimendua egin zen, horretarako ezarritako bileren egutegiaren bidez. Gaur egun, 9 pertsona ari dira prestatzen, eta honako gai hauek landuko dira esleitutako beken bidez:

1. beka-mota

EGILEA-KOORDINATZAILEA | Izenburua

Taldea:

(Koordinatzailea)

Gema Lasarte Leonet

- Amaia Alvarez Uribe
- Ana Isabel Ugalde Gorostiza
- Pablo Lekue Rodríguez
- Judit Martínez Abajo

Emakumeek
bertsolaritzaren
diskurtsoan nahiz praxian
eragin duten aldatetan
gertatu diren iniziatiba eta
faktoreen ikerketa

Zenbatekoa : 23.333€

2. beka-mota

EGILEA-KOORDINATZAILEA | Izenburua

Taldea:

(Koordinatzailea)

Ana Fernández Cubero

- Iradi Mogollón Garcia

Gorputza, zahartzarora
eta generoa
adinekoentzako
elkarlaneko etxebizitzak

Zenbatekoa : 23.333€

3. beka-mota

EGILEA-KOORDINATZAILEA | Izenburua

Taldea:

(Koordinatzailea)

María Rodó de Zarate

- Jordi Estavill Castany

Kalea nirea da?
Emakume gazteen
boterea, beldurra eta
ahalduntze-estrategia
aurkako espazio
publikoan

Zenbatekoa : 23.333€

2014ko beken deialdiari dagokionez, beka-mota guztiak 2015ean amaitu dira, aurreikusitakoaren arabera. Hautaketa-batzordeak ikerlanak aztertu ditu, eta egokia izan da guztien emaitza.

Argitalpenak

2015ean, argitalpen hauek egin dira:

Gidak:

- 29. zk. «Kirolean emakumeen aurkako sexu-jazarpena eta abusuak prebenitzeko gida»
- 30. zk. «Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamendurako gida»
- 31. zk. «Nahiko! Programaren ikaskuntza-gidak: laburpena, ondorioak eta esperientzia pilotuak»

Txostenak:

- 34. zk. «Sexismoa Europako 2014ko Hauteskundera egindako publizitate- eta informazio-tratamenduan. Detektatzeko tresnak».

Jardunaldiak:

- 24. zk. «Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko nazioarteko biltzarra».

Liburuxkak:

- «Bereizkeria-kasuetarako defentsa-zerbitzuaren liburuxka».

Dokumentazio Zentroa

[\(2. eranskina ikusi\)](#)

Dokumentazio zentroak ohiko kudeaketa eta mantentze-lanak egin ditu: funtsak eskuratzea, katalogazioa eta indexatzea, aldizkarien harpidetzak kontrolatu eta horietatik artikulua hustea, etab. Horiez gain, zentroak eskaintzen dituen zerbitzuetako erabiltzaileen eskaerei erantzun die:

- Informazio eskariei erantzun, gutunez, faxez, posta elektronikoz, telefonoz edo zuzenean.
- Aholkularitza bibliografikoa eskaini eta zerrenda bibliografikoak eta bideografikoak egin, eskaerak jaso ahala; bai Emakundeko langileentzat, bai kanpoko erabiltzaileentzat.
- Gai jakin batzuei buruzko prentsako albisteak hautatu dira.
- Liburuak, bideoak eta abar mailegatu dira.

Dokumentazio Zentroak, urteko bigarren hiruhilekoan, funtseko liburu bikoiztuak banatu zituen sarea osatzen duten emakumeen dokumentazio-zentro eta liburutegietan. Zentroaren ohiko jardura dela eta, esan behar da Emakundeko langileei arreta eta mailegua emateak 195 kontsulta izan dituela (75 liburu eta 26 ikus-entzunezko dokumentu-bideo, dvd-ak, cd-rom mailegatuak). Barne-kontsulten kopuruak behera egin du % 2 aurreko urtearen aldean (201 kontsulta 2014an), eta behera egin du, halaber, mailegatutako materialari dagokionez (86 liburu eta 42 DVD 2014an). Material horrez gainera, nabarmendu behar da dokumentu elektronikoen eskaerak (PDF), Interneteko estekak eta abar gero eta ugariagoak direla.

Dokumentazio zentroak ohiko kudeaketa eta mantentze-lanak egin ditu. Horiez gain, zentroak eskaintzen dituen zerbitzuetako erabiltzaileen eskaerei erantzun die.

Kanpoko erabiltzaileei dagokienez, berriz, 231 kontsulta egon dira. Horien % 20 (47 eskaera) beste autonomia-erkidego batzuek egin izan da, eta % 1 (3 eskaera), atzerriko herrialdeek egin. Kasu honetan, barne-langileen kasuan ez bezala, kontsultetan gorakada egon da, aurreko ekitaldiaren aldean, % 10ekoa (211 kontsulta 2014an). Nahiz eta beherakada txikia egon den liburuen maileguan, 80 liburu (90 liburua 2014an), bai eta ikus-entzunezkoen dokumentuetan ere, aurten 20 dokumentu (24 dokumentu 2014an). Barneko erabiltzaileekin hitz egin bezala, nabarmendu behar da dokumentu elektronikoen eskaerak (PDF), Interneteko estekak eta abar gero eta ugariagoak direla.

Azpirarratzekoa da, bi kasuetan –barneko kontsultak nahiz kanpokoak–, posta elektronikoa izan dela berriz ere gehien erabili den bidea (%81), eta gora egin dutela dokumentu elektronikoen eskaerak ere (Zentroan gordetako artikulua eta dokumentuenak edo sarean kontsultatutako baliabideenak). 189 kontsulta izan ziren posta elektronikoz 2015ean (2014an 160 kontsulta). Sarritan, Emakundek argitaratutako liburuak dira, baita paperean ere, baina banaketarako agortuta daudenak. Tamaina handiko dokumentuak bidaltzeko webgune espezializatuen bidez bidali ohi dira dokumentu horiek (wetransfer).

Sarean eskuragarri dauden beste material batzuei dagokienez, erabiltzaileei Interneten baliabideak edo dokumentuak bilatzen laguntzea edo horretarako jarraibideak ematea izaten da askotan Dokumentazio Zentroaren lana.

Salako edo aurrez aurreko kontsulten kopurua (33 kontsulta) 2014koa (41 kontsulta) baino zertxobait txikiagoa izan da, nahiz eta noizbehinka baino ez diren egin halako kontsultak. Aurrez aurreko kontsulten beherakada 2003tik baieztatzen ari zen gertakaria da; igoera batzuk izan ditu 2006an, 2008an eta 2012an. Beherakada hori lotuta dago gero eta ugariagoak diren dokumentu elektronikoei, bai Emakunderen web-orrialdean (lehen mailegurako ziren dokumentu edo argitalpenak, baina orain web-orrialdetik deskarga daitezkeenak), bai Dokumentazio Zentroko gure katalogoan (barneko argitalpenak, kanpokoak etab.), bai eta zentroko erabiltzaileek dituzten gaikuntza eta trebetasunei ere (gero eta ugariago dira).

Teknologia berrien erabilerak gora egin duela adierazten duen beste datu bat da telefono bidezko kontsultek behera egin dutela azken urteetan –405 izan dira 2015an, eta 452, 2014an–. Aurreko urteetan bezala, kontsulta horiek ez dira modu orekatuan banatu urtean zehar, eta dei gehienak azaroan eta martxoan egin dira, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunagatik eta Emakumearen Nazioarteko Egunagatik. Gainera, aipatu behar da faxa desagertu dela gure zentroan eskaerak egiteko modu gisa, eta, lehengoz, aurreko urtean, ez dela eskaerarik jaso posta arruntez.

Liburutegiko datu-basean, 890 dokumentu-erreferentzia berri sartu dira 2015ean (% 45 monografiak dira, eta % 35etik gora artikulua, dokumentuak...). Euskarri elektronikoak gero eta protagonismo handiagoa du, eta monografiaren erdia baino gehiago PDFak dira. Azpirarratu behar da, bestalde, dokumentu-erreferentzia berrien % 20 euskarri digitalean (DVD) dagoela –145 bidegrabazio–. Emakundek egindako ikus-entzunezko dokumentu asko digitalizatzeko edo haien formatua aldatzeko prozesuarekin jarraitu da, bideo formatutik (VHS) euskarri digitalera (DVD) pasatzeko.

Katalogatutako materialen erreferentziakin hilero Kaleratu Berrien Buletinak prestatu dira, eta barnean (Emakundeko teknikariei) nahiz kanpoan (eskatzen duten dokumentazio zentroi) banatzen dira, posta elektronikoaren bidez. Eusko Jaurlaritzako sailetako berdintasun-unitateek ere jasotzen dute buletin hori 2011. urtetik aurrera. Pasa den urtean, buletin hau azken bost urteetan eskaeraren bat egin zuten Dokumentazio Zentroko erabiltzaileen zerrenda batekoen artean banatzen hasi zen.

Estatuko beste dokumentazio-zentroekin elkarlanean aritzeari dagokionez, nabarmentzekoa da Emakumeen Dokumentazio Zentroen eta Liburutegien Sareak garatutako jardura eta proiektuetan parte hartu duela Emakundek, hala nola Aldizkarien Katalogo Kolektiboa proiektuan. Oraindik abian dagoen asmo handiko proiektua da, kide diren zentro guztietako aldizkako argitalpenen izenburuak biltzen ditu, oraindik argitaratzen direnak eta ez direnak ere bai. Gainera, «emakumea» gaiarentzat espezifikoak diren indexatze tresnen (thesaurusa) berrikuste eta eguneratze kolektiboa egiteko lanetan ere hartu du parte. Horrez gain, sare horrek maitzeari Salamanca antolatutako dituen topaketetan izan da Emakunde.

3. GIZARTE OSOA XEDE DUTEN JARDUERAK

Gizarte osoa da Emakunderen ekintzen hartzaile eta helburu handia. Memoria honen lehenengo zatian Emakundek batez ere erakunde publikoen eta horietan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko sortutako egitura eta tresnen bidez gizarteari begira sustatutako ekintzak deskribatu dira. Bigarren zati honetan, herritarrei zuzenean zuzendutako ekintzak zehazten dira. Ekintza batzuen zein besteen helburua, gizartea emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritutako eredu baterantz eraldatzea da.

Estatuko beste dokumentazio-zentroekin elkarlanean aritzeari dagokionez, nabarmentzekoa da Emakumeen Dokumentazio Zentroen eta Liburutegien Sareak garatutako jardura eta proiektuetan parte hartu duela Emakundek.

3.1. Emakumeen elkartegintza eta berdintasunaren aldeko mugimenduak sendotu eta bultzatzea

3.1.1. Lan-proiektuak emakumeen elkarteekin

Prestakuntza-lanaz eta Kontsulta Batzordearen esparruan garatutako parte-hartzerako sustapen-lanaz gainera ([ikusi 2.1.3. eranskina](#)), Emakundek beste lantalde batzuk bultzatzen ditu eta aholkularitza tekniko eskaintzen du, elkarteen eskariaren arabera, dela proiektuak prestatzeko eta ebaluatzeko, genero-ikuspegia txerta dezaten, dela toki, mankomunitate edo lurralde, autonomia-erkidego mailan eta autonomia-erkidegoen artean sareak indartu ahal izateko dinamikak eta ekintzak egiteko. Hona hemen nabarmendu beharreko proiektu batzuk:

- EAEko emakume alargunen sareak.
- Lurralde-esparruan emakumeen elkartegintza osatzeko batzordea.
- Landa-eremuko emakumeen elkarteak.
- EAEko emakume ijitoen elkarteak.
- Erakunde mistoetako emakumeen arloak.
- Ama bakarreko familien elkarteak.
- Emakume etorkinen elkarteak.

Sareak sortzeko sustapena dela eta, Emakundek Emakumeen elkarteekin biltzeko nahiz horiek elkarrekin biltzeko guneak eskaintzen, sustatzen eta finkatzen jarraitu du. Gune horietan, besteak beste, prestakuntza-beharrak landu dira, bai eta antzeko prestakuntza-interesak dituzten elkarteen artean koordinatutako prestakuntza-proiektuak antolatzeko formulak ere. Halaber, jarduketaren ereduak sortzeko lanerako bide eman du, parte-hartze aktiboagorako, bai emakumeen erakundeen barruko barne-dinamikari dagokionez, bai horiek hainbat eremutako sareetan duten parte-hartzeari dagokionez.

Aurten ere jarraitzen dugu beren elkarteetan emakume nekazarien eta landatarren parte-hartzea finkatzen doan proiektua diseinatzen, elkarte-mugimendua berrantolatzeko eta horren presentzia handiagotzeko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako Saileko emakume baserriarren batzordean.

Jarraitu dugu emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen direktorio digitala eguneratzen, baita EAEko emakumeen elkarteen gida ere.

Azkenik esan behar da Emakunde estatuko eta nazioarteko emakume-elkarte eta elkarte mistoen eta jarduera antzeko esparruetan egiten duten beste elkarte batzuen arteko elkartrukea bideratzen saiatzen dela.

Jarraitu dugu emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen direktorio digitala eguneratzen, baita EAEko emakumeen elkarteen gida ere.

3.1.2. Emakumeen elkarte eta federazioentzako diru-laguntzak ([3. eranskina ikusi](#))

Aholkularitza teknikoaz eta jarduerak antolatzekeo babesak emateaz gain, Emakunde elkarten jarduera ekonomikoki babesten jarraitu du, diru-laguntzen urteroko deialdiaren bitartez. Irabazi-asmorik gabeko emakume-elkarte eta -federazioentzat da deialdia, bai eta emakumearen sustapena xede eta jarduera-eremu bakartzat duten fundazioentzat ere. Deialdiaren helburua honako hau da: emakumeen parte-hartzea eta prestakuntza bultzatzen dituzten elkarteak eta jarduerak sustatzea. Emakunde behar duten laguntza teknikoak ematen die, bai proiektuak egiteko prozesuan, bai diru-laguntzak izapidetzeko prozesuan. Gainera, beste administrazio batzuen diru-laguntza deialdiei buruzko informazioa ere ematen die. Deialdian eskaera aurkeztu duten 141 elkarteetatik, 131k jaso dute diru-laguntza. Guztira, 189 proiektu lagundu dira diruz, eta 376.000 euro erabili dira horretarako.

3.1.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako diru-laguntzak ([4. eranskina ikusi](#))

Esku-hartze sozial horren barruan, irabazi asmorik gabeko erakunde, fundazio eta elkarteek ere funtsezko ekarpena egiten dute indarkeriazko jokabideen inguruan sentsibilizatzen eta prebenitzen eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan. Hori guztia dela eta, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, 2015. urtean, jarraitu du ekonomikoki sentsibilizazio eta/edo emakumeen kontrako jarrera indartsuak prebenitzeko ekintzak martxan jartzen dituzten erakundeen jarduerari laguntzen, bai eta indarkeria hori prebenitzeko oinarri gisa berdintasuneko jarrerak sortzera bideratzen dituzten estrategiak dituztenei ere.

Deialdiaren ebazpenaren lehenengo artikuluan aurreikusitako xedeetarako baliabide ekonomikoen zenbatekoa 240.000 euro izan da. 2015ean, 75 eskabide aurkeztu ziren baloratzeko, eta horietatik 38 diruz lagundutako proiektuak izan dira, 19k, nahiz eta puntuazio nahikoa lortu duten, ez dute diru-laguntzarik jaso, kreditua agortu delako. Beste 18 proiektuk ez dute gutxienezko puntuazioa lortu.

3.2. Enpresentzako aholkularitza eta laguntza

Berdintasunean aurrera egiteko, enpresa-kulturaren aldaketa bat gertatu behar da. Soilik ekoizpena kontuan hartzeari uztea eta pertsonak eta beren errealitate anitzak kontuan hartzea. Azterlan ugari agertzen dutenez, pertsonen gogobetetasun handiagoak produktibitatea areagotzen du. Pertsonen gogobetetasun handiagoa hainbat alderdirekin lotuta dago, besteak beste lanbide-aintzatespenarekin, lanbide-prestakuntza eta -sustapenerako aukerekin, lan bizitza eta familiakoa eta pertsonala uztartzeko aukerekin, etab... Emakunde arlo horretan egiten duen lanaren ardatzak enpresetan sentsibilizazio-lana eta berdintasun-planak landu eta abian jartzeko aholkularitza eta laguntza dira, baita enpresek ildo horretan egiten duten lana jendaurrean aintzatestea ere.

3.2.1. Berdintasun planak: Aholkularitza

Emakunde aholkularitza eman die enpresei eta beste erakunde batzuei berdintasunerako legediari buruz eta eskuragarri dauden baliabide material, ekonomiko eta pertsonalei buruz, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak egin ditzaten beren lan-esparruetan. Berdintasunerako Legea garatuz joanenez eta enpresetan berdintasuna sustatzeko kontzientzia gero eta handiagoa denez, ikusi ahal izan da informazio- eta laguntza-eskaerak gora egin dutela, eta ez diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko soilik, baita plan horiek abian jartzeko ere.

3.2.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak

Berriz ere enpresa eta erakunde pribatuak emakume eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta planak prestatzeko laguntza kontratatzeko diru-laguntzen deialdia egin da. Horrez gain, 15 enpresa hauei diru-laguntza eman zaie:

ERAKUNDE ONURADUNAK	Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa (eurotan)
ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA S.COOP.	4.219,00
ASOCIACION AGIANTZA ELKARTEA	9.989,21
ASOCIACIÓN BIZITEGI	5.236,36
ASOCIACION URIBE-COSTA EN FAVOR DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL	9.395,20
ASOCIACION VIZCAINA DE AYUDA A PERSONAS AFECTADAS DE PARÁLISIS CEREBRAL	10.000,00
BAIMEN S.A.	6.000,00
BIZKAIKO GURUTZE GORRIA-CRUZ ROJA BIZKAIA	7.200,00
CÍA. DE SERVICIOS SOCIALES SAN IGNACIO, S.A.U	5.392,85
EMAUS BILBAO S.COOP.	5.165,00

ERAKUNDE ONURADUNAK	Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa (eurotan)
ENTREMANOS	4.886,78
EUSKAL EDITOREA SL	6.050,00
GIRDER INGENIEROS SLP	3.700,00
IKERPARTNERS SL	3.500,00
INFORMATICA 68, S.A	6.000,00
J. APAOLAZA AUTOBUSAK, S.L.	4.100,00
SUSPERTU, S.L.	9.165,60
GUZTIRA	100.000,00

Diru-laguntzaren esleipendun diren erakundearen artean, lau Gipuzkoakoak dira eta bederatzi Bizkaikoak, eta bi EAEko probintzia batean baino gehiagotan kokatzen dira. Jarduera-eremua dela eta, esan behar da hamabost erakundeak zerbitzuen sektorekoak direla eta izaera juridiko desberdina dutela, bai eta hainbat zerbitzu-mota ere ematen dituztela. Horien artean, komunikazioaren, ingeniariaren, informatikaren, garraioaren arloko eta osasun-arloko zailtasunak dituzten pertsonentzako zaintzako eta laguntzako zerbitzu pertsonalak emateari buruzko arloko enpresak eta onura publikoko zenbait erakunde daude.

Diruz lagundutako erakundeak askotarikoak direnez, berdintasun planak abian jartzeko jarduerak inguru oso ezberdinetan eragin soziala izatea espero da, eta etorkizunean gizartearen eragin biderkatzaile garrantzitsua izatea, bai emandako zerbitzuen kalitateari dagokionez, bai haietan lan egiten duten pertsonen lan baldintzei dagokionez, bai emakumeen eta gizonen artean gizarte eta ekonomia baliabideak lortzeko dauden aukera desberdintasunak murrizteari dagokionez. Guztira, zifrei dagokionez, baliteke 434 gizonentzat eta 668 emakumerentzat izatea onuragarriak erakunde horietako bakoitzean egindako diagnostikoak eta planak (langileak diruz lagundutako erakundeetako plantillan), eta, zeharka, milaka gehiagorentzat.

3.2.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzak Erakundeak

Figura hori azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuaren bidez sortu zen, gizarte- eta lan-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak sustatzeko, baita entitateek arlo horretan egiten duten lana nabarmentzeko ere. Lankidetzak-erakundeak aintzatespenari lotutako berritasun handiena 11/2014 Dekretuaren onarpena da, 424/1994 Dekretua aldatzen duena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 41. artikulua garatuz. Dekretu horrek hainbat ekarpen txertatzen ditu, metatutako kudeaketaren ondorioz beharrezkotzat jo direnak, gaur egungo araudi-esparruari eta beharrei erantzuteko helburuarekin.

Aurreko dekretuaren arabera aitortutako erakunde guztiek berriro eskatu behar dute aitortuak izateko, 2015eko otsaila amaitu aurretik, dekretu berria betez. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde zuzendariaren ebazpenaren bidez, eta dekretu berriaren arabera, emakume eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzailearen aitortpena eman zaie 72 erakunderi:

AITORTUAK

- 97 S&F S.L.
- AGINTZARI S.COOP.
- AMPO, KOOP. E.
- ASKORA PLUS
- ASOCIACIÓN ARRATS
- ASOCIACION ASKABIDE LIBERACION
- ASOCIACION GOIZTIRI
- ASOCIACIÓN MARGOTU
- ASOCIACION NACIONAL DE HOGARES PARA NIÑOS PRIVADOS DE AMBIENTE FAMILIAR GIPUZKOA
- ATE ASESORES DE GESTIÓN
- AUTOBUSES CUADRA S.A.
- AUTOBUSES LA GUIPUZCOANA
- AZ PARTICIPACIÓN
- BETEAN AUDITORÍA
- BIDE GINTZA ELKARTEA
- BIHARKO GIPUZKOA S.L.
- BILUR 2000
- BULTZ-LAN CONSULTING
- CAJA LABORAL KUTXA
- CARITAS DIOCESANAS DE BILBAO
- GEAR EUSKADI
- CENTRO DE ACOGIDA LAGUN ARTEAN
- CENTRO SOCIO SANITARIO DE CRUZ ROJA EN SAN SEBASTIAN E IRUN
- COMPAÑÍA DEL TRANVIA DE SAN SEBASTIAN (DBUS)
- COMPAÑÍA DEL TRANVIA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA, S.A.
- CONSTRUCCIONES AMENABAR
- CONSTRUCCIONES BALZOLA S.A.
- CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA
- CONSULTORES DE EMPRESA CDE S.L.
- CRUZ ROJA ALAVA
- DAITEKE CAREERS & JOBS
- DEITEL DIRECT S.L.
- DEUSTO SISGaiaS
- DEUTSCHE SCHULE SAN ALBERTO MAGNO S. COOP.
- DIGITAL MOBILES S.L.
- EDE FUNDAZIOA
- EJIE
- ELECTRA VITORIA, S.COOP.
- ELHUYAR ZUBIZE S.L.
- EMUN KOOP.E.
- ERROAK
- EUSKAL TREN BIDE SAREA (ETS)
- EUSKOTREN
- FEKOOR
- FUNDACIÓN IZAN
- FUNDACION LANTEGI BATUAK
- FUNDACION MUSEO GUGGENHEIM BILBAO
- GAZTAROA-SARTU KOOP. E.
- INGETEAM TECHNOLOGY
- ITELAZPI
- IZENPE
- KIROI MANAGEMENT S.L.U.
- LIMPIEZAS BILUR
- LURGOIEN
- METRO BILBAO S.A.
- MU ENPRESAGINTZA
- MURGIBE
- ORONA S.COOP.
- ORTZADAR
- PREMANK S.L.
- PROTECCION Y SEGURIDAD TÉCNICA S.A.
- SARTU-ALAVA
- SARTU TALDEA
- SATSE
- SERBITZU ELKARTEA
- SOCIEDAD PÚBLICA DE GESTIÓN AMBIENTAL IHOBE S.A.
- SUSPERGINTZA ASOCIACIÓN DE INTERVENCIÓN SOCIAL DE BILBAO
- TALLER USOA LANTEGIA S.A.
- TXINDORRA KONTSULTORIA
- VIRTUALWARE 2007 S.A.
- ZABALTZEN
- ZUBIZARRETA CONSULTING

Erakundeak



UKATUAK

- ALTUNA Y URIA
- ANTZIBAR
- ASFALTIA
- ASOCIACION EDUCATIVA BERRIZTU
- BPG COORDINADORES DE SEGURIDAD
- BYCAM
- CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS
- CEI FORMACIÓN Y ASESORAMIENTO EMPRESARIAL
- CONSTRUCCIONES ITURRIOZ
- CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA
- CONSTRUCCIONES MOYUA
- CONSTRUCCIONES OLABARRI
- CONSTRUCCIONES ZUBIEDER
- COOPERATIVA DE TRANSPORTES DEL PUERTO DE PASAJES

- ELEKTRA
- EROSKI S.COOP.
- EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA
- FUNDACIÓN FONDO FORMACION
- GSM MEDIOAMBIENTE S.A.
- GOITU ERAIKUNTZAK
- INVIZA
- IPARRAGIRRE ERAIKUNTZAK
- IRSE-EBI
- KABIA ELKARTEA
- MUTUALIA
- SUSTATUZ LAN TALDE
- URBYCOLAN

EZETSIK

- POLICLÍNICA GIPUZKOA

UKAPENAK

- ARCELORMITTAL – PLANTA BERGARA
- ARCELORMITTAL – PLANTA ZUMARRAGA

3.2.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena

Aholkularitza-entitateei informazioa eta aholkuak eman zaizkie, enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioa jasotzeko deialdiari buruz. Enpresa baten eskaera baloratu da, eta aholkularitza homologatu gisa akreditatua izan da, enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko, 105/2004 Dekretuaren babesean –abenduaren 28ko 348/2010 Dekretuak aldatu egin du Dekretu hori-. Aholkulari egiaztatua Estíbaliz García Cano da.

Azkenik, homologatutako aholkularitza-enpresen jarraipena egin da, homologaziorako baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko. Hori horrela, Ados Consulting, SL bazter utzi da; izan ere, ez dira bete homologaziorako kontuan izandako irizpideak eta OPE Consultoresek uko egin dio homologazioari. Abenduaren 31n emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan homologatutako 22 aholkularitza-entitate zeuden.



3.2.5. Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk

Prestakuntzako material eta jarduerak lantzea enpresei laguntzeko beste bide bat da. 2015en, honako dokumentu hauek eguneratu dira ([ikusi 2.3.3. argitalpenen eranskina](#)).


- «**Emakumeen Enplegua Sustatzeko Kontratu-motei eta Laguntzei buruzko Gidaliburua**», eguneratu da. Tresna horren helburua da aholkularitza ematea enpresei eta erakundeei, emakumeen enplegua sustatzeko indarrean diren kontratu-modalitateen, hobarien eta laguntzen berri izan dezaten.
- «**EAEn Emakumeen Ekintzailatza Bultzatzeko Laguntzen Mapa**» eguneratu da. Enpresa-jarduera bat abiarazi nahi duten emakumeentzat da, eta, dauden laguntzei buruzko informazioa emanez, ekintzaileei laguntza eta aholku ematen dieten erakunde publiko eta pribatuentzat.
- «**50 langiletik gorako enpresetan sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko protokoloa**» eguneratu da.

3.3. Herritarrei arreta zuzena emateko jarduketak, berdintasun-printzipioa eta bereizkeriarik ezarena defendatzeko sektore pribatuan

Atal honetan, Emakundek 2015ean zehar sektore pribatuan berdintasun-printzipioaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren printzipioaren defentsarako ematen dituen zerbitzuak azaltzen dira. Emakunderen funtzioak eta mugak eremu honetan biak daude jasota otsailaren 16ko 3/2012 Legearen (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzekoa) 64. eta 65. artikuluetan.

Aipatutako artikuluekin bat etorritik, lau jarduketa egin dira:

- Eskatzaileei berehalako aholkularitza ematea, telefonoz edo aurrez aurre.
- Txostenak egitea.
- Idatziz erantzuten diren eta aurretiazko azterlana eskatzen duten kontsultak.
- Kexa eta salaketen prozedurak.




Berehalako aholkularitza, telefono bidez eta aurrez aurre, eskatzaileei

Emakundek herritarrei arreta emateko ordutegi bat du, aurrez aurreko kontsultei zein telefono bidezko erantzutea xede. 2015. urtean, berehala aholkularitza emateko 381 kontsulta erregistratu dira, aurrez aurrekoak zein telefono bidezkoak. Nabarmen hobetu da zerbitzua; izan ere, bulego bana ireki da Bilbon eta Donostian (Gasteizen beste bat zegoen lehendik), bertara interesdunak joateko. Bulego horiek ekainean ireki ziren eta, lehen zazpi hileetan, 17 zerbitzuri eman die zerbitzu.

Aurretiko azterlana eta kexa- eta salaketa-prozedurak behar dituzten kontsultak

Aurretiko azterlana eta kexa- eta salaketa-prozedurak eskatzeagatik idatziz erantzundako kontsultak guztira 127 dira, eta horietatik 62 kontsultak izan dira (% 48,8), 57 kexak (% 44,8) eta 8 salaketak (% 6,2).

Kontsultak 127



Gaia dela eta, aipatzekoa da aztertutako gaien herena lan-eremuari buruzkoak izan direla (5 35,4); horietan, nagusi da kontzilioaren gaia, sexuagatiko jazarpenagatik. Gaiaren beste zati garrantzitsu bat dira komunikabideak eta publizitatea (% 34,6) eta, azkenik, gainerako herena beste arlo batzuetako gaiak osatzen dute, besteak beste, kirol, elkarte, indarkeria, familia... eremukoak.

([5. eranskina ikusi](#)).

2015ean, berehalako 381 aholkularitza-kontsulta zenbatu dira, telefono bidezkoak eta aurrez aurrekoak. Nabarmen hobetu da zerbitzua; izan ere, bulego bana ireki da Bilbon eta Donostian

3.4. Gizarte-sentsibilizazioa

Berdintasuna benetan lortu ahal izateko, emakume eta gizonen portaerako jarraibide soziokulturalak dibertsifikatu eta aberastu behar dira eta gure izaeran sustrai sakonak dauzkaten balio batzuk aldatu behar dira. Horien orde z genero-zereginen atribuzio soziala etxean zein lan-arloan murriztuko duten beste batzuk ezarri behar dira, zaintza-lana beharizan sozial eta erantzukizun konpartitu gisa ikusaraziko duten balioak, pertsona guztien berdintasunarekiko konpromisoa sendotuko dutenak, sexu biei balio eta prestigio bera emango dietenak, eta bereziki gizonen dagokienez, gizonen eredu tradizionala auzitan jarri eta berdintasunarekin koherenteak diren jarrera eta portaerak garatuko dituztenak.

Nahitaez sentsibilizatu behar da gizartea oro har, bai eta gizartearengan berdintasunean oinarritutako eredu batera aldatzeko behararen inguruan eragiten duten profesional, gizarte-eragile eta bestelako erakundeak ere. Hori dela eta, Emakunderen zereginetako bat da gizarte-sentsibilizazioko ekintzak egitea, eta horien artean nabarmentzekoak dira jardunaldiak, kanpainak, aldizkari digitala eta web-ingurunea, berdintasunerako Emakunde saria eta eztabaida-taldeetan eta komunikabideetan etengabe parte hartzea. Emakume eta gizonen berdintasunerako sentsibilizazioa funtsezkoa da desberdintasunaren ondoriozko arazo, desoreka eta bidegabekeria guztiei aurre egiteko, eta horien artean larrienari, emakumeen aurkako indarkeriari, alegia.

3.4.1. Nahiko programa

Nahiko programa hezkidetzeta-programa bat da. Lehen Hezkuntzan erabiltzen da, eta berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza sustatzea du helburu. Programan, eskola-egutegiaren arabera lan egiten da; beraz, 2015eko datuak bi ikasturtetan banatzen dira: 2014-2015 eta 2015-2016. 2014/2015 ikasturtean, 26 ikastetxek parte hartu dute eta hurrengo ikasturtean, 2015/2016an, 36k; zentro horiei laguntza eta gaikuntza eman zaie Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin batera egindako deialdian, genero-indarkeria prebenitzeko eta baterako hezkuntzarako Gidari Planaren esparruan. Zentro horiek Lehen Hezkuntzako 2.287 ikasle baino gehiago izan dituzte 2014/2015 ikasturtean, zifra hori 2.780 ikaslerara iritsi da, 2015/2016 ikasturtean. 2015ean, honako hauek izan dira jarduketa nabarmenenak:

- Prestakuntza-jardunaldi orokorra egin da, programan parte hartzen duten irakasle guztiei zuzendua (70 irakasle); horietan, programaren garapeneren kontu orokorren berri emateaz gainera, hainbat gai aztertu dira, ikasgelako lanarekin lotuak, berdintasunetik:
 - I. jardunaldi orokorra, «Baterako hezkuntza: gure ikasleek izaera libreagoa garatzeko hezte», Amelia Barquinen eskutik, eta mahai-inguru bat, Nahiko! aplikazio praktikoari buruzko programako ikastetxe parte-hartzaileekin.



- Hiru hilean behingo 13 mintegi egin dira (1 hiru hilean behin, lehen hezkuntzako ziklo bakoitzeko); horietan, prestakuntza berezia eman da, hiruhileko bakoitzean landuko diren unitate didaktikoak ezagutzera eman dira eta aurreko hiruhilekoko esperientzia ebaluatu da.
- Banakako laguntza eman eta segimendua egin da, ikastetxe partaideek halaxe eskatuta.
- Programak material fisikoa du unitate didaktikoak egiteko, zikloen arabera behar bezala antolatuta, kutxatan. 2015/2017 ikasturtean, guztira 92 kutxa banatu dira.

3.4.2. Beldur Barik programaren esperientzia pilotua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan

2014an, Emakundek esperientzia pilotua jarri zuen martxan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren hezkuntza-sisGaian, genero-indarkeria prebenitzeko eta baterako hezkuntzarako Gidari Planaren esparruan, 2013. urte-amaieran. Esperientzia pilotu horretan Beldur Barik kanpaina indarrean egon den urteetan ([ikusi kanpainei buruzko 3.4.4 eranskina](#)) gazteek garatutako ikusi -entzuneko edukiak didaktika-helburuetarako erabili nahi izan dira, ostean Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan baliatu ahal izateko. Azken finean, esperientziaren helburua da hezkuntza arautuaren esparruan gazteriarentzat interesgarriak diren gaiak lantzea, gazteek eurek egindako bideoen bitartez.

Esperientzia pilotu honen lehen urratsa izan zen Beldur Barik programatik bigarren mailako zentroetako irakasleei ezagutza transferitzeko beharrezko programazio eta baliabide pedagogikoak diseinatzea eta egitea. Guztira, 19 unitate didaktiko eta irakasleentzako dossier teoriko bat egin ziren. Gainera, osatutako materialaren interesa ikusita, ikasgeletan probatzea erabaki zen. Horretarako, hurrengo urratsa izan zen irakasleak prestatzea, zuzenean ikasgelan esku hartu ahal izateko prestatutako materialarekin; prestakuntza-prozesu hori 2014ko irailean hasi zen, Baterako Hezkuntzaren Planaren lehen deialdiko 16 ikastetxeekin eta guztira 106 irakaslerekin.

2015ean, irakasleentzako prestakuntza osatu da hezkidetza-planaren lehen deialdiko 16 ikastetxeri ikasgelako esperimentazioa egiteko banakako aholkularitzarekin, eta esperientziak elkarri trukatzeko bilkurak egin ditugu parte hartu duten ikastetxeekin. Horrez gain, hezkidetza-planaren bigarren deialdiaren 34 ikastetxeetako irakasleei prestakuntza eman diegu. Guztira, 27 prestakuntza-saio eman zaizkie irakasleei; horietan, hezkuntzako 261 profesionalak parte hartu dute, 26 aholkularitza-saio eman zaizkie 2015 profesionali, 3 esperientziak trukatzeko saioak.

3.4.3. Gizonduz ekimena

Gizonduz ekimen aitzindariaren xedea gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gehiago inplikatu daitezzen sustatzea da. Honako helburuak ditu:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurka sentsibilizatutako eta inplikaturako gizonen kopurua handitzea.
- Gizon gehiago prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan.
- Gizonak etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna areagotzea.

Irakasleei 27 prestakuntza-saio eman zaizkie; horietan, hezkuntzako 261 profesionalak parte hartu dute. 26 aholkularitza-saio eman zaizkie 2015 profesionali, 3 esperientziak trukatzeko saioak.

2015. urtean, honako jardura hauek egin dira, Gizonduz ekimenaren barruan:

- **Berdintasunaren aldeko gizonen arloan espezializatutako webgunea administratzea** (www.euskadi.net/gizonduz). Webgune horrek ekimenari buruzko informazio zabala hainbat euskarritan eskaintzen du, hala nola elkarrizketekin osatutako ERANSKINAK, dokumentazio gunea, bibliografia, bideoak, web gune interesgarrietarako loturak, etab. Gainera, bloga ere dago eskura, herritarrei zabalduko gunea, berdintasunarekin, gizonekin eta maskulinitasunarekin zerikusia duten berriei buruzko iritziak, hausnarketak eta iruzkinak adierazi ahal izateko.
- **Sare sozialetan parte hartzea.** Gizonduzek Facebooken duen orria eta YouTube, Vimeo eta Twitterren dituen profilak administratu dira, eta aldiari behin eguneratu egin dira. Nabarmentzekoa da Facebooken 2015ean 5.300 lagun izan genituela, 879 jarraitzaile Twitterren eta YouTube 1.251 ikusle.
- **Sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa.** 2015ean jarri zen abian programa honen bosgarren edizioa. Zenbait ikastaro osatuta dago; batzuk aurrez aurrekoak dira, eta beste batzuk, Internet bidezkoak. Ikastaroak doakoak dira, era askotako eskaintza zabala dute, eta egokitzeko modukoak eta malguak dira. Emakumeek parte hartzeko aukera badute ere, interes pertsonala duten edo ikuspegi profesionalek, emakume eta gizonen berdintasuna zer den eta horren alde nola lan egin daitekeen jakin nahi duten edo gai horretan prestatu nahi duten gizonentzat bereziki zuzendutako ikastaroak dira. Alde horretatik, gizonen balio eta jarrerekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako gaiak lantzen dira, eta zenbait gai aztertzen dira, hala nola osasuna, zainketa, aitatasuna, sexualitatea, bide-segurtasuna, emakumeen aurkako indarkeria, toxikomanien prebentzioa, kriminalitatearen prebentzioa... 2015ean 314 prestakuntza-ordu inguru eman dira, eta antolatutako ikastaro batzuetan eta besteetan 467 gizonen eta 354 emakumeen hartu dute parte..
- **«Gazteak Berdintasunean 2.0» proiektua** EJIE, SA sozietate publikoarekin lankidetzan, proiektu honen ikastetxe batzuetan testatu egin da proiektu hau. Proiektuaren xedea da nerabe eta gazteen kontzientziak eta inplikazioa bultzatzea, eta, bereziki, gizezkoena, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten. Horretarako, teknologia berrietan oinarritutako hezkuntza-tresna berritzaileak baliatuko dira. Proiektuak hiru plataforma ditu:
 - Informazio-web edo «erakusle» bat: proiektuaren garapenera eta faseei nahiz proiektuan lanean ari diren erakundeei buruzko informazioa emango du.
 - Online abentura grafiko bat (bideo joko bat): erabiltzaileei egoera batzuk adieraziko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da, egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak eta halakoak izango dituzte, eta erabaki bat hartu beharko dute zenbait aukeraren artean.
 - Komunitate birtuala, nerabeen arteko komunikazioa sendotuta partaidetzako guneak sortuko dituena.
- **Aitak+ kanpaina.** Irekiarekin elkarlanean eta sare sozialen bitartez kanpaina egin dugu martxoaren 19a dela-eta gurasotasun erantzunkidea eta berdintasunezkoa sustatzeko. Twitterren 280 aldiz agertu da, eta Twitterren 61.879 erabiltzaile bakarrengana heldu da.
- **Gizonduz-en ebaluazioa.** Gizonduz programa ebaluatu da 2015ean.
- **Berdintasunari buruzko unibertsitate-master eta -graduondokoen eta HAEEn ikastaroen publizitatea egitea, bai eta Berdintasunerako Gunearena ere.** Gizonak prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardura horietan parte hartzera bultzatzeko, Gizonduz ekimenak haien publizitatea egin du bere aldikari elektronikoaren eta webgunearen bidez.
- **Jardunaldiak eta hitzaldiak.** Emakunde honako hauek antolatu ditu Gizonduzen barruan:
 - «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Legearen 10 urte: aurrerapenak eta erronkak» jardunaldia, Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitzan, Irekia bidez transmititua. Bertan, mahai-inguru eta lantaldeez gainera, Michael Kaufman-en hitzaldia izan genuen, Lazú Zuriaren Kanpainaren sortzaileetako bat, Promundoko ikertzailea eta MenCareko kidea.



Gizonduz



- **Beste sentsibilizazio-jarduera batzuk.** Gizonduz ekimena ezagutzera emateko, Emakunde zenbait komunikabidetan agertu da, eta beste erakunde batzuek antolatutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduera ugaritan parte hartu du. Adibidez, hauetan:
 - «Maskulinitateak, politika publikoak eta esku-hartze soziala» ikastaroa, CEPAIM Fundazioak antolatuta, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak eta Europar Batasunak finantzatuta.
 - Red de Hombres por la Igualdad de Argentina sarearen topaketa, NBE Argentinak babestuta.

3.4.4. Kanpainak

Martxoaren 8ko kanpaina

Martxoaren 8ko kanpaina, Emakumeen Nazioarteko Eguneako, 2015ean diseinatuak, azken hamarkadotan gizartearen aurrerapenak berdintasunean nabarmentzean eragin du eta, aldi berean, atzerapausoak emateak dakartzan arriskuak. Kanpaina gogorarazten du 20 urte bete direla Beijingeko Ekintza Adierazpen eta Plataformatik, une garrantzitsua emakumeen eskubideak sustatzeko, 1995ean eginiko Emakumeari buruzko Laugarren Munduko Biltzarraren ondorioz. Era berean, 10 urte bete ditu 2005ean Eusko Legebiltzarrak onetsitako Berdintasunerako Legeak; kontu garrantzitsuenetako bat izan da berdintasun-politiken historian gure erkidegoan. Berdintasunerako eskubidea errealitate bilakatzea da kanpaina eman nahi duen mezu bat; atzerapausorik eman behar ez dela ohartarazten gaitu.

Kanpainaren lema da «Gizartea aurrera doa berdintasunerantz. Ez dezagun atzera egin. Berdintasunerako eskubidea egia bihurtu dezagun». Neska gazte baten irudia erakusten du: neska, gerritik gora, aurrerantz doa eta, gerritik behera, atzerantz. Kanpaina martxoaren 3tik 10era bitartean egin zen, prentsan, bannerretan eta kanpoko karteletan. Gainera, 5.000 kartel eta 2.000 pegatina bidali zaizkie erakundeei, ikastetxeei, osasun-zentroei, elkartei, enpresei, kultura-zentroei, liburutegiei, etab.

Balio-aldaketaren aldeko sentsibilizazio-kanpaina


Emakundek 2014an sentsibilizazio-kanpaina bat jarri zuen martxan, beharrezko balio-aldaketarekin lotuta, gizarte bidezkoagoa eta berdinzaleagoa lortzeko; 2015ean kanpainarekin jarraitu da. Noa izeneko neska gazte bat du protagonista, eta eguneroko bizitzan gertatzen diren desberdintasun-egoerak aurkezten ditu.

Sentsibilizazio-kanpainaren barruan lau telebista-iragarki, irrati-iragarkiak eta Internetarako bannerak egin ziren. ETBko kanaletan, EITB taldeko irrati-tan eta eitb.com-en zabaldu zen, bi txandatan: bata ekainean eta bestea abenduan. Kanpaina Eusko Jaurlaritzak onetsitako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren funtsezko ardatzetako bati erantzuten dio, besteak beste, balio-aldaketa eta genero-rolak eta estereotipoak ezabatzea gure gizartean. Pertsonen sinesmenetan eta gizarte-ordena sinbolikoan eragitea ezinbestekoa da gizartean aldaketak eta eraldaketak lortzeko, eta horregatik jarri zuen martxan Emakundek aipatu sentsibilizazio-kanpaina.

Kaufman



Martxoaren 8ko kanpaina



Honako hauek dira iragarki bakoitzean landu ziren gai zehatzak.

- 1. **IRAGARKIA:** Zaintzen balioespena eta banaketa. Lehenengo iragarkiak laneko bizitza eta familia bateratzearen garrantzia eta erantzunkidetasuna azpimarratzen ditu. Iragarkiaren lema zehatza honako hau da: «Egin dezagun zaintzak baloratzen eta partekatzen dituen gizartea».
- 2. **IRAGARKIA:** Teknologia berrien bidezko gazteen kontrola, askatasun-mugatzea eta jazarpena ditu hizpide, eta bere leloa «Ez kontrolatu eta ez utzi kontrolatzen» da.
- 3. **IRAGARKIA:** Eredurik inposatzen ez duen eta pertsonak diren bezalakoak errespetatuko dituen gizarte baten alde.
- 4. **IRAGARKIA:** Aintzatetsi eta balioetsi dezagun emakumeen ezagutza, hurrengo belaunaldien erreferente bihurtzeko.

Kanpaina hau, ETBko Sorgintxulo haur-programan berdintasunarekin lotutako gaiak lantzen dituzten mikroespazioen sustapenarekin osatzen da.

2015ean, eskola-agenda (2015-2016) prestatu da; agendak berdintasunarekin eta pertsona ororen errespetuarekin lotutako eguneroko egoeretan eragiten duten mezuak jasotzen ditu. Agenda honen bidez (EAEko DBHko 1. eta 2. mailako ikasle guztiei banatu zaie), honako gai hauekin lotutako mezuak zabaldu dira: bizi-proiektuak hautatzeko askatasuna, «nesken gauzak» eta «mutilen gauzak» daudela markatzen dituzten estereotipoekin amaitzeko beharrezana, pertsonen zaintzaren garrantzia eta zaintza-lana partekatutako izateko beharrezana, etxeko lanak banatzeko beharra, aniztasunarekiko errespetua (sexua, arraza, baldintza fisikoa...), pertsonen autonomia sustatzeko beharra, gorputz perfektuen tiranotasuna salatzen dituzten mezuak, autoestimua sustatzeko eta sentimenduak adierazteko beharra (neskak ala mutilak izan), neska eta mutilen artean adiskidetasuna partekatzeko beharra, emakumeen jakintzak ezagutzea belaunaldi berrien eredu izateko etab.

Azaroaren 25eko kanpaina. Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna

2006az geroztik, kontzientziazio-kanpaina bat egiten da urtero Berdintasunaren esparruan, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean. 2013tik, Emakunde kanpaina hau sustatzeko eta kudeatzeko ardura du; horretarako, zuzenean sustatzen du diseinua, garapena eta ebaluazioa, hiru foru-aldundien eta Eudelen laguntzarekin eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITBrekin lankidetzan.

Noa



ETB



Azaroaren 25eko kanpainaren esparruan, Beldur Barik programa garatzen da; gazteei zuzenduta dago. Programa honen helburu nagusia da emakume gazteen aurkako indarkeria prebenitzea eta, horretarako, neskei indarkeria sexista identifikatzeko eta hari aurre egiteko tresna eta baliabideak ematea eta mutil gazteekin beren jarrera sexistak prebenitzeko lan egitea eta beren eguneroko ingurunean eraso sexistak saihesteko rol aktiboa hartzea animatzea. Neska eta mutilekin indarkeria sexistaren egungo egoera gainditu ahal izateko jarrera eta jokabide indibidualak eta kolektiboak eraiki nahi dira.

2015ean, udalek toki-ekimenen garapena sustatzearen aldeko apustua finkatu nahi izan da; beraz, aholkularitza eta laguntza sendotu dira toki-prozesu horien diseinuan eta garapenean. Gainera, jarraitu da ikastetxeen parte-hartzeari bidea ematen, bai eta emakumeen elkarteekiko eta mugimendu feministarekiko lankidetzari ere.

Beldur Bariken barruan, hainbat jarduera programatzen dira; horietan helburua da gazteen inplikazio eta parte-hartze aktiboa, besteak beste Beldur Barik lehiaketa eta amaierako Topaketa, programa integral honen jarduera eratzaile gisa.

2015eko seigarren edizio honetan, programan izandako parte-hartzeak hasierako aurreikuspenak gainditu ditu, honako hauek kontuan hartuz gero: parte hartu duten udalerrien kopurua (92), Lehiaketan aurkeztu diren lanen kopurua (316), lanetan esku hartu duten gazteena (2.066 gazte, 1.232 neska eta 834 mutil), eta Amurrion egindako Topaketan izandako parte-hartzaileak (340tik gora). Beraz, urterik urte hobetzen dira parte hartzeari buruzko datuak. Azken datu bezala, aipatu nahi dugu programaren webera eginiko 543.345 bisitek erakusten dutela Beldur Bariketik interes handia eragiten duela gazteengan.

Zehatzago esateko, Beldur Barik lehiaketaren helburua da gaur egun emakumeek nozitzen duten desberdintasun-egoerari aurre egiteko, mutikoek eta neskatilek hartzen dituzten jarrerak eta jokabideak islatzen dituzten adierazpen artistiko indibidual edo kolektiboak onartzea, baloratzea eta bultzatzea; adierazpen horietan ikusten baita, hain zuzen, errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, ardura partekatuan eta emakumeen kontrako biolentziarekiko arbuio irmoan oinarritzen direla aipatu jarrerak eta jokabideak.

Beldur Barik



Irabzaleak



Pasaiatik bidalitako bideoa, «Yo soy» lan irabazlea izan zen lehen kategorian (12 eta 17 urte bitartean) eta «40 golpe», Berriatukoa, sari irabazlea bigarren kategorian (18 eta 26 urte bitartean).

Lehen kategorian, aipamen berezia eskaini zitzaien «Hau ez da bakarrik jolas bat» bideoari; Basaurin egin zen. Epaimahaiak erabaki zuen bigarren kategoriaren aipamen bereziaren saria bi lan ematea. Honako lan hauei: «Yo soy preciosa», Donostiakoa, eta «Sin ti soy yo», Lurretakoa. Ikus-entzunezko ekoizpen onenaren saria Durangoko «Sin medias laranjas» lanak lortu zuen. Era berean, herritarren artean egindako bozketan, «Hankak lurrera» lana atera zen irabazle, 867 boto jaso baitzituen.

Sari-banaketa azaroaren 27an izan zen, Beldur Bariken 2015eko Topaketan, Amurrio Antzokian; ekitaldira 340 pertsona joan ziren. Arratsaldean, ehunka gazte zenbait ekitalditan eta kalejira batean izan ziren, eta 190 gaztek aktiboki hartu zuten parte udal-kiroldegian genitalitatearen ezagutzaz eta autoezagutzaz antolatutako 8 tailerretan, praktika artistikoaren, autodefentsaren, maskulinitateei buruzko tailerren, dantzaren, aktibismo feministaren, mutilentzako clown desahalduntzearen, perkusio afrikarraren eta whatsapperako sexismoari buruzko tailerraren bidez, besteak beste.

2015ean, lau tresna berri sortu dira: «Beldur Barik Zineforum Biral», «Whatsappean sexismoari aurre egitea», «Beldur Barik Baliabideen Gidaliburua», eta «Beldur Barik Gunea» jaietarako eta astialdirako programa.

BB Gunea udaletan interes gehien eragin duen tresna da; izan ere, helburu du epe luzera tokian tokiko prozesuak sortzea. Horrekin, gazteentzako kanpainak egin nahi dira, jai- eta aisialdi-giroetan sexu-indarkeria identifikatzeko eta prebenitzeko eta egoera horiei nola aurre egin (banaka zein taldean) antolatuzko. «Beldur Barik Gunea» garatzeko, benetako tresnatzat jotzen diren material batzuk diseinatu dira, gazteei informazioa zuzenean eta erraz emateko, eurentzat ezagunak eta hurbilekoak diren formatuak baliatuta. Material guztiak elkarri lotuta daude: sexismoaren kontrako mezuak eta informazioa jasotzen dute, homofobiaren kontrakoak eta sexu-erasoen kontrakoak, bakoitzak bere iturria duela (irudia, audioa eta testua). Zehazki, ondoko hauek diseinatu dira:

1. Udalerriko gazteei banatzeko materialak: Sexu-erasoak prebenitzeko kita: prebentziorako gidaliburua; txilibitua, pegatinak eta/edo txapak; BB Guneari buruzko triptikoa.
2. Material grafikoak BB Guneako jarreradun mezuekin: kartelak, plastikozko zintak, banderinak etab.
3. Soinu-materialak: musika-proposamena, autodefentsa eta ahalduntzeari buruzko mezuak dituela.
4. «Kaleak, gauak eta jaiak geureak dira» lantegia: jai-ekitaldietan gerta daitezkeen eraso sexistei aurre egiteko tresnak emateko bideratuta dago.

Guztira 17 udalerrik ekintza-motaren bat egin dute BB Guneari dagokionez; gehienak herriko jaien inguruan. Gainera, udalerrri batek aisiarako dituen udal-guneetan erabili du: Gaztelekua eta «Gauero» (gauerako gunea, alkoholik gabekoa, 18 urte beherakoentzat). Udalek egindako balorazioa oso positiboa da, publiko hartzaileari oso ondo egokitutako irudia duena. Edonola ere, esan dute oso denbora gutxi egon dela behar den moduan garatzeko.

3.4.5. Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako gunea

Emakundek urriaren 5aren eta abenduaren 17aren artean 2015eko Berdintasunerako Foroa jarri zuen martxan; baterako espazio horretan, erakunde publiko eta pribatuek emakume eta gizonen berdintasunarekin lotutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatzen dituzte, horrela, eremu horretan Euskadin egiten den lana ikusarazteko.

2015ean, Foro horren hamaikagarren edizioa egin da. Martxoaren 8a ospatzeko Emakundek sustatutako kanpainaren leloa jaso du: «Gizartea aurrera doa berdintasunerantz. Ez dezagun atzera egin.» Helburu nagusietako bat berdintasunaren mezua pertsona eta herri gehiagotara helaraztea izan da; horregatik, aurten ere unitate ibiltari bat izan dugu, foroaren mezua gehiago ikusarazteko EAEko herri askotan. Gainera, zenbait erakundek, elkarteak, enpresak eta udalek eskatuta, autobusa horiek antolatutako jarduera batzuen topaleku izan da, eta, aldi berean, herritarrengandiko hurbiltasuna sustatu da. Bestalde, unitate mugigarria eskola-ikaskela bezala erabili da; bertan, berdintasun-teknikari bik zenbait tailer eman dituzte: publizitate sexistari buruzkoa, sexismoa zineman eta Nahiko eta Beldur Barik programak, besteak beste.

124 erakundek parte hartu dute: elkarteak, enpresak, fundazioak, Eusko Jaurlaritzako sailen zuzendaritzak, unibertsitateak edo ikastetxeak, alderdi politikoak, enpresa-elkarteak, elkargo profesionalak, udalak eta sindikatuak. Guztira, 174 jarduera egin dira 47 herritan, eta 5.000 lagunek baino gehiagok parte hartu dute.

3.4.6. 'Emakunde' aldizkaria argitaratzea

Formatu digitalaren aldeko apustua sendotu du Emakunde aldizkariak 2015. urtean. Apustu hori egin da, teknologia berriek ematen dituzten abantailak baliatzeko; hau da, ingurumena zaintzeko eta kostu ekonomikoak murrizteko. Aldizkariak 755 harpidedun ditu, eta horiek aldian-aldian berritasun-buletinak jasotzen dituzte euren posta elektronikoan. Sare sozialen babesari esker, aldizkariako edukiok hedapen handia dute. Elkarreragina formatu digitalaren beste lorpenetako bat da, berri askok irakurleen iruzkinak jasotzen dituzte eta.

Berdintasunaren Foroa



Legebiltzarreko autobusa



Aldizkariaren helburuetako bat gure gizarteko esparru batzuetan eta besteetan adituak diren emakumeak, emakumeen elkarteak eta Emakundek berdintasunaren alde egindako lana ikusaraztea da, eta horrez gain berdintasunaren arloko jardunbide onak ezagutaraztea ere bai. 2015ean, sakoneko elkarrizketen atalean, besteak beste, honako hauek elkarrizketatu dira: GKE Mujeresen Politiken Alorreko zuzendaria, Begoña Lasagabaster; gizonekin lan egiteko nazioarteko aditua, Michael Kaufman; eta Inmaculada Mujika, Elena Olaortua, Josune Ortiz eta Amparo Villar, «Lesbianas con recursos. Una mirada sobre el acceso y el uso de los recursos sociales en la CAE por parte de las mujeres lesbianas» azterlanaren egileak, Emakundek bere ikerketa-beken programaren bidez diruz lagundua.

3.4.7. Hedabideetan agertzea

Herritarrak Emakunderen helburuez sentsibilizatzeko eta egindako jarduerak ezagutarazteko, erakundeak sentsibilizazio- eta informazio-lan handia egiten du komunikabideetan. Horretarako, iritzi-artikuluak eta prentsa-oharrak bidali ditu, eta prentsaurrekoak, elkarrizketak eta bestelako ekintza batzuk antolatu ditu.

Guztira, 2015ean, guztira, hedabideei 41 prentsa-ohar bidali zaizkie eta hedabideei prentsaurrekoetarako deialdiak 11 aldiz bidali zaizkie. Halaber, Emakundeko zuzendariak hedabideetan hainbat iritzi-artikulu argitaratu du:

- Un nuevo impulso a la igualdad. Izaskun Landaida Larizgoitia (2015-03-08)
- Gestos cotidianos para prevenir las agresiones. Izaskun Landaida (2015-07-24)
- Berdintasuna, osasunaren babesgarri. Izaskun Landaida. (2015-05-28)
- Estrechando lazos por la igualdad, Ana Alberdi (201510-24)

Horrez gain, hedabideen kontsulta eta eskariei erantzun zaie, adibidez elkarrizketak egiteko, datuak eskuratzeko, etab. Kontsulta gehienetan zera eskatu da: elkarrizketak Emakundeko zuzendariarekin, elkarrizketak egitea merezi duten adituei buruzko informazioa, emakumeen aurkako indarkeriarekin edo emakumeen lan egoerarekin lotutako datuei buruzko informazioa, hainbat esparrutan (osasuna, lana, politika, etab.) berdintasunarekin lotutako hainbat gairi egindako azterlanei buruzko informazioa... Emakume eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duen edozein gai aztertzeari ekiterakoan, hedabideek dauzkaten erreferentzien artean Emakunde da lehenengoetarikoa eta nagusietarikoa bat.

Komunikabideak



Prentsaurrea



3.4.8. Berdintasunaren Emakunde Saria

Emakunde sariaren bidez, jendaurrean nabarmendu eta aitortu nahi da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako lanagatik gailendu diren pertsona fisiko edo juridikoen -publiko nahiz pribatuen- jarduna, hain zuzen ere, EAEn emakumeen lana eta beren ahalduntzea aitortzeari dagokionez alderdi esanguratsuak hobetzeko ekintza, lan edo proiektuak egin dituzten pertsonak, edo beren jardunarekin, emakumearen zeregina aintzat hartzen eta duintzen lagundu dutenak edo emakumeen eta gizonen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen nabarmendu direnak.

2015ean, 2014ko Emakunde Sariaren hautagai irabazlearen saria María de Maeztu Forum Feministak jaso zuen; borroka feministaren 25 urtetik gorako ibilbidea nabarmentzeko. Hori dela, Euskal Herriko elkarte feminista aitzindarietako bat dela esan behar da. Forum horri emandako sariaren bidez, epaimahaiak, gainera, esker ona adierazi nahi izan zion aurretik izan ditugun emakume guztiek egindako borroka feministari; izan ere, oso garrantzitsua da feminismoaren kontaketa genealogikoa izatea, derrigorrean begiratu eta aitortu behar baita aurrekarien lana, aurrera egiten jarraitu ahal izateko, eta ezinbestean transmititu behar zaielako belaunaldi gazteenei feminismoan oinarrituta baino ezin dela berdintasunerantz abiatu. Sari-banaketarako ekitaldia Gasteizko Artium museoan izan zen, 2015eko apirilaren 25ean, emakumeen elkarte-mugimenduari zuzendutako «Emakumeen herritartasuna: emakumeen giza eskubideak eta nazioarteko mekanismoak» lan-jardunaldian.

Bestalde, 2015eko Emakunde Sariaren epaimahaiak Berdintasunerako Emakunde Sarirako aurkeztutako 30 hautagaien artean, Arabako Baserritar Inguruko Emakumeen Sareak aurkeztutako hautagaiak eta Hitzez «Baserriko Emakumeen Elkarte» aukeratu zituen, ex aequo. Epaimahaiak nabarmendu zuen hark landa-ingurunean izandako lan-ibilbidea, emakumeen eskubideak baliatzeko eta berdintasunerantz aurrera egiteko izandako oztopo bereziekin. Bi erakundeek agerian uzten dute elkartze-lanaren balioa; desberdintasunez jabetzeko prozesua izan da, indartze pertsonala eta kolektiboa eta, aldi berean, indartsuago egin du berdintasunerako lanaren eragin soziala. Horretaz gain, epaimahaiak alderdi hauek nabarmendu nahi ditu: sarean egindako lana eta gainerako erakundeekiko eta instituzioekiko lankidetzeta, landa-inguruko emakumeen eskubideen aldarrikapenean, batez ere, emakumeak nekazaritza-ustiategien eta -ekoizpenen TITULARRArak izan daitezen; eta Emakume Nekazarien Estatutu onartu berria izandako partaidetza.

Saria erakunde horiei emanez, epaimahaiak esker ona adierazi nahi izan zuen landa-inguruneke emakume guztien lanagatik, bai eta funtsezko ekarpena adierazi ere landa-espazioen mantentzeari, bertan bizi diren pertsona guztien bizi-kalitatearen hobekuntzari eta hura eredu jasangarriago bilakatzeko zeregin berritzaileari. Halaber, agerian utzi nahi du emakume eta gizonen berdintasunerako lana beharrezkoa dela gizarte- eta produkzio-eremu guztietan.

2015ean,
2014ko Emakunde Sariaren
hautagai irabazlearen saria
María de Maeztu Forum Feministak
jaso zuen

3.4.9. Emakunderen webgunea eta sare sozialak

Emakunderen webgunea herritarrentzako zerbitzuaren parametro zorrotzetarantz bideratu da. Alde horretatik, zerbitzu publiko digitalaren kontzeptua sakondu da, eta ahal den neurrian bidea eman da edukien kontsulta gai-arlo batzuetan oinarrituta egin ahal izateko, bai eta sare sozialekin, Irekiarekin, Blogekin, eta abarrekin elkarreraginean aritzeko.

Mantendu eta indartu egin da 2015ean, modu esanguratsuan, sare sozialen aldeko apustua; presentzia handiagoa lortu da Facebooken eta Twitterren, eta horrek esan nahi du igoera esanguratsua egon dela jarraitzaile-kopuruari dagokionez. 2015eko abenduan, Facebooken 2.402 jarraitzaile daude.

Twitter Emakunde kontuak, 2015eko abenduan, 3.000 jarraitzaile ditu. Bi kontu horietan, Emakunde aldizkariko berrikuntzak azaltzen dira, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko artikulu eta dokumentu interesgarriak ere.

Gizonduz ekimenerako kontu bat ere badu Emakunde Facebooken. Gainera, Emakunderen jarduerarekin lotutako bideoak igo dira sarera, eta erakundeak kontu bat dauka dagoeneko YouTubeen. Azkenik, Emakunderi buruzko albisteak eta eguneraketak agertu dira Irekia atarian.


3.4.10. Emakunderen Zuzendaritzaren presentzia sentsibilizazio-jardueretan

Emakundeko ordezkari gorenak askotariko erakunde, elkarte, enpresa eta entitateek antolatutako jarduera ugaritan parte hartu du. Gizarteko esparru guztietan, berdintasunaren aldeko lana laguntzeko erakundeak duen beste modu bat da hori.

Emakundeko zuzendaria, Izaskun Landaia, horrelako hainbat topaketatara bertaratu da 2015ean. Hementxe horietako batzuk:

- Ada Byron 2015eko Sariaren aurkezpena eta banaketa. «Emakumeen ekarpena teknologiarik» mahai-ingurua, Deustuko Unibertsitateak antolatuta.
- Isaiás Lafuenteren hitzaldiaren aurkezpena, Clara Campoamorren bizitzari buruz, Donostian, REDAGI Elkarteak antolatuta.
- Bergaran Prestakuntza Ziklo Industrialetan emakumeen presentzia sustatzeko jardunaldiak.
- «Elkarrizketak», Katainen presidenteordearekin. Europako Batzordea Bilbon.
- IX sariak Gaurko Emakumeak Sopuertan.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Baterako Hezkuntzaren Planaren aurkezpena.
- Moderatzailea «Berdintasuna, emakumeak eta Europar Batasuna» jardunaldian, Donostian, European Dialogues-en esparruan.
- Emakume Sahararrak Batasun Nazionalaren Biltzarren aurkezpena Saharan.
- Moderatzailea HIESari eta sexu transmisioei buruzko Estatuko XVII. Biltzarrean.

- Ines Medinaren «Ezagutza kontzientea benetako prozesu sortzailean» erakusketaren inaugurazioa, Igorren.
- Udalei Beldur Barik kanpainaren aurkezpena, Bilbon.
- AED sari-banaketa Bilbon.
- «Ikerketa feministen eta genero-ikerketen arauketa Unibertsitatean eta legegintzako erreforma berriak» workshopa Oñatin.
- Kazetaritzari buruzko jardunaldiaren aurkezpena – Emakumeen kontrako Indarkeria (2. Saioa), Bilbon.
- Getxoko Emakumezkoen IX. Futbol Txapelketaren sarien banaketa.
- Itxiera - Hainbat herrialdetako emakumeen arteko jardunbide ekonomiko egokien eta esperientzien trukearen (sarea) Europako espazioa. Leonardo Business Women proiektua, Somorrostron.
- CONFAVen XLIII. Biltzar Nazionalaren irekiera, Euskadiko Alargunen Federazioak Bilbon antolatua.
- Softbol ohorezko sakea. Euskadiko Selekzioaren - Kubako Selekzioaren II. Topaketa Bilbon.
- Irungo eta Hondarribiko alarde publikoan parte-hartzea eta hari laguntzea.
- Familia Nekazaritzaren Nazioarteko Biltzarren irekiera, Derion.
- «Ekin, zuzendu» FORO WO SESSIONS jardunaldiaren aurkezpena, Deustuko Unibertsitateak Donostian antolatua.
- Herritarrek bake-prozesuan parte hartzeari buruzko mintegia Bilbon.
- PWN-Bilbao hizlaria: «Emakumea, Berrikuntza eta Lehiakortasun Jasangarria» Bilbon.
- «Why not Judy Chicago?» erakusketaren eta «Feminist perspectives in art productions» mintegiaren inaugurazioa, Azkuna Zentroak Bilbon antolatua.
- Final conference Pilot project of the European Charter, Bruselan.
- Euskadiko Landa Emakumeen Nazioarteko Egunaren XII. Edizioaren inaugurazioa, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako Zuzendaritzak Markinan antolatua.
- EMAKUMEARI ETA KIROLARI buruzko V. Mintegiaren irekiera, ASPASIA elkarteak Bilbon antolatua.
- Mahaiaren koordinazioa EUSKALIT «Emakume eta gizonen berdintasuna, erakundeen kudeaketa aurreraturako gako» Europako Astearren Biltzarrean, Bilbon.
- Mujeres España India FCEI paneleko hizlaria, Bilbon.
- Turismoari eta Generoari buruzko jardunaldiaren itxiera. Emakume berritzaileak: ekintzaile turistikoak, Basquetorrek Bilbon antolatua.
- «Aisialdia emakumeen kontua ere bada» jardunaldiaren inaugurazioa, Fekoorek Bilbon antolatua.
- «Diskriminazio-egoerak lantzeko ikuspegi intersektionala» jardunaldiaren inaugurazioa, Biltzenek Bilbon antolatua.
- «Lan arriskuen prebentzioa genero ikuspegiarekin» jardunaldiaren inaugurazioa, Osalanek Bilbon antolatua.



Sahara



Oñatiko Unibertsitatea generoari buruzko ikerketak



Beldur barik udalak



Business Women



Emakume alargunak

- «Pentsioen sistema publikoaren gaur egungo errealitatea: emakume alargunen kasua» ate irekiko jardunaldiaren aurkezpen-mahaia, Miguel de Unamuno BHIK Bilbon antolatua.
- «Giza Eskubideak eta emakumeen kontrako bortizkeria: erronka berriak hiritartasun globalarentzat» jardunaldien inaugurazioa, Médicos del Mundok Bilbon antolatua.
- MUGErekin eginiko topaketaren aurkezpena: Euskadiko Emakume Ijitoen Batzordea, Irunen antolatua.
- Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko hitzaldia, Arrigorriagako Udalean.
- Eusko Jaurlaritzaren kontzentrazioa Vitoria-Gasteizen, eta manifestazioa Bilbon, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna.
- Berdintasunaren XI. Jardunaldien inaugurazioa, Galdakaon. Gazteria, balio sexistak eta indarkeria matxista, Galdakaoko Udalak antolatuta.
- Donostiako Emakumeen Etxera bisita.
- Marcela Lagarderen aurkezpena «Indarkeria Jardunaldia»n, Bidasoaldeko Elkarte Feministak antolatua, Irunen.
- «Denbora berriak. Nire denbora, zure denbora, gure denbora» jardunaldia, Eroskik Elorrion antolatua.
- «Kultura gakoa. Berdintasuna» hitzaldia, Open Akademiak Donostian antolatua.
- Arabako Landa Inguruneke Emakumeen Sarearen XVII. Topaketaren irekiera eta aurkezpena. «Emakumeen bizitza eta osasuna», Agurainen.
- Hitzaldia GKE Mujeresek antolatutako jardunaldietan, berdintasunari eta emakumeen kontrako indarkeriari eta emakumeek politikan duten parte-hartzeari buruzkoak, El Salvadorren.
- Parte-hartzea Feministaldi prentsurrekoan, Donostian.
- «Genero-ikuspegia txertatzea lanbide heziketako zikloetan» aurkezpena, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak antolatua, Vitoria-Gasteizen.



Irungo Alardea



Munduko Landa-foroa 2015



Basquetour



Indarkeriaren aurka



Agirre Center

1. ERANSKINA

Diagnostikoak egiteko eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko eta ebaluatzeko diru-laguntzak jaso dituzten udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateen zerrenda.

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENA	DIRU-LAG. ZENB.
ABADIÑOKO UDALA	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. planaren ebaluazioa eta egungo egoeraren diagnostikoa	15.000,00 €
ANDOINGO UDALA	Andoingo kaleak denontzat berdin: genero-ikuspegitik herrian hobetu beharrekoen diagnostikoa egiteko proposamena	8.804,0 €
ARRANKUDIAGAKO UDALA	Arrankudiagako emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa egin eta Berdintasunerako I. Plana diseinatzea	9.962,25 €
ARRIGORRIAGAKO UDALA	Diagnostiko parte-hartzailea eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana Arrigorriagan	13.125,00 €
AZKOITIKO UDALA	Azkoitiko gizarte politiken genero diagnostikoa eta berdintasun plan sektoriala	8.999,68 €
BARAKALDOKO UDALA	Hirigintzan aurrerapen eta erronken ebaluazioa genero-ikuspegiarekin, Barakaldoko Udalarena	5.445,00 €
BERRIZKO UDALA	Berriz udalerrian emakumeek lan-eremuan duten kokapenaren eta baldintzaren diagnostikoa	7.425,00 €
BILBOKO UDALA	Egoerari buruzko diagnostikoa: Bilbo udalerriko gazteekin lan egiten duten gazte eta gizarte-eragileak, indarkeria sexista prebenitzeko eta emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko programak eta/edo jarduerak garatzen dituztenak.	14.625,00 €
KANPEZUKO UDALA	Kanpezuko emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana	10.103,98 €
EIBARKO UDALA	Eibarko emakume eta gizonen berdintasunaren III. Planaren ebaluazioa eta Eibarko emakume eta gizonen berdintasunaren IV. Plana egitea.	8.500,00 €
ERANDIOKO UDALA	Erandio udalerritik migratutako emakumeen diagnostikoa	8.167,50 €
ERRENTERIAKO UDALA	Indarkeria matxistari aurre egiten dieten emakumeen arretarako koordinazio eta ekintza protokoloa	4.575,00 €
GETXOKO UDALA	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren ebaluazioa, Getxon.	7.636,88 €
GUEÑESKO UDALA	II. Berdintasun plana ebaluatzeko eta diagnostiko bat egiteko proposamena eta Gueñesko Udaleko 2015-2019 aldirako emakume eta gizonen berdintasunerako III. plana	6.418,50 €
HERNANIKO UDALA	Emakumeenganako indarkeriari erantzuteko udalerrri-mailako I. Protokoloaren ebaluazioa eta erakundearen arteko koordinaziorako II. Protokoloaren lanketa eta eraketa, indarkeria matxistari aurre egiten dieten emakumeen arreta hobetzeko	7.840,56 €
IRUÑA OKAKO UDALA	Iruña Okako udalerrian emakumezkoen eta gizezkoen berdintasunerako diagnostikoa eta I. plana egitea	9.075,00 €
LASARTE-ORIAKO UDALA	Lasarte-Oriako emakume eta gizonen arteko egoeraren diagnostikoa eta I. Berdintasun plana burutu	11.230,50 €
LEGUTIOKO UDALA	Legutio udalerrian emakumezkoen eta gizezkoen berdintasunerako diagnostikoa eta I. plana egitea	8.621,25 €



textura
joan

1. ERANSKINA

Diagnostikoak egiteko eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko eta ebaluatzeko diru-laguntzak jaso dituzten udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateen zerrenda.

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENA	DIRU-LAG. ZENB.
LEMOIZKO UDALA	Lemoizko gazteriaren artean emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko diagnostikoa eta plan sektoriala	8.167,50 €
LEZOKO UDALA	Oarsoaldeako gunen ilunen diagnostiko parte-hartzailea	15.000,00 €
LAUDIOKO UDALA	Laudioko emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoa eta berdintasunerako III plana	13.597,73 €
MUSKIZKO UDALA	Muskizko Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako III. Planaren diagnostikoa eta hura prestatzea	5.445,00 €
ORDIZIAKO UDALA	Zaintza lanei buruzko diagnostikoa Ordiziako herrian	9.075,00 €
PASAIKO UDALA	Pasaiako emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa eta berdintasunerako I planaren diseinua	13.494,53 €
PORTUGALETEKO UDALA	Portugaleteko emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Planaren diagnostikoa eta ebaluazioa eguneratzea eta IV. Plana egitea	12.525,00 €
SESTAOKO UDALA	Sestaoko emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko II. Planaren ebaluazioa egitea eta diagnostiko parte-hartzailea egitea	14.883,00 €
SORALUZKO UDALA	Soraluze udalerrian landa-ingurunean genero-berdintasunaren diagnostikoa	5.694,56 €
URDULIZKO UDALA	Urdulizko gazteriaren artean emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko diagnostikoa eta plan sektoriala	8.167,50 €
